

GURE SALBAZIÑO - EGINTZA

ASCEA

gure salbaziño egintza

alhartasun zarra

ascea

GURE
SALBAZIÑO-EGINTZA

1.- Alkartasun Zarra

Erderazko 3'garren argitalditik euskeratua

ASCEA - BILBAO

Marrazlari:
Luis Pérez

NIHIL OBSTAT:
Dr. Antonio Zaldúa

IMPRIMATUR:
Bilbao, 24 de septiembre de 1966
PABLO, Obispo de Bilbao

Gerta'ko ama euskera eder eta kutunaren
altzotik, biotz-biotzez, nire anai euskaldun guztioi

Zarate'tar Mikel'ek

ON EGIN!

Idazteuna, Biblia, Jainkoaren Berbea... Ona emen, liburu baten izenak; munduan egin dan libururik ederrenaren izenak.

Idazteun edo Biblia liburu askogaz egindako Liburu Santua dogu; liburu txiki asko alkartu (irurogetamabi) eta guztiokaz bat eginda sortutakoa. Jesukristo gure Jauna jaiotze aurretik eskribidu ziran berrogetabost. Gañerako ogetazazpirak gero. Lenengoai Alkartasun Zarra edo Testamentu Zarra esaten deutsegu; Alkartasun Barria edo Testamentu Barria besteai.

Biblia Santuan daukagu Jaungoikoak esana, Jaungoikoaren betiko Berbea.

Baña gizonen erara idatzita dago Jainkoaren Berba Santu ori. Jainkoaren argiz eta eragiñez, baña gizonak eskribidu dabe Idazteuna. Aldi askotako gizonak, gañera; esaera ta pentzaera ezbardiñeko gizonak. Auxe euki bear dozu beti gogoan, Jaungoikoaren Berba ori ulertuteko.

Idazteuna libururik ederrena ta pozgarriena!

Idazteunak erakusten dausku Jaungoikoa nor eta zer dan; gizona nor eta zer dan, nondik gatozan eta nora goazan. Antxe ikusten dogu gure salbaziño-egintza (Jaungoikoaren maitasuna eta gizonen erantzuna); antxe ikusten dogu gure Edesti Deuna, guztiok parte artuten dogun gure Salbaziñoeko Istoría.

Eta gure Salbaziñoko Istorì Santu ori alde ta aldi guztietako gizonai irakatsi ta azalduteko ardurea, Eleizearen eskuetan itxi dau Jainkoak. Eta, Espiritu Santuaren laguntzaz, orretantxe diardu jo ta ke.


Orain eskuetan daukozun liburutxo au gure Salbaziñoko Istorì orren laburpen bat baño eztozu. Edo, obeto esanda, laburpenaren zati bat bakarrik, Alkartasun Zarra bakarrik.

Baña Alkartasun Barria be laster argiratuko dogu, orrelan, gure Salbaziñoko Istorìaren laburpen osoa euki dagizun.

Liburutxo au leidu ondoren (1), Biblia Santua irakurtzeko goz geratu zaitezala; ba, Jaungoikoak agertutakoa ezautu ta ausnartu ta Jaungoikoaren Berba Santu orren argitan zure biziera barriztau dagizun eta egunen baten zeruko Aitaren etxera betiko sartu zaitez.

On egin!

(1) Azkenaldian daukozu iztegitxo bat, leidu dagizuna, ondo ulertuaz leidu dagizun.



Jainkoak Gizona ta Andrea bere antz eta irudiko egin ebazan

JAUNGOIKOA
ERLEJIÑOKO EGIRIK AUNDIENAK
GIZONAI IRAKASTEN

LENENGO ALDIA

MUNDUAREN ETA GIZONAREN ASIERA

(Asieratik Abraan' erarte)

SARRERA

1. Guretzat zer-ikusit aundia daukan edesti bat esatera noatsu. Gure Salbaziñoko Istorioa da. Jaungoikoak gizonak zelan salbatzen ditun ikusiko dozu.

Jaungoikoak lenengotatik eukan gizonak salbetako asmoa. Eta Salbatzalle bat agintzen dautse gure lenengo gurasoai. Gero, erri bat aukeratu eta aurrera diardu salbaziño-egintzan. Eta gizaldiak joan, gizaldiak etorri, Jaungoikoaren Erri orretan jaioko da Salbatzallea, Jesukristo gure Jauna.

Gure Salbaziño - egintza Abraan'egaz asi eban Jaungoi-

koak. Jaungoikoaren Erriko lenengo gizona Abraan izan zan.

2. Baña, Abraan'en aurretik gauza asko jazo ziran munduan. Zer? Badakizu, sarritan entzungo zendun-eta.

—Mundu au eta gizona nok egin ete-ditu?

—Zergaitik ainbeste neke munduan?

—Abraan'en aurretik zer jazo zan?

3. Jaungoikoak Berak emon dausku erantzuna. "Asiera" deritxogun Idazteuneko lenengo liburuan daukaguz idatzita

Abraan'en aurretik jazotako gauza guztiak.

Jaungoikoak Berak irakatsi dauskuz erlejiñoko egirik aundienak eta asierako gizonen istori ori.

Urrengo ikaskizunetan ikusiko dozu. Baña, begira. Oraintxe

azaldutera goazan Biblia Santuko lenengo zati ori Abraan'en ondorengo israeldarren izkuntza ta pentzaeraz jantzita dago. Aldi aretako erri-jakintza gogoan artu bear dozu, ba; Oriente aldeko gizonen irudimen bizi, olerki zaletasun, esaera ta oiturak.

ITAUNKETA

1. Nogaz asi eban Jaunak gure salbazio-egintza?
2. Abraan'en aurretik jazotako gauzak Idazteuneko zeln liburutan agertzen dira?
3. Nok irakatsi deutsez gizonai erlejiñoko egirik aundienak eta asierako gizonen istoria?

LENENGO IKASKIZUNA

Nok egin dau mundua?

Nok egin dau gizona?

4. Jaungoikoa asiera ta amaibakoa da. Iñok be eztau egin. Betikoa da.

Beste gauza guztiak, lentxoago gerotxoago, asiera bat izan dabe. Jaungoikoak egin ditu. Eta Idazteunak irakasten dausku munduaren eta gizonaren asiera.

5. Baña, Idazteunean gauza bi banandu bear doguz beti: Zer diñon eta zelan diñon; au da:

1) Zeintzuk dira eskritore santuaren bitartez Jaungoikoak erakutsi gura dauskuzan salbaziñorako-egiak?

2) Zeintzuk dira eskritore santuaren pentzaera ta esaerak?

Esatebaterako, gauza guztien asiera azaltzen yakun Idazteuneko lenengo zati orretan egi aundi batzuk irakatsi gura dauskuz Jainkoak:

1) Egizko Jaungoiko bakar bat dago.

2) Jaungoikoa gauza guztien Egille ta Jabea da.

3) Jaungoikoak gizona bere antz eta irudira egin eban.

4) Gizonak eta andreak Jainkoaren egintzan diardue munduan.

5) Gizonak bere Egillea goratu egin bear dau.

Egi oneik alde ta aldi aretako erri-jakintzaz azalduten yakuz. Aldi aretakoentzat ezaunak eta aitzen errezak ziran irudi bidez. Eta, augaitik, aldi aretako esaera ta pentzaera ta irudiak ezautu bear doguz. Orduko oitura ta erri-jakintzaren barri jakin eta guztioentzako idatzita dagozan Idazteuneko Jaungoikoaren egiak atara eta geuregandu egin bear doguz gizaldi bakotzeko gizonok.

Jaungoikoak irakatsi gura dauskuzan egiak eta guretzako eskribidu eban gizonaren pentzaera ta esaerak banandu egin bear doguz. Eskritore santuak bere erara esaten ditu gauzak, Jaungoikoak esana. Esaterako, noz, zelan, zeintzuk gauzak lenengo agertu ziran esatean, orduko jakintzaz berba egiten dau eta etzan bere asmua gauza orreik Jaungoikoak esandako egitzat lez guri azaltzea. Gaur be jakitun asko dabiz gauza gatx eta sakon orreik azterketan.

Orain obeto ulertuko dozula uste dot gauza guztien asiera azalzen dauskun Idazteuneko lenengo zati apañi au.

Asieran Jaungoikoak mundua egin eban

6. "Asieran Jaungoikoak zeru-lurrak egin ebazan. Baña lurra utsik eta illunetan egoan. Eta, orduan, Jaungoikoak esan eban: "Agertu beite argia". Eta argia agertu zan. Eta argia ondo egoala ikusi eban Jaungoikoak. Eta argiari Eguna eta illunari Gava deitu utsan. Gero esan eban: "Egon daitela izartegi bat". Eta egin eban. Eta izartegiari izena Zerua ezarri utsan.

Eta Jaungoikoak esan eban: "Ura leku baten batu daitela". Eta alantxe jazo zan. Eta leorrari Lur deitu utsan eta urari Itxaso. Eta egindakoa ondo egoala ikusi eban Jaungoikoak.

Gero, "argiak egon beitez zeruan", esan eban Jaungoikoak. Eta zeruan argi egiten daben Eguzki ta Iretargi ta izar guztiak egin zitun.

Eta barriro be esan eban: "Klase guztietariko animaliak egon daitezela lurrean". Eta olantxe jazo zan. Eta Jaungoikoak a ondo egoala ikusi eban.

Jaungoikoak gizona egin eban

7. Jaungoikoak gauzak eginda gero, dana ebillen ondo ta zuzen. Eguzki ta iretargi ta izarrak jira-biraka ebizan geratu barik, baktotxa bere bidetik. Animalia eta landarak azi eta ugaritzen ziran. Baña Jaungoikoa ezautu, maitatu eta goratu egiteko, adimendun izaki bat falta zan; mundu au zaindu ta landuteko gizonik ez egoan oindiño.

Eta, orduan, gizona sortzea nai izan eban Jaungoikoak. Eta Beraren antzerakoa egin eban, adimen eta naimenagaz.

Jaungoikoak esan eban, ba:

"Egin dagigun gizona geure antz eta irudiko, lurraren eta lurreko pizti guztien buru izan daiten". Eta lurreko buztinñez egin eban eta arpegian arnasa eginñez bizi-arnasa bat emon eutson."

Irudiak, erratilluak, potixek eta abar egiten dauzan ontzigille bat balitz lez agertzen da Jaungoikoa Idazteuneko zati orretan. Antz-irudi bat dogu ori, gizonaren gorputza egitean Jaungoikoak berariz esku artu ebala esateko. Jaungoikoak Berak sortu eban bizi-azi bat be gorputz orretan, au da, arima bat sortu eban, gizonak bere Egillea ezautu ta maitatu egian.

Lenengo gizon orreri **Adan** deitzen dautso Bibliak. **Buztinñez egiña** esan nai dau.

Munduan gizon asko egotea gura izan eban Jaungoikoak

8. Adan lurrean agertu zanean ez egoan oindiño andrazkorik. Baña Jaungoikoak lagun au emon utsan, biok alkartuta zorionsu izateko eta munduan gizon asko egon eitezan.

Begira zelako irudi bizi eta eder eta zelako apaintasunagaz erakusten dauskun ori Idazteunak:

Eta Jaungoikoak esan eban: "Gizona eztago ondo bakarrik; bere antzerako lagun bat egingo deusat". Jaungoikoak, orduan, gizonari logurea emon eutson. Eta, lo egoala, saietz bat kendu eta andrea egin eban beragaz. Eta gizonari aurrean ipiñi eutson. Eta gizonak esan eban: "Auxe bai bada nire azurretiko azurra eta nire aragitiko aragia".

Idazteunak, onelan, gizona ta andrea izate bardiñekoak dirala esaten dausku. Eta lenengo andra oneri **Eba** deitzen dautso, au, da, **bizien ama**.

9. Gure lenengo gurasoak bedeinkatu egin zitun Jaungoikoak eta esan utsen: "**Ugaritu zaitze munduan**".

Jatorriz bardiñak gara, ba, gizon guztiok, erraza guztietarikoak, alde ta aldi guztietakoak. Lenengo guraso berberen seme gara guztiok; anai gara guztiok. Eta Adan ta Eba lez, geu bakarrik gara lur onetan adimendun izakiak; Jaungoikoa ezautu ta maitatzeko egiñak.

Itxaso aundi ta indartsua edo lora eder bat edo kedun abioi bizkor bat ikusi dagizuzanean, ba, begiratu egizu zerurantzta ta esan: "Aundia be aundia zara, gero, Jauna!"

Jaunaren eguna

10. Bere lan-agitea amaitu ebanean, egindakoa **oso ondo** egoala ikusi eban Jaungoikoak. Eta, orduan, **deskantzau egin ebala** diñosku idazle santuak, au da, ez ebala izaki geyago sortu.

Baña, Berak egindako gauzak Berarenak diranez, gauza guztiak zainduten eta zuzenduten diardu beti; gauzak gauza Beragaitik dira; Berak eutsi eta jàgoten ditu.

Gauza guztiak sei egunean egin eta zazpigarrenean atsedean artu, deskantzau. Zer esan nai dau orregaz Bibliak, ba? Esaera au ondo aitu eben israeldarrak, ondo ulertu eben esaera orregaz Jaungoikoak irakatsi gura eutsena: Jaungoikoaren lan-egitea jarraitu egin bear dau gizonak sei egunean bear egiñez eta zazpigarrenean bere Egillea goratuko dau deskantzau eta otoi egiñez.

11. Orrexegaitik egiten dausku dei Eleizeak be gure eguneroko bearra santututeko, aintzat eta ontzat artzeko. Eta domekan deskantzau egiteko eta Jaungoikoaren omenez eleizkizunak egiteko agintzen dausku.

Jaunaren eguna domekaz ospatzea nai izan dau Eleizeak, izadi guztia pekatuaren menpetik azkatuaz Kristo gure Jauna biztu zan eguna gomutetan deuskulako.

ITAUNKETA

4. Nok egin ditu mundua ta gizona? Nondik dakizu?
5. Gauza guztien asiera azalduten dauskun Idazteuneko lenengo zatian Jaungoikoak irakatsi gura dauskuzan egiak zeintzuk dira?
6. Esaizu ia Idazteunak munduaren asierea zelan dakarren?
7. Eta gizonarena? Zer esan nai dausku Idazteunak Jaungoikoak buztin-gille bat balitz lez gizona egiten diardula esatean?
8. Eta zer diño lenengo andreari buruz? Zer esan gura dausku Bibliak Adan'en saietzetik lenengo andrea sortu ebala Jaungoikoak diñoskunean?
9. Zer erakusten dausku Jaungoikoak sei egunean lanean ibilli zala eta zazpigarrenean deskantzau egin ebala esanez?
10. Deskantzau egin eta, batez be, egun orretan Jaungoikoaz gogoratzeko astean egun bat egiten dogu jai kristiñauok; zein egun da ori?

BIGARREN IKASKIZUNA

Zergaitik ainbeste neke, zoritxar, aisekabe...?

12. Aurreko ikaskizunean ikusi dogu zelan Jaungoikoak egindako guztia **oso ondo** egoan. Zelan daukaguz, ba, orduan, ainbeste atsekabe mundu onetan? zer dala-ta ainbeste naigabe, neke, miñ...? Zergaitik egiten dira ainbeste pekatu? Zergaitik guztiok il bear?

Jaungoikoak Berak erantzungo dausku orain be.

Jaungoikoak gizona zoriontsu egin eban.

13. Adan ta Eba, gure lengo gurasoak, zoriontsu izan ziran lenengotan. Jaungoikoak maite zitun eta eurak be Jaungoikoa maite eben. Il bearrik ezeuken; lur ontako egotaldia amaitu ondoren, betiko joango ziran Jaungoikoagaz betiko zoriontsu izatera.

Ara zelan erakusten dauskun ori Idazteunak:

"Jaungoikoak baratz bat landatu eban. Eta antxe ipiñi eban gizona. Guztietariko zugatz ederrak, begi betegarriak eta ago gozagarriak erne eragin zitun Jaungoikoak; baratzaren erdian on eta txarren jakintzako zugatza. Erreka batek buztiten eban baratza."

Onela, ez urik, ez landaririk, ez bedarrik, ez jatekorik ez egoan alde aretako basamortu sargorietan bizi izaten oituta egozan israel-darrak, ondo aitzen eben zelan asieran Jaungoikoak gure lenengo gurasoak zoriontsu egin ebazan.

Gure lenengo gurasoak Jaungoikoaren agindupean

14. Gure lenengo gurasoak zorionez beterik bizi ziran. Eta esker onekoak izan eitezela gura eban Jaungoikoak, Beraren esanak egíñez. Begira zelan agertzen dauskun ori Idazteunak:

“Eta Jaungoikoak auxe agindu eutsan gizonari: Baratzeko edozein arboletatik jan. Baña on eta txarraren jakintzako arbolatik ez jan, bestelan il egingo zara jan ordukoxe-ta.”

On eta txarraren jakintzako zugatz orren bitartez, gizonak bete bear dauan Jaungoikoaren Legea adierazoten dausku Bibliak.

Gizonak lenengo pekatua egiten dau

15. Jaungoikoak gizona maite eban. Au be Aren esanean ebillan. Ederto. Baña Gogo gaiztoa, demoniñoa be bazan ordurako. Jaungoiko eta aingeru onakandik aldentuta ebillan, bere arrokeriagaitik Jaungoikoak zigortu egin eban-eta. Jaungoikoa gorroto eban eta Aren asmuak zelan edo nondik lorrinduko ebillan beti. Orrexegaitik tentatzen ditu gizonak.

Gogo txarreko deabru tentatzalle ori suge baten irudiz agertuten dausku Idazteunak. Irudi ederra ta egokia. Izan be, pizti ori kalte-gillea zan; gorrotogarria be bai israeldarrentzako, Oriente aldeko sasi-jainko zaleak gurtu egiten ebelako. Egizko Jaungoiko bakarra gurtuten eban israeldarrak oker-bidera eroateko, arrisku aundi bat ziran sorginkeri orreik.

“Baña sugeak, Jaungoikoak egindako landa-piztirik maltzurrenak, andreari esan eutsan: “Zelan esan dausue Jaungoikoak baratzeko arboletatik ez jateko?” Eta andreak sugeari erantzun eutsan: “Baratzeko zugatzetako frutua jaten dogo. Baña baratz erdiko zugatzaren frutuak ez, Jaungoikoak “ez jan ortik, ezta ikutu be, il ez zaitez”, esan deusku-ta. Eta sugeak andreari esan eutsan: “Bai, zera; ez zarie ilgo, ez! Badaki Jaungoikoak zugatz orretatik jan ezkeru zuen begiak idegiko dirana eta Jaungoikoa lakoak izango zariena, on eta txarraren jakitun”.



Pekatu egíñez, Jainkoagandik alde egiten dabe gizonak eta asarratu ta banandu egiten dira

Orduan, a zugatz a jateko ona ta gozoa ta atsegingarria zala ikusi eban andreak, jakituria beraganatzeko artu-garria. Eta aren frutua artu ta jan egin eban eta bere senarrari be emon eutson eta onek be jan egin eban”.

Ona emen gizonaren lenengo pekatua, Gizadia ondatuko dauan pekatua. Ikusi dozu zelan erakutsi dauskun Idazteunak. Lenengo, alkar-izketa bat; itxura baten zer ikusi aundibakoa. Gero, Adan ta Eba lilluratuta, Jaungoikoa, lakoak izateko amesez beterik; Jaungoikoaren menpetik urten eta azkatasunez beterik euren buruen jaun ta jabe izateko era zoragarri bat ikusten dabe (ikusi zelan dakien zirikatzen deabruak). Azkenean, zoritxarrez, Jaungoikoaren agindua ausi, goi-artu gurean Jaungoikoaren aurka jaiki eta pekatu egiten dabe. Olantxe izan zan gizonaren lenengo pekatua.

Gizonaren zoritxarra pekatutik dator

16. Lenengo pekatua egin ondoren, zorientsu izateko Jaungoikoagandik artutako doi asko galdu ebezan gure lenengo gurasoak. Len Jaungoikoaren lagun izan ziran; zorientsu bizi izan ziran. Gero, zoritxarrez beterik eta bildurretan dagoz.

Idazteuna leidu dagigun:

“Eta bertan zabaldu ziran bien begiak. Eta billoizik egozala konturatu ziran. Eta iko-orriak josirik, soñekoak egin ebezan. Orduan, baratzeko preskuran paseatzen ebillan Jaungoikoaren pausu-otsa entzun eben. Eta gizona ta emaztea baratzeko zugatzartean Jaungoikoaren begitandik ostendu ziran. Baña Jaungoikoak gizonari dei egin eta esan eutsan: “Non zagoz?” Eta gizonak erantzun eutson: “Zure pausu-otsa entzun dot bai eta, billoizik nengoan-da, bildurtuta, eskutau egin naz.”

Eta gizonaren eta andrearen atxaki ta igesbideak onela ebatsiten ditu Jaungoikoak:

“Jaungoikoak andreari esan eutsan: “Ama izateak dakartsuzan nekeak ugaritu egingo deusudaz eta gizonaren menpean bizi izango zara.” Eta gizonari esan eutsan: “Zure bekokiko izerdiz jango dozu ogia, lurretik sortua zaranez, lurrera barriz biurtu arteño.” Eta Jaungoikoak Gizona baratzetik jaurti egin eban.”

Esan-gura ta gora-bera aundiko Idazteuneko txatalak! Zenbat egi gogoragarri irudi ederrez jantzita!

Jaungoikoaren lagun izanez, zoriontsu izateko egiña izan dan gizonak bere burua eta bere ondorengoena ondatu ditu, atsekabe, eriotza ta pekatua leporatuaz.

Gizonaren lenengo pekatua! Ona emen, gure atsekabearen sustraia.

Baña Jainkoa errukiorra da. Eta bere azkenbako maitasuna guri agertuz, zorion-bideratu egin gaitu, barriro be. Eta begira zelan: Gure sufrimentu berberok salbaziño-bide biurtuz.

Jainkoaren semea gizon egin zan eta Gurutzean il zan, oñazez josita. Eta berbiztu ondoren, Jainko-semeen bizia emon euskun. Eta, orain, Kristogaz alkartuta, salbaziño-bide doguz gure sufrimentuak. Eta, gañera, beste batzuk be salbau daikeguz gure sufrimentuen bi-tartez.

ITAUNKETA

12. Zergaitik daukaguz ainbeste atsekabe munduan?
13. Zelan azaltzen deusku Idazteunak gure lenengo gurasoen zoriontasuna?
14. Zelan esaten dausku Biblia Santuak gure lenengo gurasoak Jaungoikoaren agindupean egozala?
15. Eta lenengo pekatua, zelan erakusten deusku?
16. Gizonaren ondamentia lenengo pekatu orregaitik dala zelan erakusten deusku Idazteunak?

IRUGARREN IKASKIZUNA

Abraan'en aurretik zer iazo zan?

17. Jatorrizko pekatua egin ondoren, ezta geroago be, Jaungoikoak ez ginduzan bertanbera itxi. Ez; barriro zorion-bideratuko gaitu. Eta orixe izango da gure salbaziño-egintza.

Lenengo ta beiñ, Salbatzalle bat agindu euskun. Gero, gure biderakusle izan gendun, gure bizitzan esku artuz, egite onak saritu eta txarrak zigortuz.

Jaungoikoak Salbatzalle bat agintzen dau

18. Gure lenengo gurasoak pekatu egin ebela ikusi ebanean, errukia emon eutsen Jaungoikoari. Eta, orduan, Jaungoikoak Itxaropen aundi bat emon eutsen, bizi-poz bat.

"Jaungoikoak sugeari esan eutsan: "Ori egin dozun ezkerro, abere ta landako pizti guztien artean madarikatua izango zara. Narraz ibilliko zara eta zure bizitzako egun guztietan autsa jango dozu. ZU TA ANDREAREN ARTEAN; ZURE TA AREN ONDORENGOEN ARTEAN ARERIO-ASARRREA SORTUKO DOT; ETA ONEK BURUA ZAPALDUKO DEUTSU, BERONERI ORPOAN AGINKA EGITEKO ZAIÑ ZAGOZALARIK."

Berba orreikaz Jaungoikoak esandakoa, gerorantza ulertu zan obeto. Gogo gaiztoagaz gizonak burruka gogorra egin ondoren, Jesukristo gure Jauna jaioko da egun baten Andra Mariagandik, eriotza ta pekatutik gu gizonok askatzeko.

Gizonak bertanbera iñoz be ez ditu itxiten Jaungoikoak

19. Pekatu eginda gero be, bertanbera itxi barik, arduraz zaindu ta maitatu ebazan Adan ta Eba Jaungoikoak. **Jaungoikoak narruzko soñekoak egin ebazan gizonarentzat eta aren emaztearentzat; eta jantzi egin eutsezan.**

Eta Jaungoikoaren esanean ibiltzen alegindu ziran aurrerantzean gure lenengo gurasoak. Seme-alaba asko izan zituen. Eta nekez eta itxaropenez landu eben lurra.

20. Urrango datozan Idazteuneko lenengo liburuko zatiak, gizonen pekatuak eta Jaungoikoaren erruki aundia dakarskuez gure begien aurrera. Abraan'en aurretiko gizonen gauza asko irakurriko dozuz zati orreitan. Gizaldi askotan aoz-ao erabillitako gertaerak dozuz, geroakarrenean idazle santuak idatzitakoak. Gauza orreik zeatz ta meatz jakitea gura badozu leidu Idazteuna. Emen laburpen bat bakarrik ikusiko dozu, Salbatzalle bat agindu ondoren, Adan ta Eba-ren ondorengoak be ez zitula Jaungoikoak bertanbera itxi ikusi daizun.

Kain eta Abel

21. Seme-alaba askoren guraso izan ziran Adan ta Eba. Seme bat Kain izan zan; lur-langillea. Beste bat Abel; artzaiña. Biak eskeintzen eutsezan opariak Jaungoikoari. Baña Kain'en eskeintzak ez ebazan guttiz ontzat artzen Jaungoikoak. Abelenak bai, au on-ona zan-da.

Eta berari baño begi obeakaz begiratuten eutsola Jaungoikoak Abel'eri-ta, Kain buru-makur ta inbidiz beterik ebillan. Eta gizonen gogorapen eskutuenak be ezaututen dauzan Jaungoikoak Kain'eri esan eutsan: "Zer dala-ta zabiz arpegi illun eta buru makur? Ara, olan pekatu aundi bat egiteko bidean zabiz."

Baña Kain etzan onbideratu. Eta, egun baten, Abel'eri esan eutsan: "Zatoz, goazan biok landara." Eta bakarrik aurkitu ziranean, eldu Abel'eri ta il egin eban.

Iñor iltea gorroto dau Jaungoikoak, aundienetariko pekatu bat da-ta. Augaitik esan eutson Kain'eri:

"Zer egin dozu? Zure anaiaren odolak lurretik dei egiten deust. Au egin dozulako zoritxarrekoa izango zara. Lurra landu arren, ez dautsu ezer emongo. Eta emendik urten eta ara ta ona, batera ta bestera igesika ibilliko zara beti."

Kain bildurtu egin zan baten batek bengantzaz ilko ebalakoan. Baña bengantzarik ez dau nai Jaunak. Eta larri ta estu egoan Kain trankilduteko, auxe esan eutsan: "Abel'egaz egin dozuna egitera iñor badatortsu, zigor bildurgarria artuko dau."

Bizi izan zan lurretik urtetzeko zigor-agindua, bete eban Kain ek; beste lurralde batera aldendu zan.

Uriola (dilubioa)

22. Gizonak ugaritu eta zabaldu ziran lurrean. Eta Jaungoikoari atzea emonda bizi ziran asko eta Jaungoikoa irainduten eben euren pekatuakaz. Eta etziranez damututen, Jaungoikoak zigortu egin ebazan.

Andik gizaldi askora be kastigu ori gogoan erabillen Abraan'en ondorengo israeldarrak; beti gogoratzen eben antxiña Abraan'en lurraldean, Mesopotamia'n, izandako uriola aundi bat.

Gizonen pekatuakaitik Jaungoiko zuzenak bialdutako zigorra izan zan uriola ori.

Baña ainbeste gaiztoren artean **gizon zintzo bat** be baegoan, Noe zan onen izena. **Au ez eban zigortu Jaungoikoak.**

Jaungoikoaren aginduz, Noe'k barku antzerako kutxa aundi bat egin ebala diñosku Idazteunak. Eta bere semeak eta animali asko sartu zitula bertara. Olantxe salbeu ziran Noe ta onen etxeokarteok, lurralde aretako gizon guztiak ondatu ebazan uriola aundietatik.

Ontzi edo kutxa aundi aretatik urten al izan ebanean, Noe'k arrizko altara bat egin eban eta, eskerrak emonez, Jaungoikoari opariak eskeiñi eutsozan.

Alako beste uriolarik ez zala iñoiz be barriro izango esan eutsan, gero, Jaungoikoak Noe'ri. Eta zeruan ortzadarra (ustrukua) ikusten ebanean, euren aurretiko Noe'ri Jaungoikoak agindutakoa gomutuzten eben israeldarrak.

Noe'k iru seme izan zitun: Sen, Kan eta Jafet. Eta berari agertu eutson lotsa ta errespetoagaitik, aparteko bedeinkaziño bat emon eutson Sen'eri. Eta besteak ez lako aparteko bedeinkaziñoa artu eban Sen'en ondorengoetatik sortuko dira Abraan eta agindutako Salbatzallea jaioko zan Jaungoikoaren Erria.

Babel'go torrea

23. Antxiña Mesopotamia izan zana, orain Irak dogu. Antxe ikusi daikeguz gaur be guzurrezko jainkoak goratzeko antxiñatean egindako torre aundi batzuen ondarrak. Egizko Jaungoikoaren bo-

rondatea egiterik gura ez eben gizon batzuen aundikeri ezaugarri batzuk dozuz. Olangoxe torre baten istori bat aitutzen deusku orain Biblia Santuak:

"Gizon arroak alkartu ta alkarri esan eutsen: "Erri bat egin daigun zerurañoko torre bategaz, indartsuak eta entzute aundikoak izan gaitzezan." Baña Jaungoikoak arrokeriz beteko aren asmoak ikusirik, areik zigortzea erabagi eban: "Jatsi gaitzezan eta izkuntza nastau daigun, bata bestearen berbetea ulertu ez dagien."

Dana bertanbera itxi ta guztiak banandu ziran. Zer egingo eben, ba?

Olantxe zigortu eban Jaunak aien arrokeria.

Mesopotamia'ko lur onetatik atara eban Jaunak geroago Abraan, onen ondorengoekaz erri aundi bat egiteko. Israel izan zan erri ori, agindutako Salbatzallearen erria.

ITAUNKETA

17. Gizonen pekatua ikusita, zer egin eban Jaungoikoak?
18. Pekatu egin ondoren, zer agindu eutsen Jaungoikoak gizonai?
19. Zelan azalduten deusku Idazteunak lenengo pekatua eginda gero Jaungoikoak ez ebazala bertan bere laga gure lenengo gurasoak, arduraz zaindu ta maitatu baño?
20. Non agertzen da Adan'en ondorengoak be ez ebazala bertanbera itxi?
21. Kain'ek Abel iltea, zergaitik txartzat artu eban Jaungoikoak? Zergaitik esan eutsan Kain'eri, berau ilten etorrena zigortua izango zala?
22. Jaungoikoak zelan zigortu ta saritu ebazan gizonak Noe'ren denporan? Zein seme bedeinkatu eban aparte Noe'k? Bedeinkaziño orretan nortzuk artu eben parte gero?
23. Babel'go gizon arroak kastigau egin ebazan Jaungoikoak; zelan erakusten dausku ori Idazteunak? Jaungoikoak zertarako atara eban Abraan Mesopotamia'tik?

ISRAEL'GO ERLEJIÑOAREN ASIERAK

BIGARREN ALDIA

ERRI-GURASOAK

(Abraan'etik asi ta Moises'erarte; Kristo'ren aurretiko 1800' garren urtetik 1300' garrenerarte, gitxi gora bera)

SARRERA

24. Gizonak sarritan aitzu dira Jaungoikoaz. Jaungoikoa, ostera, sekula be ezta gugaz aitzuten. Eta aurrera diardu be-ti salbaziño-egintzan.

Gu salbatzeko Jaungoikoak zer egin dauan badakizu zuk. Jakiña; zuk Jesukristo'ren bizi-tza be badakizu-ta. Baña gu salbetako Jaungoikoak egindako gauzak banan-banan esango ete-zeunkez? Ezetz uste dot. Augaitik, ba, goazan geldiro-geldiro gauza guzti orreik ikustera, aundi-aundienak beintzat.

Erri-gurasoen bizitza kontauaz asiko gara; Jaungoikoaren Erriko lenengo gurasoen bizitza azalduaz.

25. Orain gizaldi asko, Abraan izeneko gizon bateri Jauna agertu yakon. Auxe izan zan lenengo erri-gurasoa. Jaungoikoak berari esandako guztia siñestu ta fede aundiz bizi izan zan. Gañera, berak siñestuten ebana, bere erlejiñoa, erakutsi ta bizi eragin eutsen bere ondorengoai be; bere seme Isaak'eri Jakob'eri ta gañetiko ondorengoai.

26. Euren aurretikoai jatzotakoa egundo be ez eben aitzu israeldarrak. Gurasoak seme-alabai irakasten eutsen. Eta, olantxe, buruz ikasiz, ezpan-belarri batak besteari artu ta emonez, gogoan euken beti erri-gurasoen istoria. Izan be, auxe

istori au zan, Jesukristo gure Jauna etorri arte, Jaungoikoaren Erri izan ziran israeldarren erlejiñoaren asiera ta oñarria.

Erri-gurasoen bizitzen gomuta orreik idatzita daukaguz

orain Idazteuneko Asiera liburuan. Gutzako eskribiduerazo ditu Jaunak, gure aurretik egizko fedea euken gizon arein bizitza geuk be ezautu daigun.

ITAUNKETA

24. Nortzuk izan ziran Jaungoikoaren Erriko lenengo gizonak?
25. Nori erakutsi ta bizi eragin eutsen Abraan'ek bere erlejiñoa?
26. Idazteuneko zein liburutan agertuten da erri-gurasoen bizitza?



Abraan siñestedunen aita da

Jaungoikoak Abraan artuten dau siñestedunen aita izateko

27. Gure lenengo gurasoak pekatu egin ondoren, Jaungoikoak Salbatzalle bat agindu eban. Eta Abraan izeneko gizon bat artu eban agindutako ori betetan asteko. Zeregin aundi ta astuna izan zan benetan Abraan'ena. Bafia ardura aundi ori beregan artuta, zintzo ta fede biziz jokatu eban alde ta aldi guztietan. Augaitik, Abraan besterik ez lako gizona dogu. Bere bizitza miragarria da.

Abraan'ek alde egiten dau bere jaioterritik

28. Orain dala urte asko, ia lau milla, gaur Irak dozun Kaldea'ko Ur izeneko erri baten bizi izan zan Abraan. Lurralde aretan guzurrezko jainkoak gurtuten ebezan. Baita Abraan'en etxekoartekoak be.

Egun baten, Jaran aldera igon zan Abraan; Mesopotamia'ren iparraldeko lurraldera. Eta Jaungoikoa agertu yakon antxe. Eta auxe esan eutsan:

"Urten egizu zure lurraldetik, zure aberritik eta zure aitaren etxetik eta zoaz neuk erakutsiko deutsudan lurraldera. Erri aundi baten buru egingo zaitut."

Eta aberatza izan eta an ondo bizi izan arren, Jaungoikoagan siñestu eta urten eban; aita ta aberri ta danak bertan bera itxirik, bide egiten asi zan. Nora joian ezekiala bajoian; Jaungoikoagan bakarrik uste osoa ipiñita, itsu-mutil baten eskutik itsu bat lez, aurrera doa gure Abraan, Jaungoikoaren esana fede biziz zintzo-zintzo egitera. Gizon aundi ta goragarria benetan!

29. Abraan'ek bere aberritik ez eban bakarrik urten. Bere emazte Sara, Lot bere lobeia eta bere morroiak eta abereak eroan zitun lagun. Eta Siria'tik zear Kanaan eritxon lurralde eder ta aberatz batera eldu zan. Eta ango erri batera, Siken'era sartu zanean Jauna agertu yakon eta esan eutsan: **Lurralde au zure ondorengoai emongo deutset.** Barri au begi argiz entzun eban Abraan'ek. Eta arrizko altara bat egin eban berealaxe, mesede orregaitik Jaunari eskerrak emoteko eta altara orren bitartez bere seme-alabak Jaunak agindutakoa gogoratu egien.

30. Baña Abraan ez zan Siken'en gelditu. Ezta Kanaan'en be. Jaungoikoaren bidelari izan zan Agindutako Lurraldean. Eta gana-uentzako jateko billa ara jo ta ona jo ibillita gero, Negeb edo Ego-aldeko Basamortu eritxon leku batera joan zan. Baña andik be laster urten eban, jatekoa urritu egin zan-da; **bazterralde aretan sortu zan gosetea** ikusirik Ejito'ra alde egin eban. Eta an egotaldi bat eginda gero, lengo bideak atzerantza artu ebazan. Eta gerorantza Palestina izango zan Jaunak Agindutako Lurraldera biurtu zan barriro azke-nean. Eta ementxe geratu zan illarte.

Bidezko bat izatea izan zan, ba. Abraan'en bizitza. Eta orrexe-gaitik esaten dautsegu **Jainkoaren bide larria.**

Abraan'en maitasuna

31. Maitasun eta arte aundiko gizona izan zan Abraan. Bere lobeagaz izan ebazan eztabaidetan ikusten dogu ori. "Lot'ek be ardi ta bei ta abar, ganadu asko eukazan. Eta osaba-loben ganadu guz-tientzat jatekorik ez egoan toki aretan. Eta Abraan'en eta Lot'en artzaifien artean asarreak sortzen ziran."

Ori zala-ta, pazientzi ta maitasun aundiz berba egin eutsan Abraan'ek Lot'eri. Toki a ez zala biak batera bizi izateko naiko-ta, banandu bearra egoala esan eutsan: "Artu egizuz zeuk nai dozuzan lurrak. Zu eskumalderantza bazoaz, ni ezkerreko aldera joango naz." Lot'ek, orduan, lurrik onenak artu ebazan beretzat. Jordan-ondoko sakonera joan zan. Eta guztiz biurrituta egoan Sodoma'ko errian bizi izan zan. Osabea Juda'ko mendi agor eta lakarretara ta Ego-aldeko Basamortura joan zan. Eta Ebron ondoan bizi izan zan.

32. Andik denporakarrenean, erbesto lau erregetxok Sodoma ta Gomorra inguratu ta gero menperatu egin ebazan. Eta beste asko-gaz nastean, Lot be eurakaz eroan eben lotuta; baita aren famili ta ondasun guztiak be eroan ebazan.

Ori Abraan'ek jakin ebanean, Lot'eri laguntzea pentzau eban. Eztabaidak izan ondoren bananduta egon arren, Abraan'ek ez eukan biotzean gorrotorik. Eta erregetxo arein atzetik urten eban. Eta beingo baten arrapau ta azpiratu ebazan. Eta Lot bere lobeagaz eta aberas-tasun aundiakaz pozik etorrela, Salen'go errege ta Goi-goiko Jauna-ren abade zan Melkisedek'ek urten eutson bidera. Eta Abraan'eri zorionak eta Jaungoikoari eskerrak emon eutsazan.

Jaungoikoaren eta Abraan'en arteko adiskide-alkartasuna

33. Abraan biotz eta esku zabaleko gizona izan zan. Eta esker onari begira ez zan egoten. Jaungoikoagan bakarrik ipinten eban uste osoa. Egun baten, ostera, ezbaian egoan. Eta auxe esan eutsan Jaunari:

"Nire Jaun ta Jaungoiko, zer emongo deustazu? Seme barik iltea? Nire morroia izango da nire oñordeko?" Eta Jaungoikoak erantzun eutsan: "Ez; ezta morroia izango zure oñordeko, zugandik jaioko dan bat baño." Eta, gau baten, bere txabolatik kanpora atara eban Abraan Jaungoikoak eta esan eutsan: "Begira zerura, ia zenbat izar dagozan kontau al badozuz." Olantxe izango dira zure ondorengoak be, ezin kontau-ala eukiko dozuz".

Jaunak agindutakoa oso-osoan sifestu eban Abraan'ek. Eta al-kartasun bat egin eban orduan Jaungoikoak Abraan'egaz.

Billebateko eleizkizuna egiten ebanean gomutetan eben israel-darrak Jaungoikoak euren guraso izan zan Abraan'egaz egindako adizkide-alkartasun ori.

Sara'gandik seme bat izango dau Abraan'ek

34. Abraan'en emaztea Sara izan zan. Eta ezeukan familirik onek. Eta Ejito'tik ekarrirako Agar izeneko krieda bat artu eban Abraan'ek bigarren andratzat, aldi aretako oiturai egokionez. Eta Agar'ek seme bat izan eban: Ismael. Baña seme ori etzan Abraan'en oñordeko izango, erederua Sara'gandik jaioko zala esan eutsan Jaunak-eta:

"Zure emazte Sara'k seme bat izango dautsu, eta one-gaz eta onen ondorengoakaz nire betiko alkartasuna egin-go dot."

35. Eta egun baten iru gizon ospetsu ta ezezaunak etorri zira-la Abraan'egana diñausku Idazteunak. Eta onegaz bazkaldu ondoren auxe esan eutsela Abraan'eri: "Gu ona barriro etorri orduko seme

bat izango dozu zure emazte Sara'gandik." Sara'k be entzun eban aũ; irribarreka entzun be, Abraan eta bera agure-atsotuta egozanez, seme bat izatea gauza eziña zala uste eban-da. Baña laster entzun eban erantzuna: **Jaungoikoarentzat eziñik eztago.**

36. Eta eziña egiña. Jaungoikoak esana jazo zan; ezezaun arek iragarritakoa egi biurtu zan. Abraan'ek eta Sara'k seme bat izan eben. Eta Isaak izena ezarri eutsen. Abraan' ek guztiz maite eban. Izan be, axe izango zan bere oñordeko jatorra, bera ildakoan axek artuko ebazan bere ondasun ta eskubide guztiak etxe-jauna izateko; seme orren bitartez betetuko ziran Jaungoikoaren agintza guztiak.

Jaungoikoa Abraan'en zintzotasuna neurtuten

37. Jaungoikoak Abraan'eri gauza gogorak eta gatxak eskatu eutsazan: Bere etxe ta aberritik alde egitea; lurralde ezezaun batera joatea...; zartzaroan seme bat izango ebala siñestutea be bai.

Eta Abraan'ek dana siñestu eban. Eta Jaunaren esanak sintzo-zintzo egin zitun. Baña oindifio beste gauza mingarriago bat egin-bearra be ikusi eban:

"Ainbeste maite dozun zure seme bakar ori artu ta zoaz Moria-aldera eta antxe, neuk esango deutsudan mendi baten, erre-oparizat eskeifidazu."

Abraan bizi izan zan lurralde aretako kanaandarrak be egiten ebezan giza-opariak. Baña, alan da guzti be, bere seme bakarra il bear ebala ikusirik, ikeratuko zan Abraan. Dana dala, dar-dar eta biotz-jausita egon arren, txitik egin barik eta adore aundiz, Jaunaren borondatea zala uste ebana egitera joan zan, bere seme kutuna il eta sutan erre egifnez oparizat eskeintzera.

Bidean joiazala, Isaak'ek esan eutsan: "Aita, sua ta egurra emen doguz, baña **oparizat erretzeko bildotza non da?**" Abraan'ek, bere biotz miña agertu barik, auxe erantzun eutsan: **Jaungoikoak ekarriko dausku.**

Mendi tontorrera eldu ziranean, arrizko altara bat egin eban Abraan'ek. Gero egurra ezarri eta Isaak lotuta egur gañean ipifii eban. Eta erre-oparia egiteko semea iltera joian. Baña iñor ilterik eztau nai Jaungoikoak; giza-oparirik eztau gura, bere esanekoak izanez gure biotzak Berari emotea baño. Onexegatik, bere semea il orduko, urrifetik deitu eutson Jainkoak Abraan'eri:

"Abraan! Geldi! Ez egin ezer mutillari, ikusi dot zure borondatea-ta. Ointxe erakutsi dozu Jaungoikoaren bildur

zarana, zure seme bakarra be ez daustazu ukatu-ta. Eta augatik onespenez beteko zaitut eta zure ondorengoak, zeruko izarrak eta itxas ertzeko area lez, ugari izango dira. Eta zure jatorrikoakaitik, lurreko erri guztiak bedekinkatuak izango dira."

Orain guztiok dakigu Abraan'eri pasautako ori, bere fede ta itxaropenaren sendotasuna neurtuteko aproba bat izan zana. Abraan' ek ezekian ori. Eta Jaunaren agindua zala uste ebana egitea asko kosta yakon. Baña egin eban. Zelango fede ta itxaropena Abraan' ena! Aundia gero! Gitxi izan dira aren antzekoak, aren modura Jaungoikoagan fede biziz itxaron dabenak.

38. Jaungoikoak Abraan'eri egindako agintzarik aundiena Jesukristo da. Jesukristo Jaungoikoaren Semea da; baña Abraan'en semea be bai. Gizona zanez, odolez, ebertaina izan zan Jesukristo. Eta gero Palestina izango zan Kanaan'en bizi izan ziran ebertainen sortzaille, asiera, erriguraso Abraan dogu. Augaitik, Kristo'gan siñesten dogun guztiok Abraan'en jatorrikoak gara gogoz; Abraan'en seme gara kristifiau izaeran.

Abraan'en eriotza

39. Urteak joan, urteak etorri, egun baten, Sara il egin zan. Abraan'ek negar asko egin eutsan bere emazte izan zanari. Eta Kanaan'en erosita eukan landa bateko Makpela eritxon atx-zulo bateko illobian sartu eban. Jaungoikoak Abraan'eri agindutako lurraren lenengo zatia landa orixe izan zan, au da, jabe izanez berea izan zan lenengo lur zatia.

Sara il zanean, Abraan be zarra zan. Eta bera be laster ilgo zala ikusirik, Isaak'entzako andra on baten billa ebillan; aldi aretako oiturai egokionez. Eta Eliezer, etxeko morroi nausia, bialdu eban Jaran'era, bere semearentzako emaztegei billa. Eta andik lasterrean eskondu zan Isaak Errebeka'gaz.

Olantxe gauzak atondu ondoren, Abraan be il zan. Eta bizi zala berak eskatu eban lez, Sara bere emazte izan zanaren ondoan sartu eben aren gorpua be. Abraan'en seme Isaak eta onen seme Jakob izan ziranen gorpuak be, antxe bertan sartu zituen andik urteetara. Eta Belen'dik 20 kilometrora dagozan iru erri-guraso orrein illobiak ikustera, gaur be asko joaten dira. Eta ez kristifiauak bakarrik; bai judarrak eta maomarrak be. **Abraan siñestedunen aita da.**

40. **Abraan'eri ta aren ondorengoai esan eutsenez, Jaungoikoak bere erriari errukia agertu eutsola** gogoratu eban Andra Mariak bere lengusiña Isabel'eri ikustaldi bat egitera joan zanean. Andra Maria'k baekian, izan be, Jaungoikoak Abraan'eri egindako agintzarik aundiena, Mesias, beragandik laster jaioko zana.

Jesus'ek be auxe esan eutsen judarrai: **Zuen aita Abraan nire eguna ikusi naiez pozez beterik jarri zan. Ikusi eban eta guztiz poztu zan.** Agindutako Salbatzallea Bera zala esan eutsen berba orreikaz.

Ona emen, S. Paulo'ren eretxia be: Jaungoikoagan uste osoz siñestu eta Bera gauza guztien gañetik maite izateko, Abraan dogu gure jarraibide.

Meza Santuan be, konzagraziño ondoren auxe esaten dau abadeak: "Abraan gure aitaren oparia artu zendunez, ontzat artu egizu oraiñ eskeintzen deusugun opari au be".

ITAUNKETA

27. Salbaziño-egintza, nogaz asi eban Jaungoikoak?
28. Jaungoikoak Abraan'eri, zer eskatu eutsan lenengo-lenengo?
29. Zelakoa zan Abraan'ek aurkitu eban lurra?
30. Jaungoikoaren bidelari, zer dala-ta esaten deusagu Abraan'eri?
31. Artzaiñen asarreak sortu ziranean, zer egin eban Abraan'ek?
32. Arrapeuta preso Lot eroan ebenean, zer egin eban Abraan'ek?
33. Abraan'egaz adizkide alkartasuna, noz egin eban Jaungoikoak?
34. Ismael, zergaitik ezan izan Abraan'en oñordekoa?
35. Isaak'en jaiotza, zelan iragarri eban Jaunak?
36. Abraan'ek, zergaitik maite eban Isaak ainbesterañio?
37. Abraan'en fedea neurtuteko aprobarik aundiena zein izan zan? Bere semea il-ete eban Abraan'ek?
38. Abraan'eri egindako agintzarik aundiena, zeñ izan zan?
39. II-urretxoan, zer egin eban Abraan'ek? Non illobiratu eben?
40. Andra Maria'k, Jesukristo'k eta S. Pablo'k zer esan dabe Abraan'eri buruz? Non gogoratzen dogu Abraan egun guztietan?

Abraan'en ondorengoai be'areri egindako agintzat egiten deutsez barrero Jaungoikoak

41. Gizonak Abraan'en ondorengoan bitartez salbatzea gura eban Jaungoikoak. Eta ondo zaintzen ebazan orrexegaitik oneik. Eta Abraan'eri egindako agintzak gogoratuazoten eutsezan.

Eta Abraan'en ondorengo orreik, noizik-peñ, uts batzuk egin arren, Jaungoikoaren esanean beti ibilli ez arren, Jaungoikoaren salbaziño-egintza aurrera joian arein bitartez.

Beste erri-gurasoen bizitza ikusi daigun, ba.

Jakob onetsi eta bere oñordeko egiten dau Isaak'ek

42. Isaak'ek eta Errebeka'k bikotxak izan ebezan. Lenen jaiori Esau ezarri eutsen izena eta bigarrenari Jakob. Jakob etxezalea zan; Esau, ostera, basorik-baso ibiltzen zalea.

Bein baten, seme zarrenari egokion eskubidea saldu egin eutsan Esau'k here anaiari.

Oñordeko edo jabegei izatea, aitaren edo familiko buru zanaren ondasun eta aginpidea eta Jaunaren agintzak bereganduteko eskubidea eukitea izaten zan.

Baña Idazteuna irakurri daigun. Anaien arteko saldu-eroste ori egin ondoren, Isaak'ek Jakob bedeinkatu ta bere oñordeko zelan egin eban ikusi daigun.

43. Zartzarora eldu zanean, ezer be ez eban ikusten Isaak'ek. Beiñola, Esau'ri deitu ta esan eutsan:

Zar egin nazala ikusten dozu, ene seme. Eta nire eriotz-eguna noz izango dan eztakit. Zoaz, ba, kasan, basora. Zerbait ekarridazu. Eta gustetan yananez atondu egidazu, jan dagidan eta, gero, bedeinkatu zagidazan il baño len."

Baña Errebeka dana entzuten egoan. Eta berealaxe esan eutson Jakob bere seme kutunari. Eta Esau'k etxetik urtenaz batera, Errebeka zur eta bizkor ibilli zan Jakob'eri lagunduten, Esau zalakoan Jakob'eri bedeinkaziñoa emon egion Isaak'ek. Eta olantxe jazo zan. Ama-semeok irusaku egiten eutsela konturatu barik, Isaak'ek Jakob bedeinkatu eban:

"Nire semearen usaiña Jaungoikoak bedeinkatutako landa baten usaiña lakoa da. Lurreko frutuak ugari emon daizuzala Jaungoikoak. Eta anaiak zure menpean eukiaz, euren nagosi izan zaitetz; erriak zure serbitzalle izan bekizuz."

Bedeinkaziño ederra! Ori egin ondoren, Esau izan bearrean Jakob egin zan aitaren oñordeko. Izan be, Esau'ren ordezk Jakob bedeinkatu eban ezkerro, ezin Isaak'ek atzerarik egin.


Baña... Bai, badakit zer esatera zoazan: Jakob'en guzurra ezta? Entzun, ba: Guzurra iñoz be ez dau ontzat artuten Jainkoak. Baña gizon pekatarien bitartez be egiten dau salbaziño-egintza. Eta bere agintzen oñordeko egin eban Jakob. Eta Jaungoikoa lagun, zintzoago be ibilli zan Jakob arrezkerro.

Len egindako agintzak barriz Jakob'eri

44. Esau basotik etorri zanean, ikusi eban bienbitartean zer pasau zan. Eta asarratu egin zan. Eta Jakob iltea erabagi eban. Orduan, al bait ariñen etxetik alde egiteko esan eutsan Isaak'ek Jakob'eri; Mesopotamia aldera joateko, eskonduteko be euren senitarteko andra bat antxe aurkitu leikeala-ta. Antxe bizi izan ziran, izan be, euren etxeokarteko batzuk eta ogibidea aurkitzea be an gauza erreza zan.

45. Urten zan, ba, Jakob ardua aundiz, bere etorkizuna go-goan ebalatzen. Eta oindiñokarren Kanaan'go lurra zan Betel'era eldu zan. Eta lur gañean etzun eta lotaldi bat egin eban antxe. Amesetan be egin eban. Zeru ta lurra alkartuten zitun eskillara bat ikusi eban. Aingeruak gora ta bera ebizan bertatik. Eta, alako baten, berba oneik entzun ebazan:

"Abraan eta Isaak'en Jaungoikoa naz Ni. Lo zagozan lurralde ori zeuri ta zeure ondorengoai emongo deutset. Zure ondorengoak asko ta asko izango dira. Eta Nik agintutakoa emon arte ez zaitut itxiko."



Onelan, len Abraan'eri eta Isaak'eri egindako agintzak barrirō egin eutsozan Jaungoikoak Jakob'eri.

46. Asko ibillita gero, Jakob Jaran'era eldu zan. Eta Laban bere osabeagaz bizi izan zan antxe ardi zaintzen. Eskondu be bertan egin zan. Jaungoikoak ondasun askogaz bedeinkatu eban. Amabi seme izan ebazan: Erruben, Simeon, Lebi, Juda, Dan, Netali, Gad, Aser, Isakar, Zabulon, Jose tan Benjamin.

Seme guztietatik kutunenak Jose ta Benjamin izan zitun. Gazteenak be baziran-ta... Gañera Errakel'engandik eukitako semeak ziran eta emazteen artean Errakel eban maiteen.

Jakob'eri izena aldatzen dautso Jaungoikoak

47. Urte asko garrenean, bere ondasun guztiak artuta Kanaan' era etorri zan, barriro, Jakob. Baña bere anaiaren bildur zan. Eta bidean etorrela, ikuskizun au agertu yakon: Nor, ez zer zan ezekian norbaitegaz burrukan ebillan bera, eta besteak geyago egiten eutsan. Ikuskizun ori eskutau zanean auxe entzun eban:

"Ez dozu gaugandik Jakob izena izango, Israel baño, bildur barik eta adore aundiz burrukan egin dozulako. Gizonai be irabaziko deutsezue."

Jainkoaz indartsua esan gura dauan Israel be ba eban izena, ba, arrezkero Jakob'ek. Eta, orrexegaitik, Jakob'en ondoreagoai **Israel'en Erri**, edo israeldarrak esaten dautsegue.

Alai eta gogotsu, berealaxe abiatu zan, ostera be, Jakob etxerantza. Eta bere anaia aurkitu ebanean, ezaban uste onek orren ondo artuko ebanik. Baña Esau'k ondo be ondo artu ebala ikusirik, asko poztu zan.

Israel'en semeak Ejito'n

48. Jakob edo Israel'en semeetariko bat Jose izan zan. Maite-maite eban Jakob'ek. Eta onexegaitik anaiak inbidiz beterik ebizan; Jose ezin eben ikusi. Eta a ilteko asmotan be ibilli ziran beñola. Baña Juda'k urten eban aren alde: "Zer irabazten dogu gure anaiaren eriotzaz? Obe da saldu ta ez loitu gure eskuak, anai dogu-ta." Augaitik, azkenean, Ejito aldeko merkatari batzuei saldu eutsen Jose. Eta Ejito'ko Faraoiaren ministro bateri saldu eutsen gero merkatarri orreik.

Ejito'ra eroan arren, Jaungoikoa maite izan eban an be Jose'k. Jaungoikoak be ondo zaindu eban Jose.

Egun baten, ministroaren andreak Jose pekatu-bidean ipintea nai eban. Baña pekatu egíñez Jaungoikoa irainduterik ez eban gura Jose'k. Eta nai izan ebana ezin egíñik, ez zan gauza zikin bat Jose' tzaz asmauta, egitzat zabaldu eban andra zatar arek bengantzaz. Eta Jose kartzelara sartu eben. Eta entzute aundikoa egin zan antxe, kartzela-lagun batzuen amesetak zer esan gura eben azalduten zitu-lako.

Egun baten, Faraoiak berak deitu eutsan: "Amesetan egin dot eta iñok be ez daust azaldu oindiño. Entzunda nago, ostera, ameseta bat entzun orduko azaltzen dozula zuk." Eta berealaxe esan eutsan Jose'ri amesetan zer egin eban. Eta laster azaldu eutsan onek. Zazpi urte jatekoz ugariak eta zazpi urriak etorriko zirala erantzun eutsan Jose'k. Eta onen jakituriaz ikeratuta geratu zan Faraioa. Jose Jaungoikoaren argiz beteta egoala ikusi eban, eta asko poztu zan amesetan egin ebanak zer esan nai eban jakiteaz. Orduan, Jose kartzelatik atara eta lurralde aretako errege-orde egin eban.

49. Jose'k gari asko eukan garaitegietan gosete-urteak etorri ziranean. Eta leku askotatik etorten ziran areri garia erosten. Jose'n anaiak be araxe joan ziran. Eta oneik a ez eben ezautu lenengotan. Baña Jose'k berak esan eutsen, gero, euren anaia zala:

"Ez niri bildurrik izan; zeuen onerako itxi dautsue Jaungoikoak nigaz egin dozuena egiten."

Gero aita zelan ebillen eurakandik jakin eta bizi izaten Ejito'ra etortzeko esan eutsen Jose'k. Eta laster etorri be egin ziran Jakob eta beronen familia. Eta bidean etozela, auxe esan eutsan Jaunak Jakob'eri: "Ejito'ra bildur barik joan zaitez, erri aundi baten buru egingo zaitut-eta."

Asko ugaritu ziran, izan be, Jakob'n ondorengoak. Nilo-errekearen ipar-sartalderantza egoan lurra emon eutsen Jose'k. Eta antxe bizi izan ziran ejitoarregandik eta kanaandarren sasi-jainkoetatik urrin.

Jose'ren bizitza zeatz eta meatz dakar Idazteunak **Asiera** liburuan. Gauza ikasgarri asko ikusi daikeguz istori orretan.

II aurretik, semeak bedeinkatzen ditu Israel'ek

50. Ejito'n urte askoan bizi izan ondoren, auxe esan eutsan Jose'ri Jakob'ek:

"Nireak egin dau. Laster ilgo naz. Baña Jaungoikoa zuekaz izango da eta zuen gurasoen lurraldera eroango zaitue Berak barriro."

Gero beste seme guztiak be bere ondora ekarri eta, banan-banan, guztiak bedeinkatu ebazan; eta biotz-biotzetiko azken-agur samur bat egin eutsen. Jose'n seme ziran Efrain eta Manases be semetzakotzat artu zitun. Jaungoikoak Agindutako Lurraldean euren lur zatia euki eben, gero, Jose'ren seme bi orrein senitartekoak be.

Juda bedeinkatzean, bestiai ez lako aparteko bedeinkaziño bat emon eutsen:

"Zure ondorengoak zure anaien ondorengoak menperatu egingo dabez, arik-eta erri guztiak bedeinkatuko daben A etorri arteño."

Jakob'en laugarren semea izan zan Juda. Baña aurreko irurak pekatu aundi batzuk egin ebezan. Oneik baño zuzenago ibilli zan Juda. Beronek galazo eban Jose iltea; beste baten be, bere burua eskeiñi eban Benjamin'en orde, au Jose'k estu erabili ebanean.

Pekatu-bidetik alde egiteagaitik saritu eban len Jose Jaunak; orain be, Juda'ren zuzentasun eta biotz zabaltasuna saritzen dau Jaunak. Juda'ren odolekoengandik jaioko da Dabi erregea. Eta Dabi'ren familikoa izan zan erri ta gizon guztien Salbatzalle izan zan Mesias, Jesukristo.

52. Jakob Ejito'n il zan. Eta illeta apain batzuk eginda, Kanaan'era eroan eben aren gorpua. Eta berak nai izan ebanek, Abraan eta Sara izan ziranen ondoren ipiñi eben.

Aita illobiratuta gero, Jose ta anaiak Ejito'ra joan ziran atzera. Eta seme-alaba asko izan ebezan antxe.

53. Jose'k be dei egin eutsen il aurretxoan bere anaiak. Eta esan eutsen:

"Ni iltera noa. Baña Jaungoikoak lagunduko dautsue. Eta emendik atara eta Abraan, Isaak eta Jakob'eri agindutako lurraldera eroango zaitue Berak. Nire azurrak be emetik atara egizuez."

ITAUNKETA

41. Salbaziño egintza, nogaz jarraitu eban Jaungoikoak Abraan ildakoan?
42. Aitarene erentzia artzeko bere eskubidea, nori saldu eutsan Esau'k? Aldi aretako ofiordetza, zer izaten zan?
43. Isaak'en bedeinkaziñoa berak artzeko, zer egin eban Jakob-ek?
44. Esau'ren asarrea ikusita, zer egiteko esan eutsan Isaak'ek Jakob'eri?

45. Jaungoikoaren agintzen ofiordeko izan zan Jakob. Baña zelan agertu eutsan Jaungoikoak ofiordeko izate ori?
46. Jakob zelan zaindu eban Jaungoikoak Jaran'en?
47. Bere anaiaren bildurrez Kanaan'erantza etorrelarik, zer pasau yakon Jakob'eri?
48. Jaungoikoak zelan saritu eban Jose Egito'n?
49. Bere aita ta anaiak zelan aurkitu ebazan Jose'k?
50. Il orduko Juda'ri aparteko bedeinkazifioa emon eutsanean, zer esan eutsan Jakob'ek?
51. Jakob'ek Juda'ri emondako bedeinkazifioak, zer esan nai eban?
52. Non illobiratu eben Jakob?
53. Il aurretik zer esan eutsen Jose'k bere anaiai?

SALBAZIÑO

EGINTZAN AURRERA

DIARDU JAUNAK

IRUGARREN ALDIA

JAUNGOIKOAREN ERRIA ETA AGINDUTAKO LURRALDEA

(Moises' engandik Errege-aldirarteño; K. a. 1300'garren urtetik 1100' garrenerarte)

SARRERA

54. Abraan'en jatorrikoak (ebertarrak) asko ugaritu ziran Ejito'n. Eta euren aurretiko erri-guraso izan ziran Abraan, Isaak eta Jakob'en erlejiñoak ziran. Baña batzutan kili-kolo ibilten ziran; euren fedea epeldu egiten zan eta Jaungoikoaren esanean etziran ibilten.

55. Baña Jaungoikoak zaindu ebazan eberrak, len erri-gurasoak zaindu ebazan lez. Eta Ejito'tik atara egin zitun, eurakaz erri bat egin eta Agindutako Lurraldera eroateko. Ementxe jagongo ditu gero, bere gogoko masti bat lez.

Salbaziño egintzan aurrera diardu Jaunak. Lurralde orretan eta Erri orretatik jaioko da gizonen Salbatzallea.

ITAUNKETA

54. Erri-gurasoen erlejiñoa zaindu ete-eben eberrak?
55. Salbaziño egintza jarraitzeko, zer egin eban Jaunak?

Jaunaren salbaziño-egintza Egito'ko israeldarrakaz

56. Jose'n denporatik asita Ejito'n bizi izan ziran israeldarrak trankil ibilli ziran lenengotan; ondo artu zituen ango Faraoiak. Baña aurrean eta azpian erabilliak be izan ziran gerorantza. Eta ejitoarren menpean estu ta larri egozan. Jaungoikoak askatu ta salbauko ditu, orduan, eurakaz bere erria egiteko.

Ona izan zan Jaungoikoa israeldarrakaz. Eta ejitoarren menpetik bizirik eta onik urtetze ori beti euken gogoan israeldarrak. Euren erritarren neke ta estualdirik aundienetan Jaungoikoak egin-dakoa ez eben egundo be aitzu. Euren aurretikoai jazotako gauza pozgarri eta gogoragarri orreik agotik agora erabilli ziran eta, iru-dimen aundiz jantzi ta apainduaz, bizi-bizirik egozan beti israeldar-rren buru-biotzetan. **Urteera** deritxogun Idazteuneko bigarren liburuan idazti ziran gero. Liburu onetan aurkituten dira Moises'en ekintza ta legeak.

Abadeena, Zenbakiak eta **Itzaldiak** deritxoguzan beste iru li-burutan daukaguz, Moises'en Alkartasunari egokiozala emondako, beste lege batzuk.

Eta len azaldu gendun **Asiera** eta ointxe aitatu doguzan **Urteera, Abadeena, Zenbakiak** eta **Itzaldiak** dira Idazteuneko lenengo libu-ruak. Eta Pentateuko (Bost-Idazti) edo Moises'en Legea esaten yake.

Ejito'ko Faraoiak israeldarren aurka

57. Seti lenengoa-edo izango zan israeldarrak txarto erabilli ebazana. Zana zala, biotz gogorreko errege bat izan zan eta larri artu zitun israeldarrak. Lanik gogorrenetan onei bear eragiñez, go-riak ikusi-arazo eutsezan. Olantxe, astiro-astiro, israeldar guztiak garbituko zitula uste eban. Baña bere asmo gaiztoak etziran egi biur-

tu. Eta zer egin eban badakizu orduan? Israeldarren umeak Nilo errekarara jaurtiteko agindu.

Olan estu ta larri ejitoarren menpean egon bearrak, asko mindu ebazan israeldarrak. Jakiña; orrela, bizi eziñik bizi ezkeru, edonor minduko litzake. Baña artzain arteko famlikoak ziran, gañera, israeldarrak. Eta iñor izatekotan, libertade zaleak eurak ziran. Asko sufridu eben, orrexegaitik, ejitoarren azpian eta askatasuna eskatzen eutsen Jaungoikoari.

Bere erriaren buru izango dana salbetan dau Jaungoikoak

58. Israeldarren otoitzak biotz onez entzun ebazan Jaungoikoak. Eta bere erriaren buru ta zuzendari izango zana salbetan dau lenengo.

Lebi'ren tartekoen andra batek ume eder bat eukan. Errekara ez eban bota. Etxean estalduta euki eban ille batzutan. Baña bildur zan. Olan eskutauta umea luzaro eukitea gauza gatxa zan. Mimenezko otzaratxu baten ipiñi eban, orduan, eta erreka-ertzean itxi eban.

Andik lasterrean, Faraoiaren alabea joan zan ara bañua artzera. Eta umetxo a artu ta bere jauregira eroan eban. Eta a aziteko andra bat be aurkitu eban gero. Moises'en ama berbera izan zan andra ori.

Moises izenak "uretatik ataratakoa" esan gura dau.

Erregetxean oso jakitun egin zan Moises. Beste erri batzuen parean aurrerapide aundiak eginda egozan ejitoarren jakintza beregan-du egin eban.

Basamortura iges egiten dau Moises'ek

59. Ejitoarren erregetxean azi ta ezi egin arren, Moises israeldarra zan. Baekian berak be ori, andi egin zanean. Eta bere anaiak guztiz azpiratuta ikusirik, minduta ebillan Moises. Eta, beiñola, ebertar bat joten ikusi eban ejitoar bat. Eta, berealaxe, bere anaiaren alde urten eta ejitoarra il egin eban. Faraoiak au jakin ebanean, Moises il egin gura eban. Baña Moises'ek Madian-aldera iges egin eban, orduan. Eta antxe bizi izan zan Jetro izeneko abade baten ardiak zaintzen. Eta abade onen alaba bategaz ezkondu zan. Gerorantz Jaungoikoak eskatuko eutsazan gauzak egiteko bear izango eban gogo ta adorea, basamortu-lurralde onetan artu zitun Moises'ek.

Bere anaiak salbetara bialduten dau Moises Jaungoikoak

60. Abraan'en ondorengoentzat zer-ikusi aundia be aundia euki eban gauza bat ikustera goaz orain. Obeto esateko, alde ta aldi guz-

tietako gizonentzako inportantzi aundia daukan gauza bat azaltzera goaz. Ejitoarren menpetik israeldarrak askatzea, izan be, jazoera aundi bat dogu; Jesukristo'k pekatuaren menpetik gizon guztiak askatzearen iragarpen bat lez dogu.

61. Oreb edo Sinai mendiraño eldu zan, bein baten, Moises bere aitagiñarrebaren artaldeakaz. Eta, alako baten, sutan egon arren erretan ez zan sasi bat ikusi eban. Eta, zer ete-zan jakin gurarik, urreratu egin zan. Orduan Jaungoikoaren berbea entzun eban:

"Ez zaituz urreratu ona. Erantzi oñetakoak, zagozan toki au santua da-ta."

"Neu naz zure aitaren Jaungoikoa; Abraan'en Jaungoikoa, Isaak'en Jaungoikoa eta Jakob'en Jaungoikoa."

"Israeldarren deiak entzun dodaz eta ejitoarren menpean larri ta estu dabizela be ikusi dot."

"Augatik, zoaz, ba, orañ. Neuk bialtzen zaituz Faraoiagana, nire erria Ejito'tik atara dagizun."

"Neu egongo naz zugaz. Eta Ejito'tik urtendakoan, mendi onetara etorriko zaiataze gur egitera."

Jaungoikoaren izena

62. Jaungoikoari baietz erantzun eutsan Moises'ek. Baña andik urten baño len, auxe preguntau eutsan Jaunari: "Noren izenean natorrela esango deustat erriari?" Orduan Jaungoikoak Bere izena esan eutson:

"Nazana naz ni. Israel'en semeai auxe esango deustazue: Yabe'k ("DANA'k") bialdu nau zuekana. Auxe da nire izena bein betiko. Eta gizaldiz gizaldi olantxe dei egingo dauste."

Moises'i agertutako izen ori itzalgarria izan zan israeldarrentzako. Jaungoikoa eurakaz egoala gogoratuazoten eutsen Jaunaren izen orrek. Eta arrisku aldietan uste osoz egoten ziran.

Israeldarren askatasuna eskatzen dautso Moises'ek Faraoiari

63. Aaron bere anaia lagun artuta, Moises Faraoiagana joan zan, ba. Eta israeldarren askatasuna eskatu eutson Yabe'ren izenean. Baña arek ez eutsan jaramonik egin.

Faraoi ta ejitoarrak neke-min aundiz zigortu ebazan, orduan, Jaunak. Lurralde aretan lorriña ta zoritxarra ugari izan zirala diñosku Idazteunak: Urak odol biurtu zirala; inguru guztiak ugarairoz bete zirala, beste baten; eltxoz ondatu geroago; euli aundizko eta salta-matxinozko izurrite batzuk be egon zirala; ganau asko galdu zirala. Eta orrezaz gañera, ekaitz ikeragarriak, illunaldiak eta abar, eta eji-toarren seme zarren eriotza.

Jaunaren asmo ta indarraren aurka joateko, iñor be ez tala ezer agertzen dausku orrela Liburu Santuak. Faraoi ta bere azti guztiak baño askoz be aundiagoa da Jaungoikoa; Jaungoiko indartsua da-ta.

Lenengo Paskoa

64. Ejito'ko faraoi aundien lurraldeetan egon ziran azkenengo egunetan jazotako gauzak, sekula be ez zituen aitzu israeldarrak. Urtero gomutatzen ebezan, larrialdi aretatik atara zitulako Jaunari eskerrak emonez. Jai aundi bat egiten eben; Jaunaren Igarotze edo Pasko-jai eritxoena.

Idazteuna leidu daigun. Judarren antxiñako Pasko-jai ori zelan sortu zan ikusi daigun. Ejito'tik urtenda gizaldiak geroago ospatzen eben lez dakarsku Biblia Santuak. Begira:

"Jaungoikoak Moises'eri esan eutson: Gabaz pasauko naz Ejito'tik. Eta ejitoarren seme zarrenak eta euren ganauen ume zarrenak il egingo dira. Zuok, israeldarrok, au egingo dozue: Il onen amargarren egunean urteko bildots bat artuko dozue famili bakotxak. Eta amalaugarren egunerarte ondo zainduko dozue eta egun orretako illuntzean ilko dozue guztiok; eta zeuen etxeko ateburua aren odolaz basitu egizue. Aren aragia sutan erreta orantzabako ogi-il eta bedar gordiñakaz gau berean jango dozue. Eta olantxe jan: Soñekoak eta oñetakoak ondo jantzita eta makillea eskuan dozuela. Eta bizkor jango dozue, Yabe'ren Paskoa da-ta. Neu pasauko naz gau atan eta len-seme guztiak ilko dodaz. Bildotsaren odola izango da zuek zagozen etxeen ezaugarria. Odola ikusiko dot eta aurrera igaroko naz. Egun au gogoragarria izango dozue bein ta betiko; gizaldiz gizaldi ospatuko dozue, jai aundi egifez."

65. Orra or, ba, ebetarren Pasko-jai aundia. Guk kristiñauok egiten dogun Pasko-jaiaren irudi ta iragarpen bat izan zan. Izan be, ilda gero jan egiten eben ebetarren pasko-bildotsa Jesukristo'ren irudi da.

Jesukristo da kurutzean il dan eta Eukaristian jaten dogun eta bere odolagaz betiko eriotzatik salbetan gaitun egizko "Jainko-Bildotsa". Il eta berbiztuz, eriotzatik bizitzara pasauaz, pekatuaren menpetik ataraten gaitu Jesukristo'k eta bere Bizia emoten dausku.

Jesukristo'ren Eriotza ta Biztuera dogu gure egizko Paskoa. Urteera barria, Jaungoikoaren Igarotze nausia, gure jairik aundiena.

Bere arerioak ondatu egiten ditu Yabe'k

66. Seme nausienen eriotza ikusirik, bildurtu egin zan Faraioa. Eta Moises'eri deitu ta esan eutsan:

"Urten emendik zuk eta israeldar guztiok, zeuen ganaukaz. Eta eskatu daustazuenez, eskeiñiozuez opariak Yabe'ri. Zoaze arin, nai gabe geyago izan ez dagidazan."

Beingo baten urten eben israeldarrak, Agindutako Lurralde-rantza.

67. Kanaan'era joateko, biderik luzeena baña ziurrena artu eben. Eta Itxas-Gorriaren ertzean egozan zidoi ta zingiratatik pasau bear lenengo. Kañaberadun Itxasoa deitzen dautso Idazteunak ur-toki areri. Emetixe joan ziran israeldarrak Sinai mendirantza, bere anaiak ejitoarren menpetik atarata, mendi orretara etortzeko esan eutsan Moises'eri Jaungoikoak-eta.

68. Gau ta egun lagundu eutsen Jaungoikoak israeldarrai Agindutako Lurralderarteñoko bidaldian. Egunez laño baten gerizpeagaz eta gabaz su argitsu bategaz erakusten eutsela bidea diñosku Idazteunak. Oi ez lako Jaunaren laguntasuna be laster bear izango eben.

69. Israeldarrak urtenda lasterrean urten eban Faraioa'k be gudari taldeakaz aien atzean, aiek barriro menperatzeko ustez. Eta pizka bat lentxoago israeldarrak pasau ziran leku berbertatik igaro zira-nean, uretan ito zirala diñosku Idazteunak.

Eta israeldarrak zelan pasau ete-ziran? Gabaz egin eban aize indartsu ta bero baten bitartez legortutako bide batetik igaro ziran israeldarrak. Aize orren bidez salbau ebazan Jaungoikoak arerioen eskuetatik.

70. Faraioia eta beronen gudari-taldeak ondatzeko Jaungoikoak egin eban mirari aundi orregaitik sarritan emoten eutsoezan eskerak Jaungoikoari israeldarrak, ereserki au abestuaz:

"Kanta Jaunari,
zaldi ta zaldunak itxasoan itoaz
aundi ta goragarri azaldu da-ta.
Yabe nire indar, nire salbaziño.
Indartsua da zure eskua, Yabe;
zure eskuak ondatu ditú arerioak.
Zure erria askatuta onean zuzendu dozu.
Zure bizileku santura daroazu zure indarrez."

71. Bateoko uretan ondatuta itxi dogu pekatua guk kristiñauok. Yabe'ren laguntzaz, Itxas-Gorria igarotakoan, israeldarrak bizi-modu barri bat aurkitu eben; geuk be, Jesukristoren bitartez bateo uretatik igaro ondoren, askatasunezko eta grazizko bizitza barri bat aurkitu dogu.

Eta, Jesukristo'gaz bat eginda, geu be Agindutako Lurralde barri baterantza goaz, aurrera beti bizitza barri onegaz, Jesukristogazko adiskidetasun eta batasun ori barru-barrukoa, oso-oso ta beti-betikoa izan arteño.

ITAUNKETA

56. Israeldarrak egitoarren azpitik zelan urten eben ikusi dogu. Idazteuneko zein liburutan agertzen da ori?
57. Zer egin eutsen Egito'n israeldarrai aifñ larri ta estu oneik aurkitzeko?
58. Moises zelan salbau eban Jaunak?
59. Moises'ek zergaitik iges egin eban Madian aldera? Basamortuan eginga dako urteak, zertarako balio izan eutsen gero Moises'eri?
60. Israeldarrak askatzea, zeren iragarpena izan zan?
61. Zelan agertu yakon Jauna Moises'eri Oreb mendian?
62. Jaungoikoak bere izena, zelan agertu eutsan Moises'eri?
63. Zer zala-ta kastigau ebazan Jaungoikoak Faraioia ta ejitoarrak?
64. Ejitoarren menpetik urtetzeagaitik jai bat ospatzen eben israeldarrak, zein zan? Zelan ospatzen eben Pasko-jai ori israeldarrak?
65. Ze alde dauke israeldarren eta kristiñauen Pasko-jaiak?
66. Noz itxi eutsen Faraioiak israeldarrai Ejito'tik urtetzen?
67. Ejitoarren menpetik askatu ondoren, zein menditara eroan zitun Jaunak israeldarrak?
68. Israeldarren laguntzalle ta biderakusle izan zala Jauna basamortuan esateko, zelan esaten dausku Idazteunak?
69. Ejitoarrak euren atzetik etozela, zelan salbau zitun Jaunak israeldarrak?
70. Kañaberadun Itxasoan egindako mirariagaitik esker ona, zelan agertzen eutsen israeldarrak Jaungoikoari?
71. Zure bateoak eta israeldarrak Itxas-Gorritik igaroteak ete-dauke zer ikusirik?

ZAZPIGARREN IKASKIZUNA

Jaungoikoaren erria basamortuan egiten dau erri Jaunak

72. Eurakaz Jaungoikoaren Erria egiteko atara ebazan Jaunak israeldarrak Ejito'tik. Laster ikusiko dozu zelan moldatu ta ezi eban Jaungoikoak bere erria. Jaungoikoaren Erria basamortuan egingo da erri.

Yabe israeldarren lagun basamortuan

73. Ejitoarrendandik alde eginda arearterik-arearte ibiltzen asi ziranean, laster nekatu ta aspertu ziran israeldarrak. Eta mar-mar ebizan Moises'en kontra:

"Zer edango dogu? Erri osoa gosez ilteko ekarri gozuz basamortu onetara ala?"

Bañá Moises'ek erantzun eban:

"Nire aurka barik, Yabe'ren aurka doaz zuen asarre ta aiene guztiak. Bañá ointxe ikusiko dozue Ejito'tik atara zaituen Yabe nor dan. Laster ezautuko dozue aren alizatea."

74. Esan ta egin. Arratsalde aretan, israeldarrak egozan ondo-ondora galeperrak etorri ziran. Asko etorri be! Eta ainbeste txori ikusirik esan eben:

"Auxe da Jaungoikoak bialduten dauskun janaria."

Biaramon goizean, basamortu aretako landaretan izotzaren an-terako garau txiki ta zurizka batzuk ikusi ebezan. Eta areik zer izan eitekezan asmau ezifñik, esaten eben:

"Zer da au?"

Eta Moises'ek erantzun eutsen:

"Auxe da Yabe'k bialtzen dauskun janaria. Bakotxak egunerako bear dauana artuteko agindu dau Berak."

Janari ori mana izan zan. Auxe izan zan jatekorik onena ta lena israeldarrentzako berrogei urtean basamortuan zear. Egarrria kenduteko ura atx batetik sortu eban Moises'ek Jaunaren aginduz. Arerioakaz egin ebezen burrukaldi guztietan be Jaunak lagundu eutsen israeldarrai. Onexegaitik esaten eutsen Moises'ek:

"Yabe gurartean dago ala ez?"

Orixe gogoratuten eben beti israeldarrak geroagoko larrialdietan be:

"Basamortuan Yabe'k zaindu ginduzan."

75. Gizaldiak geroago, Jesus'ek be orixe gogoratzen deutse judarrai: "Gure antxiñakoak basamortuan mana jan eben". Eta mana barri bat agintzen dautse: Eukristia, gure janaria bizitzako basamortutik zear joateko.

Eta basamortuan israeldarrak ura edan eben atxa, betiko bizi-zarako ura emoten dauskun Kristo'ren irudi dala difiotse S. Pablo'k Korinto'ko kristiñauai. Kristo da, izan be Beragan siñestuten dogunok artuten dogun Espirituaren ur biziaren iturburua.

Israeldarrai bere Alkartasuna eskeinduten dautse Jaungoikoak

76. Denporaldi bat garrenean, Sinai mendi barrenera eldu ziran israeldarrak. Eta antxe gelditu ziran; ejitoarren eskutik israeldarrak askatzera joan eiten, Jaungoikoak Moises'eri dei egin eutsan leku berbertan. Zelai ikusgarria axe benetan! Aurrean mendi aundi bat, ezetariko landara barik, ikaragarrizko atx mokorrez josita. Leku arrigarria zan; Jaungoikoaren indar, al-izate ta anditasuna sentitzeko egoki-egokia.

Moises'ek mendi gañera igon eban, bakar-bakarrik. Eta auxe esan eutsan orduan Jaunak:

"Ejitoarrai egin dautsedana ikusi dozue. Arranoaren ego gañean lez Niganaño ekarri zaituedala be bai. Orañ nire deia entzun eta nire alkartasuna jagoten badozue, erri guztien artetik neure-neureak izango zarie, neure ondasun; neurea da lur osoa, baña zuok abade-erreñu ta erri santu bat izango zarie."

Israeldarrak etziran iñor Jaungoikoagandik maitasun-ezaugarri ori artuteko, Jaungoikoagaz alkartze ori egiteko. Baña aiek merezi ez arren, Jaungoikoak Israel aukeratu eban bere erri kutun izan eiten. Eta ez eban derriorrean, indarrez artu, askatasunez eta maitasunez baño; bere deiari baietz edo ezetz esateko eskubidea emonez.

Moises'ek agertu eutsen, ba, israeldarrai Jaungoikoak berari esan eutsena. Eta aiek olantxe erantzun eben ago batez:

"Yabe'k esandako guztia beteko dogu."

Jaungoikoak israeldarrakaz egingo eban Alkartasunari egokiozan eginbearrak

77. Erriaren erantzuna Moises'ek Jaungoikoari emonda gero, auxe esan eutsan Yabe'k:

"Zoaz erriagana eta esaiozu gaur eta biar soña ta soñekoak garbitu daiezala, etzirako prest egoteko. Irugarren egunean Yabe etorriko da Sinai mendi gañeko laño artera."

Menditik erriagana jatsi zan, ba, barriro Moises. Eta Jaunak agindu eutsana bete eban. Erria gerturik egoan.

Irugaren goiza argitutakoan, Yabe'ren deia entzun zala difiosku Biblia Santuak. Odeiak jo eban bertan bat-batean; angotruoiots, oñestu ta turutotsa lako zarata bildurgarriak ezeukan azkenik. Sinai mendia ketan egoan, laba aundi baten antzera.

Olantxe, ekaitz orren bitartez, bere al-izate ta anditasuna erakutsiz, agertu zan Jaungoikoa.

Jaunak lañoartetik antxe egoala aitzen emoten eutsola konturaturik, itzal eta bildur santuz beterik egoan Israel'go erri osoa toki ikaragarri aretan.

78. Une itzalgarri orretan agertu ebazan Jaunak, bere erriagaz egingo eban Alkartasunari egokiozan eginbearrak. Batez be, amar dira eginbear orreik: Amar Aginduak.

Jauna berbakoa da. Atara dau bere erria Ejito'tik, bere maitasuna erakutziz. Eta orixe gogoratuazoten dautso, lenengo ta beñ, bere erriari:

"Ni Yabe naz, ejitoarren menpetik atara zaitudan Jaungoikoa."

Gero, alkartasunean bizi izateko betetu bear dauzan Aginduak emoten dautsoz:

Neu baño beste Jaungoikorik ez dozu izango.
Irudietan ez nozu gurtuko.
Ez dozu Jaungoikoaren izena alperrik agotan artuko.
Jai egunak jai egingo dozuz.
Zure gurasoak aintzat eukiko dozuz.
Ez dozu iñor ilgo.
Ez dozu aragikeririk egingo.
Ez dozu ostuko.

Ez dan gauzarik iñori ez dautsazu ezarriko eta guzurrrik be ez dozu esango.

Lagun urkoaren emaztea eztozu nai izango, eta iñoren ondasunen gurari bidebakorik be eztozu eukiko."

Jaungoikoaren agindu orreik entzun eta ontzat eta aintzat artu ebazan erriak.

Alkartasuna izenpetzea

Jainkoak egiten dauan salbaziño-eskeintza bat da Alkartasuna.

79. Alkartasuna Jaungoikoaren maitasunak sortu dau. Eta maitasunezko eta zintzotasunezko Alkartasun bat egiten dabe Jaungoikoak eta israeldarrak:


"Zuen Jaungoikoa izango naz eta zuek nire erria izango zarie."

Israeldarrak Jaungoikoaren aginduak betetu bear dabez; Jaungoikoak bere doi ugariz bedeinkatuko ditu. Auxe da Sinai'ko Alkartasuna: Jaungoikoaren eta bere erriaren alkarmaitasunezko eginbeurrak ikusirik, alde biak, batak besteari, eginbear orreik zintzo betetzeko berbea emotea, Alkartasun-eragille ta mesede-egille Jainko izanaz.

Eta Jaungoikoak eta israeldarrak batera egiteko zeregiñ aundi baten asiera izan zan Alkartasun-egite ori, odol-opari bategaz izenpetu ta amaitu zan.

Zekor batzuk ilteko agindu eban Moises'ek. Eta aien odol erdia artu eta Jaungoikoaren ordezeko egiten eban altarea txipriztindu eban. Gero, Alkartasunari egokiozan legeak erriari leidu ondoren, beste odol erdia artu eta erria txipriztindu eban esanez:

"Auxe da Yabe'k zuekaz egin dauan Alkartasunaren odola."



Zuen Jainkoa izango naz eta zuek nire Erria izango zarie

Biziaren eta alkartasunaren irudi zan odola israeldarrentzako. Eta Jaungoikoaren ordezeko egiten eban altara ta erriaren gañera ixuriaz, Jaungoikoaren eta erriaren bizia alkartuta geratzen ziran.

Kristo'ren Odolaren bitartez, egingo da, gizaldiak geroago, Jaungoikoaren eta gizonen arteko betiko Alkartasuna. Alkartasun Barri au egunero gogoratzen dogu Meza Santuan. Auxe esaten dau abadeak konsagraziñoan: "Auxe da Alkartasun Barriko ta betikoaren Odola".

80. Moises'ek mendiko bakartadera alde egin eban barriro be. Eta antxe egon zan berrogei egunean Jaunaren berbea entzuten eta ausnartuten. Gero Jaungoikoaren Legea ekarri eutsen erriari, arri-zabal bitan idatzita.

Baña, bienbitartean Jaungoikoaren agindu bat ausi eban erriak. Irudietan ez egiela gurtu agindu eutsen Jaungoikoak. Israeldarrak, ostera, urrezko zekor-irudi bat gurtutzen ebizan oraiñ; aren aurrean jolasketan eta dantzan ebizan, zekor-irudi a jainkozko gauza bat lez arturik. Ori ikusi ebanean, Moises asarratu egin zan. Eta arri biak jaurti ta apurtu egin zitun. Urrezko zekorra be auts egin eban. Eta gaiztakeri orren errudunak ilteko agindu eban.

Jaungoikoaren erria eratuten eta zuzentzen diardu Moises'ek

81. Sinai mendiko gauza gogoragarri orrein ondoren, Agindutako Lurralderantza bide egiten asi ziran, barriro be, israeldarrak.

Kanaan'era eldu orduko urte asko pasauko yakez. Erria moldatzen eta zuzentzen alegindu zan, bienbitartean, Moises. Batasuna eta lege-maitasuna sortzen egiñalak egin zitun: Aldi aretako aleizkizunak moldatu; Lege-arri biak gordetako Alkartasun-Kutxa eta eleikizunak egiteko kutxategi edo txabola aundi bat egin ta abar. Gañera, errian sortu ziran biurrikeri ta asarre ta naste guztiak be, laster ito ta eze-reztu ebazan, Jaungoikoaren Legeko aginduai egokionez.

Moises'en legeak Idazteunean agertzen dira, aren gogoari jarraituaz geroago ezarritako beste lege batzukaz nastean. Moises'ek batu ta eskribidu eragindako beste gauza asko be badaukaguz Idazteunean: Israeldarrak euren aurrekoengandik ikasitako oiturak, lege zarrak, ezpan-belarri erabillitako gauzak eta abar.

Kanaan'era sartuteko be Moises'ek atondu zitun bideak. Eta ara sartu baño len, aurretik bialdu ebazan batzuk Agindutako Lurraldea ikustera ta arakatutera. Eta, urte askoan, basamortuko lur agorra bakarrik ikusitako aurrelari oneik arrituta gelditu ziran Kanaan'go lur aberatzak ikusirik. Orrexagaitik esaten eben israeldarrak **esne ta ezti erion** lurraldea zala a.

82. Eriotza ur ebala igarri eban Moises'ek. Eta otoitz egin ondoren, erri osoa batu eban. Gero, Josue izentau eban bere ordezko izateko. Eta aren gañean bere eskuak ezarrita, Israel'go zuzendari egin eban Josue. Jeriko aurrekaldeko mendira igon eban, gero, Moises'ek. Eta Jaunak antxiñako erri-gurasoai agindutako Kanaan'go lurraldea ikusi eban andixe. Onezkero begien aurrean eukan, ur-ur. Baña Jaungoikoaren erriaren aurrelaria ez zan arañio elduko, "ez zara an sartuko" Jaungoikoak esan eutsan-da. Agindutako Lurraldearen aurrez-aurre eta areri begira il zan, ba, Moises zintzoa.

Negar asko egin eutsan erriak Moises'eri. Berau izan zan, izan be, Jaungoikoaren erriaren buru ta zuzentzalle jatorra; Jaungoikoagaz arpegiz-arpegi berba egin eban igarlea. Berau izan zan Jaungoikoaren eta israeldarren bitartekoa eta beronen bidez egin zan Sinai'ko Alkartasuna.

ITAUNKETA

72. Israeldarrak Ejito'tik, zetarako atara zitun Jaunak?
73. Basamortuko bizimoduagaitik kezkaz heterik ebizana, zer esan eutsen Moises'ek?
74. Agindutako Lurraldera-bidean, zelan zaindu ebazan Jaunak israeldarrak?
75. Israeldarrai basamortuan emondako mana zala-ta, zer agindu eban Jesukristo'k?
76. Zelan eskeindu eutsen Jaunak bere Alkartasuna israeldarrai?
77. Zelan agertu yaken Jauna israeldarrai Sinai mendian?
78. Alkartasunari dagokiozan agindurik aundienak, zeintzuk dira?
79. Sinai'ko Alkartasuna zelan izenpetu zan? Jaungoiko ta gizonen arteko Alkartasun Barria izenpetuten dauan odola, zeñi da?
80. Sinai'ko Alkartasuna zelan etendu eben israeldarrak? Errudunak zelan zigortu zitun Moises'ek?
81. Erria moldatu ta zuzentzeko, zer egin eban Moises'ek?
82. Non eta zelan il zan Moises?

Agindutako Lurraldera sartu ondoren, bertakotu egiten Jaungoikoaren erria

83. Berrogei urtean basamortutik zear ibillaldi asko egin ondoren, Agindutako Lurraldearen aurrean aurkitu ziran israeldarrak. Asko ikusita ta ikasita egozan ordurako. Jaungoikoaren esaneko Moises'ek, eta denporeak eta basamortuko gogortasun eta laztasunak, asko ezi ta zuzendu ebazan israeldarrak.

Jaungoikoa zuzena da. Berbakoa da beti. Eta israeldarrak Agindutako Lurraldean sartuko ditu. Agintza, egintza biurtuko da.

Abraan'en ondorengook Kanaan lurraldera sartze ori Yabe'ren leku santura sartzea izan zan Jainkoaren Erriarentzako; eleizkizun aundi ta apaiñak egin eikezan lekura sartzea. Eta, orrexegaitik, Jordan errekea pasatzea eta Jeriko'ko errira sartutea, eleizkizun aundi ta apain baten antzera azalduten dauskuz Idazteunak.

Neke ta arazo asko izan ebezan israeldarrak Ejito'tik Kanaan'era bidean (euren erruagaitik asko, burugogor ta siñeste otzekoak izan ziralako, gaiztakeri asko egin ebezelako). Eta oztaz-oztaz, baña Jaungoikoaren laguntza eta aurrelari eta zuzendari izateko Berak izentau zitun gizonen alegiñen bitartez, israeldarrok eldu ziran, azken baten, euren aberri izango zan lurraldera.

Idazteuneko **Josue** eta **Ebasleak** deritxogun liburu santuetan agertzen dira gauza orreik. Leidu ta, astiro-astiro, azaldu daiguzan, ba.

Josue israeldarren buru

84. Moises ilda gero, Jaungoikoa agertu yakon Josue'ri eta esan eutsan:

"Moises nire serbitzaria il da. Jagi, ba, eta zure erria artuta Jordan errekea igaro egizu, agindu neutsuen lurraldera sartu zaitezen. Gorde nire legeak beti."

85. Jaunak Josue'ri agindutako eginkizun ori, gogorra eta gatxa izan zan. Izan be, aldi aretan (Kristo'ren aurreko 1230'garren urte inguruan) kanaandarrak bizi ziran Kanaan'en. Eta indartsuak eta aberatzak ziran. Gañera arri-esizko erri barruetan bizi izaten ziran, euren errege ta guzti. Israeldarrak, ostera, etziran iñor be aien aurka joateko, gitxi eta burrukarako ezjakiñiak eta oitubakoak ziran da. Baña auxe esan eutsan Jaunak Josue'ri:

"Ez zaitex bildurtu. Yabe zure Jaungoikoa zeugaz egongo da beti-ta, edonoz ta edonon."

Jordan errekea igarotzea

86. Jaungoikoaren eleiza aundi bat lez izango zan Kanaan'go lur santu aretara sartu baño len prest eta zaiñ egon eiten, auxe esan eutsan Josue'k erriari:

"Etorri ona eta entzun gure Jaungoikoak esana: Garbitu zaitexe gerturik egoteko. Zuen erdian Jaunak biar gauza miragarriak egingo ditu. Begira: Alkartasun-Kutxa daroen abadeak Jordan erreka sartuaz batera, urak gelditu egingo dira, guztiok arrisku barik pasau gaitezan."

Urrengo goizean urten eben israeldarrak eta laster eldu ziran Jordan errekaño. Alkartasun-Kutxa eroien abadeak aurrenengo joiazan. Eta uretara sartu ziranean, goialdetik etozan urak gelditu egin ziran eta, gañezka egiñik, inguruko lurrak ondatu ebezan. Beko urak, ostera, itxasorantza egin eben, ur-bidea siku itxirik. Eta andixe pasau zan Jaungoikoaren erria.

Jordan errekea igaro ondoren, altara bat egin eben, berealaxe, antxe bertan, israeldarrak, errekatik ataratako arri batzukaz. Eta eskerrak emon eutsezan Jaungoikoari. Ori altara ori gomutagarri bat izan zan gero israeldarrentzako. A ikusten ebenean Jaungoikoa goratzen eben, eta neurribako al-izatedun Jaungoikoagan uste osoz itxaroten eben.

Jeriko'ren jabe egiten da Josue

87. Israeldarrai arpegia emon eutsen Kanaan'go lenengo erria Jeriko izan zan. Ondo zainduta egoan erri au arrizko orma aundiakaz. Araxe jo eban Josue'k.

Israeldarrak Jordan errekea igaro ebela entzun ebanean, Jeriko'ko erregea artegatu egin zan. Eta uriko ateak itxi egin zitun, illarte antxe gogortzeko asmotan.

Jeriko menperatzen asko lagundu eutsen Jaungoikoak israeldarrai. Irakurri daigun Idazteuna. Eleizkizun aundi ta apaiñ baten egiten dan eleizbira bat azalduten diardula esan geinke:

"Jaunak Josue'ri esan eutsan: Jeriko emotera noatsu. Sei egunean, alderreskan, egun bakotxean erriari buelta bat emongo deutzazue; zazpigarren egunean zazpi buelta emongo dozuez, Alkartasun-Kutxa daroen abadeen turutotsez. Uriko arri-esia jausi egingo da eta orduan eragozpen barik sartuko zarie."

Esan ta egin. Josue'k Jaungoiko alguztidunagan ipiñi eban uste osoa. Eta uria inguratzeko agindu eutsen israeldarrai. Eta beingo baten egin zan Jeriko'ren jaun ta jabe.

Gabaon'go burrukaldia

88. Beste erri batzuen jabe be egin ziran israeldarrak. Eta Kanaan'en erdi inguruan egozan mendi alderantza joiazan. Baña ango errege batzuk bidera urten eutsen Josue'ri, Gabaon'go zelaian a ondatzeko ustez.

Baña Jaungoikoa izan zan, ostera be, Josue'ren lagun:

"Ez izan errege aien bildur, laster azpiratuko dozuz aiek be-ta. Iñok be ezin izango dautsu luzaro aurka egin, ezta iges be."

Eta Jaunaren laguntzaz, arerio guztiak ondatu zitun Josue'k, berealaxe eurakana joanda, aurea artuz. Denporal bildurgarri bat sortu zala diñosku Idazteunak: Eguna gautu lez egin zala, eta txingor-arri zaparrada aundi bat bota ebala Jaunak, igeska joiazan israeldarren arerioen gañera. Eta, orrela, alkar-jote aretan be israeldarrak arerioen gañetik urten eben. Eta erri osoak ospatu eban garaipen ori, geroago Idazteunean idatzitako kantu bat abestuz. Ona emen Josue'ren agotan ezarritako abesti ori:

"Eguzki!, gelditu Gabaon'en eta zu iretargi Ayalon'en. Eta eguzkia gelditu egin zan

eta iretargia geratu egin zan
erriak arerioen lepotik
bengantzia artu arte.”

89. Agindutako Lurralde zati aundiaren jabe egin ziran onez-
kero israeldarrak. Eta lur-banaketa egitordua etorren. Eta Jaunak
egindako agindua beterik, lur zati bana emon eutsen senitarte ba-
kotxari. Eta andik aurrera, bakotxak bere aldetik emon bear arpegia
oindiño Kanaan'en egozan erregeai.

Lebi'ren senitartekoai ez eutsen lurrik emon, lebitarrak eleizgi-
zoz izateko aukeratuak izan ziran-da. Baña ezer barik etziran geratu
onek be. Beste senitarte guztien lurreko frutu eta ganau ta egaztien
amarrenak artuko zituen orde.

Josue Alkartasuna barriztetan

90. Il aurretxoan, Josue'k israeldarren senitarte guztiak batu
ebazan barriro. Siken'en batu zitun. Eta Jaungoikoak eurai egindako
mesedeak gogoratuazo eutsezan lenengo ta beifi. Gero, barriz be,
Jaunaren esanean zintzo jarraitzeko aiei esan ondoren, Sinai'ko Al-
kartasuna barriztau eban:

“Ikusi dozue —esan eutsen Josue'k— Jaungoikoak
Kanaan'go erriakaz egin dauana. Jaungoikoa Bera ibilli
da gugaz gure lagun. Eta lurralde eder au emon dasku.
Zuzen eta zintzo jarraitu, ba, eta beingoan jabetuko za-
rie Agindutako Lurralde osoaz. Jaungoikoaren bildur
izan; biotz garbiz eta benetako gogoz bere menpean bizi
izan zaitezte. Kanaandarren sasi-jainkorik ez gurtu.”

Eta erri osoak erantzun eban:

“Jauna bertanbera itxi ta guzurrezko jainkoak gur-
tuten joan? Ez orixe! Olangorik ez! Berak atara gindu-
zan Ejito'tik, mirari ikusgarriak egiñez. Berak emon
dasku lur au be, eta Bera bakarrik maitatu ta otsein-
duko dogu, Bera da gure Jaungoikoa-ta.”

Israel'go ebazleak Josue'ren jarraitzalle

91. Agindutako Lurralde osoa beraganatu baño len il zan Jo-
sue. Alkar-jote gogorak eginda, mendi lur batzukaz jabetu ondoren,

Lur zatitzea eginda gero, txarto ibilli ziran asieran israeldarrak
Kanaan'en, naste ta gora-bera atzeragarri asko sortu ziran-eta. Ebaz-
leen aldia dogu (K. A. XII'garren gizalditik XI'garrenerarte).

Urteak joan, urteak etorri, israeldarren zintzotasuna epelduz
joian. Alkartasunari egokiozan eginbearrak be erdi aitzuta egozan.
Eta kanaandarren sasi-jainkoak gurtzeraño be eldu ziran bein baño
sarriago. Baña olan kili-kolo ebizenean, Jaungoikoak ez eutsen la-
gunduten. Eta arerioen eskuetan itxiten ebazan. Eta orduntxe gogo-
ratuten ebezan euren gaiztakeriak eta barriro be Jaungoikoagana
biurtuten ziran.

Amakatxo bidar geuk egiten doguna; Arrisku baten edo gaiso-
rik edo... zerbaiten premiñan aurkituten garanean, erreguka Jain-
koari. Baña Jainkoaren laguntasun barik be ondo bizi gaitezala
uste izaten dogunean, Jaungokoirik ezpalego lez bizi izaten gara, sarri
askotan.

Estu-aldikadatan askatzalle bat bialtzen eutsen Jaungoikoak
arerioen menpetik urtetzeko. Askatzalle orrei Ebazleak deitzen dau-
tsegu. Senitarte baten edo iru-lauren agintari izaten ziran. Batzuk
eleizgizon izan ziran; beste batzuk, gudari azkarrak. Areitariko ba-
tzuk zer egin eben ikusi daigun, ba:

Jedeon lur-langillea

92. Israelgo ganau ta landetan negargarrizko triskantzak egi-
ten ebezan madiandarrak. Egun baten, larrinean garia garbitzen ebi-
llela, Jaungoikoaren aingerua agertu yakon Jedeon izeneko israel-
dar bateri eta esan eutsan:

“Jaungoikoa zugaz, guda-gizon azkar.” Jedeon'ek
erantzun eutsan: “Jaungoikoa gugaz bada, zelan etorri
yakuz naigabe oneik, ba?” Baña Jaunak esan eutsan or-
duan: “Zeuk askatuko dozu Israel madiandarren esku-
tik. Neu izango naz zugaz eta laster oinperatuko dozuz.”

Au Jaungoikoaren dei bat zana konturatu zan Jedeon eta Jau-
nari sinestu eutsan.

Eta amar gizon artuta, Ofra'ra doa Jedeon. Eta ango guzurrez-
ko jainkoen altarea apurtu egiten dau. Gero, aren lekuan egizko
Jaungoikoari altara barri bat egin, eta erre-opari bat egiten dau.
Andik lasterrean, irureun gizon batuta, madiandarren aurka doa. Eta
bizkor eta zur ibilliz, beingoan zapaltzen ditu.

Madiandarrair Jedeon'ek burrukan irabazi egin eutsela ikusirik, erria asko poztu zan. Eta euren errege izan eitela eskatu eutsen Jedeon'eri. Baña onek erantzun eutsen:

"Ez naz zuen errege izango, Jaungoikoa bakarrik dozue zuen Errege-ta."

Sanson, jaiotzatik Jaungoikoari eskeiñia

93. Sanson entzute aundiko gizona izan zan Israel'en, filistearren kontra egin zituen burrukaldi gogorretan ak egin ebazan gauza ikusgarriakaitik.

Filistearrak itxas-bazterrean bizi izan ziran. Baña barrurantz, israeldarren lurralderantz be joan ziran. Eta onein lur-arlo aundiekaz jabetuta egozan. Onexegaitik deitu jakon "Palestina" lurralde areri gero, "Palestina" izenak filistearren lurra esan gura dau-ta.

Sanson'en bitartez lagundu eutsen Jaungoikoak israeldarrair filistearren aurka. Jaiotzatik Jaungoikoari eskeiñitako gizona izan zan Sanson. Eta eskeintza orren ezaugarritzat ez eutsen sekula be ulerik moztu.

Jaungoikoaren esanean zintzo ebillela, gauza arrigarriak egin ebazan. Eta Sanson'en indarra eta ak egindako gauza itzelak, gogoan eukiten ebazan israeldarrak gizaldi asko geroago be.

Samuel, Silo'ko abadea

94. Bere gurasoak Jaunari eskeiñitako mutil jainkozale bat izan zan Samuel. Alkartasun-Kutxa egoten zan Silo'ko jauretxean bizi izan zan. Eli izeneko abade zar baten laguntzalle zan. Gau baten Jaunaren deia entzun eban Samuel'ek. Eta auxe esan eutsan Jaunari: **Emen naukozu, Jauna; itz egizu, zure berbea entzuteko zain dago zure serbitzalle-ta.** Israeldarrak eta Eli'ren familia zintzo ez ebizalata, aiek zigortutera joiala esan eutsan, orduan, Jaunak Samuel-eri. Eta Eli'ri esan eutson Samuel'ek, urrengo goizean, berari Jaungoikoak esandakoa. Eta Eli'k auxe erantzun eutson: **Jaungoikoa gure Jauna da; egin bei ba, Berak ondo deritxona.**

Andik denporaldi batera, israeldarrak filistearren eskuetara jausi ziran. Eli'ren seme biak il ebazan; Alkartasun-Kutxa eroan be bai. Barri tamalgarri au jakin ebanean, Eli'k larrialdi bat izan eban. Eta ondoez bategaz atzerantz jausita, buruko azurra ausi eban. Eta bertan il zan.

Eli ilda gero, Samuel izan zan Israel'go ebazle ta zuzendari. Eta berau agintari zala ekarri zan, ostera be, Alkartasun-Kutxa lengo lekura. Eta bakez bizi izan ziran israeldarrak urte askotan.

95. Baña Samuel'en azkenaldirantz filistearrak agertu ziran ostera be. Eta bananduta egozan senitarte guztiak alkartu ezik, ezer be ezin egiñ aien kontra. Eta orretarako, guztien buru izango zan gizon indartsu ta adoretu bat bear. Beste erri batzuk eukezan antzera, euren artean be errege bat izentatzeko eskatu eutsen, orrexegaitik Samuel'eri israeldarrak.

ITAUNKETA

83. Agindutako Lurraldean sartzea, zer izan israeldarrentzako?
84. Moises ilda gero, zer esan eutsan Jaunak Josue'ri?
85. Kanaan'egaz jabetutea, zergaitik izan zan gatxa?
86. Zelan lagundu eutsen Jaungoikoak israeldarrair Jordan errekea pasatzen?
87. Jeriko'ra sartzea zelan dakar Bibliak?
88. Zelan lagundu eutsan Jaungoikoak Josue'ri Gabaon'go zelaian?
89. Agindutako Lurralde zati aundia eurakanatu ondoren, zer egin eben israeldarrak?
90. Sinai'ko Alkartasuna zelan barritzau eban Josue'k?
91. Zeiñ izan zan Ebazleen zeregiña?
92. Nor izan zan Gedeon?
93. Eta Sanson?
94. Zer dakizu Samuel'en gañean?
95. Zer zala-ta eskatu eutsen errege bat israeldarrak Samuel'eri?

JAUNGOIKOAREN ERRIKO

LENENGO ERREGEAK

LAUGARREN ALDIA

BATASUNEZKO ERREGE ALDIA: ISRAEL'GO ERREIÑUA

(K. A. 1030'garren urtetik 930'garrenerarte)

SARRERA

96. Ibilli ta ibilli, Agindutako Lurraldearen jabe egin ziran israeldarrak. Bertakotu be bai.

Baña albo-errietako en eraso aldietan estu ta larri aurkitzen ziran; batez be, senitarteak bannanduta eta alkar aitu eziñik ibiltzen ziralako.

Izan be,, agintari au emen, ori or eta bestea an; olangoa gaur, biar alangoa izan ezker, zer egin, ba? Orrexegaitik, erri osoa batu ta indartzeko, aldatu barik euren buru izango zan errege baten premiña aundian egozan israeldarrak.

97. Jaungoikoaren Erriko lenengo erregeak israeldar guztien buru ta agintari izan ziran.

Eta eun urte inguruko aldi one-ri batasunezko Errege-aldia deitzen dautsogu. Gero, erdibituz egin zan Jaungoikoaren Erria, eta erreñu bi sortu ziran, bakotxa bere erregeaz.

98. Jaungoikoaren Erria gogortu ta indartu egin eben erregeak. G a ñ e r a, errege-alditik arrezkero, Jaungoikoak agindutako Salbatzalea be Mesias edo Igortzi aundi bat lez agertuko zala uste eben israeldarrak. Euren errege guztietatik aundiena izango zan euren Salbatzalea.

Jaungoikoaren erriko errege-tzaren gorabarak, "Samuel'en lenengoa ta bigarrena", eta "Erregen lenengoa ta bigarrena" deritxoguzan Idazteuneko liburu santuetan dagoz idatzita.

96. Senitarte guztiak alkartuta arerioen aurka egiteko, zer bear eben is-raeldarrak?
97. Zeri deritxogu batasunezko Errege-aldia?
98. Errege-aldia izan zanik eta arrezkero, Salbatzallea nor izango zala uste eben israeldarrak?

Jaungoikoaren erriak errege bat eskatuten dau

99. Samuel zartzarora eldu zanean, Israel'go zarrak esan eutsen: "Errege bat gura dogu, beste erri guztiak daukenez." Baña lenengotan Samuel'ek ez eban ori ontzat artu, Israel'go errege ta Jaun bakarra Yabe zala uste eban-da. Baña erriaren errege ori aintzat eta ontzat be artu eban, azkenean, Samuel'ek.

Eta erregeen bitartez be aurrera diardu Jaunak gure salbazioño egintzan.

Ikusi daigun, ba, nor izan zan eta zelan egin zan Israel'go lenengo errege ori.

Saul, Israel'go lenengo erregea

100. Saul benjamindarren senitartekoa zan. Mutil aundi ta ederra zan; indartsu ta azkarra. Beñiola, bere aitaren astoen billa ziardula Efrain lurralderaño eldu zan. Antxe bizi izan zan Samuel, Jaungoikoaren Erriko igarle ta ebazlea.

Saul ikusiaz batera, bezperan Jaunak esan eutsona gogoratu eban Samuel'ek: **Biar benjamindar bat bialduko dautsut, neure erri Israel'en erregetzat igortzi dagizun.**

Orduan, Samuel'ek olio z igortzi eban Saul'en burua. Eta, mosu bat emonda, esan eutson: **Jaungoikoak igortzi zaitu, bere erriaren buru izateko. Jaungoikoaren Erriko errege izango zara eta arerioen menpetik zeuk askatuko dozu."**

Gero, erriaren aurrera eroan eban Samuel'ek Saul, lenengo erregea. Erriak poz-irrintzika artu eban, "gora erregea" esanez. Israeldarren agintari izanez, Jaungoikoaren serbitzalle izango zan,

ba, Saul, bere buru gañera Samuel'ek olioa ixuri ondoren. Aurretantzean, igortzia, Jaungoikoaren mesias zan, errespeto aundiz artu bearreko gizona.

Baña, alan da guzti be, gizon zital batzuk esaten eben: "Orrek salbauko gaitula? Bai zera!" Eta ez eben Saul aintzat artu eta ez eutsen erregalurik be ekarri.

Bere aitaren etxera etorrita baserriko zeregiñetan jarraitu eban Saul'ek. Baña egun baten amondarrak agertu ziran israeldarrak zapaltzeko asmoz. Orduan erriaren aurrean jarri zan Saul, eta gizon bat bakarrik izan balira lez jarraitu eutsen guztiak, eta amondarrok laster austu zituen. Egunduz poztak izan zan a israeldarrentzat, Jaungoikoak aukeratutako erregea gizon azkarra zala eta Yabe beragaz egoala, ikusi eben-eta.

Jaungoikoaren borondatea ez eban egin beti Saul'ek

101. Batez be, betebear bi izan ebazan Saul'ek bere erregeztan: Israeldarren senitarte guztiak alkartu eta filistearrak andik kanpora jaurti. Eta burrukaldi gogorrek egin zitun filistearrakaz. Gerratea luzaroan izan zan. Eta alkar-jote aundi orretan izan ziran israeldarren arteko guda-lagun jator eta adoretu bat Jonatan izeneko Saul'en semea izan zan.

Baña Jaunak igurtzitakoa izan arren, Saul ez zan beti ibilli Jaunaren ibilpidetik. Jaungoikoaren Erriko erregetzarako bokaziñoa emon eutsan Jaungoikoak; baña ez ebazan ondo egin bere bizibideari egokiozan zeregiñak, eginbearrak. Arrokeriz beterik, berari ez egokiozan eskubide santuak artu zitun. Eta Jaunari eskeiñi bearreko gauza batzuk be iñoz beretzat gorde ebazan. Augaitik, erregea bera baño be Jaungoikoa maiteago eban Samuel'ek, ez eutsan kontsejurik emoten. Eta, bein baten, auxe esan eutsan:

"Opariak baño bere aginduen esaneko izatea naiago dau Jaungoikoak. Jaungoikoaren agindua aintzat artu eztozun ezkeror, Berak be eztau zure erregetza aintzat artzen."

Dabi, Belen'go artzaiña

102. Juda'ren senitarteko artzain bat izan zan Dabi. Bildur bako mutil eder ta indartsua. Belen'en jaio zan. Eta antxe bizi izan zan bere aitaren ardiak zaintzen. Arpea jotzen eban ondo Dabi'k. Eta

Saul'en serbitzariak erregeagana etortzeko dei egin eutsen, soñu gozoa entzunda Saul pizka bat poztu eitean. Izan be, eziñegonez eta tristuraz beterik ebillan Saul.

103. Filistearrak arropuztuta ebizan aldi aretan. Eta israeldarren gañean izaten ziran egunero. Eta, batez be, filistearren arteko erraldoi antzerako gizontzar batek ikeratzen zitun israeldarrak bere eupada ta erronkakaz. Eta nok areri arpegia emon? Iñor be ez zan atrebitzen. Bildur ziran guztiak eta kikilduta egozan.

Erriaren ikarea ikusirik, Saul'gana joan zan Dabi. Eta Goliat izeneko gizontzar aregaz burrukan egiteko baimena eskatu eutsen. Eta ardi zaintzen erabilten eban abaila ta arri batzuk artuta, Goliat'gana joan zan. Ustetsu joan be, Yabe'k lagunduko eutsala-ta.

104. Eta Goliat'en aurrez-aur aurkitu zanean, arri bat ipiñi eban Dabi'k abailan. Eta, dzits, or doa egaz arri ori. Eta plast bekoki erdi-erdian jota, ankaz gora bota eban Goliat aundia. Eta aregana urreratu eta ak gerrian eroian ezpatiagaz burua kendu eutsan Dabi'k.

Arrituta geratu ziran israeldarren arerioak. Eta orpoak astindu eta ospa egin eben. Baña asko il ziran igeska joiazala.

Saul Dabi'ren atzetik

105. Filistearrai burrukan irabazita gero, israeldarrok pozik etozela, andrazko askok urten eutsen bidera. Eta auxe kantatzen eben: **Saul'ek milla il ditu; eta Dabi'k amar milla.**

Ori entzun ebanean, Saul asarratu egin zan. Eta arrezkero inbidiz egoan. Eta bein baño sarriago jaurti eutsan bere makillea Dabi'ri, au ilteko asmoz.

106. Geroago ta argiago ikusten zan Saul'en zatarkeria. Eta andik nunbaitera arin anka egiteko esan eutsan, egunduz baten, Dabi'ri, onen lagun kutun-kutuna zan Jonatan'ek, Saul'en semeak; bestelan, biamonian ilko ebala bere aitak.

Orduan, Juda'ko mendietarantza alde egin eban Dabi'k. Baña araxe be joan Saul. Eta estu erabilli eban Dabi. Baña au larri artu arren, beronek eukan, nai izan baleu, Saul ilteko erea, bein baño sarriago izan eban bere eskuetan Saul'en bizia-ta. Egundo be ez eutsan ezer egin, ostera, Jaunak igurtzitakoa zalako errespeto aundia eutsen-da.

Azkenenan, filistearrengana iges egin eban Dabi'k. Eta guda-keta gogorrek egin ebazan aien alde. Eta filistearren lagun aundia egin zan.

Saul eta Jonatan'en eriotzagaitik Dabi negarrez

107. Filistearren erregeak deitu eutsan, beiñola, Dabi'ri. Eta auxe esan eutsan:

"Entzun. Zuzena zara zu eta begi onez ikusten dot zure jokabidea. Baña nire erriko aundikiak eztabe gura, biar israeldarren aurka egingo dogun gudaketan zuk esku artuterik."

Erregeak esan eutsana aintzat eta ontzat arturik, goizaldean urten eban Dabi'k bere lagunakaz.

108. Filistearrak eta israeldarrak egun osoan ibilli ziran burrukan. Eta azkenean israeldarrak galdu. Orduntxe il ziran Saul eta Jonatan be, Jelboe mendietan. Eta Betsan'go arri-esietan eskegita ipiñi ebezan filistearrak aita-semeon buruak.

109. Saul eta Jonatan il zirala jakin ebanean, negar asko egin eban Dabi'k. Eta atsekabe-abesti bat asmau eban aien gomutagarriz:

"Zure mendietan ondatu zara, Israel ospetsu ori!
Zelan jausi diran azkarrenak!
Jelboe mendiok: Ez bedi zuen gain ez euririk, ez iruntzik
[egin,
israeldar azkarrenen babeskia lotsabakoak antxe lurrera
[bota ebelako.
Saul! Jonatan! maiteok eta maitagarriak;
ez bizitzan, ez eriotzan eztira alkar-aldendu."

Olangoxea izan zan Dabi, Belen'go artzaiñ gaztea. Indartsua adoretua; bizkorra, buru argikoa; bildurgarria burruketarako. Biotz aundiko gizona; bere erri Israel'go errege izateko egoki-egokia.

ITUNKETA

99. Israeldarrak errege bat eskatzea, zergaitik ez eban ontzat artu Samuel'ek?
100. Saul Israel'go errege zelan egin eban Samuel'ek?
101. Jaungoikoaren Erriko errege jatorra izan ete-zan beti Saul?
102. Nor zan Dabi?
103. Nok lagunduko eutsala uste eban Dabi'k, Goliat'en kontra joan zanean?
104. Zelan irabazi eutsan Dabi'k Goliat'i?

105. Bera baño balienteagotzat erriak Dabi artu ebancan, zer egin eban Saul'ek?
106. Nora alde egin eban Dabi'k, Saul'ek il ez egian?
107. Filistearrak israeldarren kontra gudaketa egitera joan ziranean, zer egin eban Dabi'k?
108. Zer jazo zan Jelboe mendietan?
109. Saul eta onen seme ta Dabi'n lagun kutun Jonatan il ziranean, zer egin eban Dabi'k.

Dabi, Jaungoikoaren biotzeko erregea

110. Senitarte guztiak alkartuteko eta erregetza sendotuteko errege bizkor eta indartsu ta jainkokozale baten premiña aundian egoan Jaungoikoaren Erria. Eta gauza bi orreik egin ebazan Dabi'k. Eta gizaldiak joan, gizaldiak etorri, itxaropenez beteko gurari bizi bat sortu eban Dabi erregearen gomuteak Israel'en: Mesias aundi baten guraria.

Jaungoikoaren Erriaren batasuna lortuten dau Dabi'k

111. Saul il zanean, Ebron urira igon eban Dabi'k atsekabez beterik. Eta euren erregetzat igortzi eben antxe Judaren senitarteko zarrak. Geroago be igortzi eben barriro Dabi, beste senitarte guztien errege be izan eiten. "Gora"ka artu eben guztiak eta Israel osoaren errege izan zan. Eta olantxe Ifarraldeko eta Egoaldeko senitarte guztiak alkartu zitun. Eta, arrezkero, indar eta al-izate aundiko erri bat izaten asi ziran israeldarrak.

Filistearrak azpiratzen

112. Bere erreñuagaz jabetu gura izan eben alboerrietakoe-kaz sarri izan ebazan burrukaldiak Dabi'k. Eta bere menpean eta zergapean be ipiñi zitun erbesteko errege batzuk. Baña gauzarik aundiena eta goragarriena filistearrakaz egin eban, bein ta betiko aiek azpiratu eta aien lurrakaz jabetuaz.

Jaungoikoaren eskuetan izten ebazan Dabi'k gauza guztiak. Eta burruka bat egin aurretik otoiitz egiten eutsan Jaungoikoari, gero zer egin jakiteko. Eta arerioak eskuratuten zitunean esaten eban:

"Arerioak nik ez dodaz azpiratu, Jaungoikoak baño."

Jerusalen errege-uri

113. Palestina'ren biotzean egoan Jerusalem. Eta oindiño kanaanararren eskuetan egoan. Baña K. a. 1000'garren urtean, uri orregaz be jabetu zan Dabi. Eta onantxe amaitu zan Agindutako Lurraldeaz jabetutea. Onezkeru, Kanaan guztia zan israeldarrena. Eta agintaritze-arazoak, guda-prestaerak eta artu-emon edo salerosketa guztiak egiteko, Jerusalem artu eban Dabi'k bere erreñuko uri-burutzat. Eta etxe barri ta lorategi ederrakaz apaindu eban.

Alkartasun-Kutxa Jerusalem'era eroaten dau Dabi'k

114. Dabi'k asko maite eban Jaungoikoa. Eta israeldarren-tzako eleizkizun lekua Jerusalem izatea gura izan eban. Eta orrexe-gaitik, antxiñako israeldarrak basamortuan Alkartasun-Kutxa gordetako egin eben kutxategi edo txabola aren antzerako bat Jerusalem'en egiteko agindu eban Dabi'k. Eta erritxo baten egoan Alkartasun-Kutxa, araxe eroan eban ibildeun aundi bat egitez. Eta Kutxa Deunaren aurrean joan zan Dabi bera be, arpa joten eta gartsu kantetan: **Eskerrak emon dagioguzan gure Jaungoiko Jaunari, ona da-ta, Aren maitasuna amaibakoa da-ta. Salbau gaizuz, gure Jaungoiko Salbatzalle orrek.**

Gero, jauretze barri a zaindu eta Jaungoikoa goratuteko, eleizgizon batzuk ipiñi zitun bertan. Eleizkizunetarako kantuak be berak asmau ebazan. Eta kantu orreik, gerorantza egin ziran beste eleizkizun-kanta batzukaz nasteen daukaguz, oraiñ, **Eresiak** deritxogun Idazteuneko liburuan.

Olantxe asi ziran, ba, Jerusalem'go eleizkizunak Yabe'ren omenez. Dabi'k Alkartasun-Kutxa ara eroateak sortu zitun, gizaldiak geroago, apañi eta bikaiñ, antxe Jerusalem'en bertan egingo ziran eleizkizun ospetsuak. Aurrerantzean Jaungoikoaren Uri, eleizkizun guztien biotz izan zan Jerusalem.

Jaungoikoak Dabi'ri egindako agintzak

115. Yabe txabola baten eta bera etxe apañi baten egotea, ez eritxon ondo Dabi'k. Eta arri landuzko ta zedro-olezko Yabe'ren etxe bat egiteko asmoetan ebillen. Baña Jauretze ori egin baño len ilgo zan. Alan da guzti be, Dabi saritu egin eban Jaunak, asmo santu orregaitik. Eta il baño len, auxe esan eutson Natan igarlearen bitartez:

"Zure egunak betetakoan, zure jatorriko ondorengo bat izango da errege. Ni izango naiako aita, eta a izango yat seme. Zure etxe ta erreñua betiko dira; zure jarleku kua beti egongo da sendo."

Agintza aundi bi egiten dautsoz, orrela, Jaunak Dabi'ri: Dabi'ren jatorrikoak aginduko ebela Israel'en; eta bere jatorriko ondorengo baten bitartez bedeinkatuko ebala Jaungoikoak bere erria.

Natan igarlearen iragarkizun ori, Dabi'ren jatorrikoen arteko euren erregen baten agintzaldian beteko zalakoan egon ziran, baten baño sarriago, israeldarrak. Eta, augaitik, geroago ta gogo biziagoz egozan Mesias aundi baten etorrerari itxaroten.

Mesias orreri "Dabi'ren seme" deitzen eutsen igarleak.

Baña ainbeste gizalditan iragarrita itxarondako Mesias ori nor izango ete-zan, ba? Badakizu, ezta? Bai; Jesucristo dogu egiazko Mesias pozgarri ori. Eta gu Beronen ikasleak gara.

Pekatu egin arren damu izan eban Dabi'k

116. Dabi'k be izan ebazan laprastada ta jausialdi batzuk. Pekatu asko egin ebazan. Baña, batez be, bat egin eban aundia: Urias, bere gudari-burua il eragin, gero onen andra zan Betsabe'gaz bera ezkontzeko.

Baña damutu egin zan eta negar asko egin eban Dabi'k bere pekatuakatik. Eta oben guztiak parkatu eutsazan Jaunak. Baña ordaiñ-naigabe asko bialdu eutsazan.

Aitaren aurka jaiki zan bere seme Absalon. Eta aitaren alderdikoak semearen alderdikoekaz alkar-jote gogorra izan ondoren, Absalon'ek anka egin eban mando baten gañean. Baña artepe batetik pasatzean, bere ule luzea adar baten katiatu yakon eta dingilizka geratu zan. Eta alantxe egoala il eben dabitarrak.

Il barik, bizirik a arrapatzeko agindu eban Dabi'k. Eta semearen eriotza jakin ebanean, asko mindu zan. Eta negar baten esaten eban: **Absalon, neure semetxo maite ori, nok emongo leuzkit zure ordez neu iltea, ene seme!**

Ori ta beste naigabe asko be izan ebazan Dabi'k. Eta menpetasun aundiz eroan zitun, apaltasunez beterik bere pekatuen parkaziñoa Jaungoikoari bein ta barriz eskatuz. **Erruki Jauna** —esaten eban—, **erruki zakidaz, ene Jaungoiko, zure erruki aundiz!**

Orra or, gure Dabi, pekatariaren damutasunaren jarraibide bizi.

117. Dabi zar egin zan. Eta onen urrengo erregea bere seme zarra, Adonias, izango zala esan leitekean. Baña il aurretxoan, Salomon'en ama zan Betsabe'k egin eutsazan erreguakaitik eta Natan igarlearen kontzejuz, Salomon izentau eban Dabi'k bere ordezkotzat. Eta azken orduan, bere ondora deitu ta auxe esan eutsan Salomon errege gaztetxoari:

"Ni banoa. Zintzoa izan zakioz Jaungoikoari. Aren aginduak gorde egizuz. Eta orduntxe, bai, egingo dau Jaungoikoak niri beiñola agindu eunstan au: "Zure semeak Nire aurrean zintzo badabiz, biotzez eta gogoz egizko bidetik beti badoaz, egundo be ezta egongo Israel'en errege-jarlekua zure jatorriko ondorengo bat barik."

Kristoren aurreko 970'garren urte inguruan il zan Dabi. Errege jatorra; jainkozale ta erri maitatzallea. Biotz aundiko gizon zintzoa; apala zoritxarrean be. On egitez beterik il zan. Sarritan gogoratu eban a Jaungoikoaren Erriak, arexen ondorengo bateri, Dabi'ren Semeari, Mesias'i gogo biziz itxaroten egozalarik.

ITAUNKETA

110. Zelako erregea bear zan Jainkoaren Errian? Dabi'ren gomutak, ze gurari sortu eban Israel'en?
111. Jaungoikoaren Erriaren batasuna, zelan lortu eban Dabi'k?
112. Dabi'ren guda-egintzarik aundiena, zein izan zan?
113. Alkartasun-Kutxa Jerusalem'era, zelan eroan eban Dabi'k? Zer izan Jerusalem israeldarrentzakoko?
114. Jauretze bat egiteko asmoetan ebillela, zer agindu eutsan Jaungoikoak Dabi'ri?
115. Zelan ordaindu zitun Dabi'k bere pekatuak?
116. Nor izentau eban Dabi'k bere ordezko izateko?

Salomon erregearen uts-emotea

118. Dabi'ren urrengo, Salomon, aren semea izan zan, ba, errege. Baña aitaren besteko ona ez zan izan. Lenengotan, zintzo jokatu eban, Jaungoikoaren gogoko gauza asko egin zitun. Baña, gero, lurreko gauzak larregi maitatu ebazan eta siñistebako bat lez ibilli zan. Alan da guzti be, arexen bitartez jarraitu eben Israel'go erregetzan Dabi'ren jatorrikoak.

Salomon erregearen agintzaldia beti euki eben gogoan israeldarrak. Estu ta larri aurrean erabilliak izaten ziranean eta erbeste-teratuak izan ziranean, batez be. Mesias etorritakoan, Salomon'en denporako bakea ta zorion-aldia eukiko ebezala uste eben itxaropen aundiz.

Salomon gazteak jakituria eskatzen dautso Jaungoikoari

119. Agintari ona izateko, Jaungoikoaren laguntza barik, bera iñor be etzala konturatu zan Salomon, errege egin zanean. Eta, augaitik, sarri egiten eutson otoi Jaungoikoari:

"Emoiozu zure morroi oneri zure erria zuzen erabilteko jakituria, zer edo nor, ona ala txarra dan jakiteko."

Erregu apal ori entzun eban Jaungoikoak. Eta jakituriz bete eban Salomon. Eta oso ospetsua izan zan Salomon jakituna. Eta lurralde askotatik etorten ziran areri entzuten. **Itz-zurrrak** edo **Esaerak** deritxogun Idazteuneko liburu Santu baten daukaguz Salomon'en esaera, eretxi ta kontseju sakon batzuk.

Agorik-ago erabillitako gauza asko eskribidu ziran Salomon'en agintzaldian. Izan be, idaz-lanetan aurrerapide aundiak eginda egozan israeldarrak onezkero.

Salomon'ek Jauretzea egiten dau

120. Jauretze aundi ta eder bat egin eban Salomon'ek Ya-be'ren omenez. Eta au Jerusalem'go Jauretze nausi au izan zan ak egindako gauzarik aundiena, lanik ederrena.

Jakituri az gañera, agin pida ta aberastasan aundiak be emon eutsazan Jaungoikoak Salomon'eri. Eta Jauretzea egiten asi zan. Eta olantxe bete zan Jaungoikoak beiñola Dabi'ri esandakoa:

"Zu ildakoan, zure ordeaz, zure semea jarriko dot agintari eta arexek egingo daust jauretze bat."

Jauretzea egiten asi baño len, bere aitaren lagun izandako Tiro'ko erregeaz berba egin eban Salomon'ek. Eta aregaz tratu bat egin eban. Gari ta orioa emon eutsazan Salomon'ek areri, eta zedro ta zipre-solak eta etxegille ta argifiak bialdu utsazan ak Salomon'eri, ordeaz.

Gizon asko batu zitun Salomon'ek. Kanaandarrak, batez be. Eta bearrean ipifii ebazan guztiak, nai ta nai ez.


K. a. 965'garren urtean asi zan Jauretzea egiten. Eta zazpi urte barru amaitu eban. Eta oso ederra ta ikusgarrienetarikoa egin eban egin be, Mesopotamia ta India'tik ekarritako marmol, burdifi, pitxi-arri, urre ta beste apaingarriz.

121. Eta Jauretze barri ta miragarri a bedeinkatzeko ordua be etorri zan. Ori zala-ta, eleizkizun aundiak egin ziran, aste oso bat jai artuz. Gero, urte guztietan ospatzen eben jauretze-bedeinkatze edo eskeintza ori. "Eskeintza-jaiak" esaten eutsen.

Otoitz eder eta luze bat egin eban Salomon'ek Jauretzean egun orreitan. Ona emen zati batzuk:

"Entzun zure serbitzariaren eta zure erri Israel'en otoitza, toki onetatik erreguka datortzuzanean. Entzun, zagozan zeru orretatik eta parkatu.

Israel'go seme eztan erbestetarrari be, entzun egiozu zerutik eta emioizu eskatu dagiana, etxe onetara otoitz egitera etorri daitenean, olantxe, lurreko erri guztiak zure izena ezatu dagien."



Dabi'ren familikoa da Mesias

Jaunak ontzat artu eban Salomon'en eskari sutsu ori. Eta gizaldiak etorri, gizaldiak joan, leku orretan entzungo ebazan Jaunak bere erriaren otoitzak. Jesukristo gure Jauna be orraxe joango zan otoitz egitera.

Salomon'ek egindako beste lan batzuk

122. Jaüretxeaz gañera, beretzako jauregi eder bat be egin eban Salomon'ek. Baita erri batzuk barriztau be egin zitun, batez be Israel'go muga-erriak, arerioen erasoaldietarako gogortu ta sendotuz.

Bere erreñua obeto atonduteko, probintzi barri asko egin ebazan. Bere ejerzitua indarduteko, zaldiburdi ta zaldiak ugaritzeko gorta asko be egin zitun. Arerioen atomada ta abornadari eusteko, bildur barik egoan, orrela. Gañera, albo-erreñuetako erregeakaz ondo konpondu zan eta saldu-eroste asko egin ebazan arekaz. Saba'ko erregiñea be Arabia'tik etorri zan, beñola, Salomon ikustera; eta onen aberastasun, aunditasun ta jakituriaz arrituta gelditu zan.

Orra or, Salomon erregeak egindako gauza batzuk. Ondo bizi izan ziran, orrexegaitik, Salomon'en denporan israeldarrak, aberastasunezko eta bakezko aldi eder bat izan zan-da.

Salomon'en azken aldia

123. Jaungoikoaz aitzu egin zan Salomon azken aldian. Bere erri ta erlejiñoaren alde ainbeste gauza on egin ondoren, erbesteko andrakaz ezkondu zan. Eta bere biotza areikana makurturik, Yabe'ri atzea emon eutsan. Eta bere emazte barri orrein erlejiño-oiturak sartu ziran Israel'en. Aien sasi-jainkoak gurtu eta eurai opariak eskeintzaraño be eldu zan, azkenean, Salomon. Eta, jakiña, Yabe'k txartzat artu ebazan gauza orreik.

Salomon'eri bere pekatuakaitik emondako zigorra

124. Gauza asko esan eutsoezan arpegira Salomon'eri israeldarrak, azkenaldian: Egizko siñiste bako erbestetarrakaz larregi ibilten zala; bere erregetxeko apainkeriak erriaren lepotik ordainduten zitula; Juda'ren senitartekoak besteak baño maiteago ebazala, ta abar. Bere etxegintza ta erri-lanak egiteko derriorrean bear eragiñazo eutselako be, asarre egoten ziran israeldarrak, aren aita izan zan Dabi'k ez eban iñoz be olakorik egiten-eta.

Gauzak olan zirala, Ajas izeneko igarle bat joan zan, Jaungoikoak bultz eginda, Salomon'en beargiñen ardurea eukan Jeroboan' engana. Eta bere soñeko kapa barria erantzi eban Ajas orrek, Jeroboan'en aurrean. Eta, gero, kapea artu ta amabi zati egifiik, Jeroboan'eri amar zati emon eta esan eutsan:

"Auxe diño Yabe'k: Salomon'eri agintaritza kendu-
tera noa eta zuri amar senitarte emotera noatzu. Israel'go
errege izango zara."

Salomon'ek ori jakin ebanean, Jeroboan il nai eban. Baña onek Ejito'ra alde egin eban. Eta antxe egon zan Salomon'en eriotzararte.

ITAUNKETA

118. Salomon'en denporako bake ta zorion-aldia gogoratzuz, zer itxaroten eben israeldarrak?
119. Zer eskatu eutsan Salomon'ek Jaungoikoari errege izaten asi zanean?
120. Jerusalem'go Jauretzea zelan egin eban Salomon'ek?
121. Eskeintza-jaiak zirala-ta, zer eskatu eutsan Salomon'ek Jaungoikoari?
122. Jauretxeaz gañera, beste zer egin eban Salomon'ek?
123. Azkenengo urteetan, zelan okertu zan Salomon?
124. Salomon erregearen pekatuak, zelan zigortu ebazan Jaunak?

JAUNGOIKOAREN ERRIKO

IGARLEAK

BOSGARREN ALDIA

ERREIÑUA ERDIBITUTA: ISRAEL'GO ETA JUDA'KO ERREIÑUA

(K. a. 930'garren urtetik 586'garrenera)

SARRERA

125. Salomon il zanean, onen erreinua zati bi eginda gel-ditu zan; Israel'go erreinua izan zan bata eta Juda'ko erreinua bestea.

Palestina'ren ifarraldean izan zan Israel'go erreinua. Eta Jakob'en amar semeren ondorengoak bizi ziran an.

Juda'ko erreinua Palestina'ren egoaldean egoan. Eta Juda'ren eta Benjamin'en ondorengoak bizi ziran an.

Biotatik indatsuena ta aberatsena Israel'go erreinua izan zan. Baña Juda Israel baño zintzoago ibilli zan Jaunaren bideetatik. Eta Dabi'ren odolekoak izan ziran Juda'ko errege guztiak.

126. Israel'go erreinua azkena K. a. 721'garren urtean izan zan. Asiritarrak sartu ziran ara eta eurekanatu egin eben. Eta israeldar asko eroan ebezan lotuta Asiria'ra.

Juda'ko erreinua luzaroago jarraitu eban. Baña a be jausi zan, K. a. 586'garren urtean, Babilonia'ko erregeak Jerusalem austu ebanean. Eta Judar asko eroan zituezan lotuta babilonia-tarrak euren lurraldera.

Erbestean eta estu ta larri aurkituko da Jainkoaren Erria; ezereztuteko arriskuan. Baña Jainkoaren Erri lez jarraituko dau, gure salbaziño-egintzan aurrera diardu beti Jaunak-eta.

Orixe ikusiko dozu orain dazozan ikaskizunetan. Igarleak

edo profetak nortzuk eta zer-
tzuk ziran ikusiko dozu.

Lurreko gauzetan samaraño
sartuta aundikeriz beterik ibil-
teko ez eban sortu Jaungoikoak
bere Erria. Ez; ori baño askoz
zeregin aundiago bat leporatu
eutson; gizon guztien salbaziño-
rako izango zan zeregin bat.
Eta zeregin ori bere erriak on-
do ezautu egian, igarleak bial-
tzen dautsoz.

Euren denporako gizonai Ja-
ungoiko berberaren izenean ber-
ba egiten eutsen gizon batzuk
izan ziran igarle edo profeta
orreik.

Igarleak Jaungoikoa mai-
te-maite eben. Eta gizonen gogo-
biotzak zuzendutako arduetan
ebizan beti. Eta bizitza latza izan
zan benetan arena. Baña, jo ta
ke euren lanean ekiñez, ondo
bete eben euren eginkizun ne-
ketsua.

Sarritan erabilli ebezan au-
rrean; batez be erregeakaz go-
rriak ikusi zituen. Eta batzuk
oñazez beteriko odol-eriotzaz il
ziran

128. Jaungoikoaren manda-
tari batzuk izan ziran igarleak.
Eta euren eginkizuna Jaungoi-
koak agindutako gauza bat zala
adierazoteko, aurretik esan ebe-
zan gero pasau ziran gauza
asko.

Ona emen, igarleak iragarri-
tako gauza batzuk: Israel erbes-
teratua izango da, eta Juda'ren
jatorrikoakaz alkartuko diran

israeldar batzuk bakarrik erri-
ratuko dira barriro; Babilonia'
ko erregeak ezereztuko dau Ju-
da'ko erreñua be, eta gero Ba-
bilonia bera be beste erri ba-
tzuen eskuetara jausiko da;
irurogei ta amar urte erbestean
egin ondoren, Jaungoikoaren
Erria askatua izango da. Eta
abar.

Jaungoikoaren Erriaren gogo
ta bizierari egokiozan beste
gauza asko be iragarri ebezan
gañera: Erbestetik barriro eu-
ren lurraldera etortea zala ta,
Jaungoikoaren erreñua zelakoa
izango zan gerorantza eta Me-
sias nor eta zelakoa izango zan
jakiteko argibide asko be era-
kutsi zituen; Belen'en jaioko
zala Mesias; Yabe'ren Serbi-
tzariaren nekaldi ta aintzaldia;
egizko Jaungoikoa siñestuten
ez ebenak, Aregana biurtuko zi-
rala; opari bakar bat eskeindu-
ko zala lurbira guztian. Eta
abar.

Igarleak aurretiaz esandako
gauza batzuk uler-gatxak izan
ziran. Gizaldi askok itxarondako
Mesias agertu zanean, au da, Je-
sukristo etorri zanean, aitu ebe-
zan obeto kristiñauak.

129. Profetak azi ta ezi eben
Alkartasun Zarreko Jaungoikoa-
ren Erria, iñok baño obeto. Eu-
rak izan ziran Jaungoikoaren
Erriko irakasle ta zuzentzallerik
onenak. Jaungoikoa obeto ezau-
tuten erriari lagundu eta Mesias'
en etorrera atondu, auxe izan

zan, batez be, igarleen zeregiña.
Eta Jaungoikoaren mandatari
orreik egindakoa ta esandakoa
"Igarleak" edo "Profetak" deri-
txoguzan Idazteuneko liburu

santuetan daukaguz idatzita.
Igarleak asko izan ziran: Oseas,
Amos, Mikeas Isaias, Jeremias,
Ezekiel, Ajeo, Zakarias, Malakias
eta beste batzuk.

ITAUNKETA

125. Zer jazo zan Salomon il ondoren? Zein erreñutan jarraitu eben Da-
bi'ren jatorrikoak?
126. Israel'go ta Juda'ko erreñuak zelan ibilli ziran?
127. Zein izan zan igarleen zeregiña?
128. Zelan erakutsi eben igarleak Jaungoikoaren mandatari zirala?
129. Igarleen eginkizunik lenena zein izan zan?

Igarleen aldiaren laburpena
(Erreiña erdibitu zanetik eta
erbestetik biurtzerarte)

130. Jaungoikoaren Erria erdibi eginda geratu zanean izan ziran errege ta igarlerik aundienak labur-labur esatera noatu oraifñ. Eta gogoan eukizu beti auxe: Igarleen zeregiña. Gañerako joan-etorri, gora-bera ta atzera-aurrerak zer ikusi gitxi dauke, igarleek egindako lanaren ondoan.

Israel eta Juda banandu egiten dira.

131. Salomon ilda gero, Silo'ko Ajas'ek esandakoa bete zan. Jaungoikoaren Erria zati bi eginda gelditu zan. Batzuk Jeroboan artu eben euren erregetzat; besteak Erroboan, Salomon'en semea. Eta erreifñu barri bi egin ziran: Israel'goa ta Juda'koa.

Jaungoikoaren Erria erdibituta geroko errege ta igarlerik aundienak

132. Ona emen, erabatera :

X'garren gizaldia	Salomon'en eriotza ta erreñu-erdibitzea (Jesukristo'ren aurreko 931'garren urtea).	
	Ifarraldeko erreñua: ISRAEL. (zortzi jatorriko erregeak) JEROBOAN Lenengoa 930-910). Beste errege batzuk.	Egoaldeko erreñua: JUDA. (Dabi'ren jatorrikoak errege guztiak). ERROBOAN (930-913) Beste errege batzuk.
gizaldia IX'garren	Omri. AJAB, Jezabel'egaz ezkondu-rikoa (874-853). Beste errege batzuk. ELIAS igarlea. Beste errege batzuk. ELISEO igarlea JEHU (842-815) Beste errege batzuk.	JOSAFAT (870-848) Beste errege batzuk. ATALIA (841-835) Beste errege batzuk.
VIII'garren gizaldia	JEROBOAN Bigarrena (784-743). AMOS ETA OSEAS igarleak Beste errege batzuk. SAMARIA jausi da. (K. a. 721'garren urtea). Israel'en amaia. Erbestaldia.	OZIAS (781-740) MIKEAS ETA ISAIAS igarleak Beste errege batzuk AJAZ (736-716). EZEKIAS (716-687) Erlegiño barriztatzea.
VII'garren gizaldia		Manases (687-642). Amon. JOSIAS (640-609): Erlejiño-barriztatzea. Beste errege batzuk. JEREMIAS igarlea.
VI'garren gizaldia	Jerusalem'en ondamentia (K. a. 586 garren urtea) Judarrak Babilonitarren menpean: EZEKIEL TA DANIEL igarleak. «Liburu Pozgarria» Euren aberrira joaten izten dautse israeldarrai Zirok, Persia'ko erregeak (K. a. 538'garren urtean). Palestina, Persia'ko Kaiserraren menpeko probintzi bat. AJEO TA ZAKARIAS igarleak.	

Jeroboan lenengoaren alderdikeria

133. Israel'go erreñukoak euren erlejiño betebarrak egitera Jerusalem'go Jauretxera joan ez eitezan, Yabe'ren irudi bi ipiñi ebazan Jeroboan'ek Betel eta Dan'eko otoiitz-lekuetan. Baña Jaunak ez eban ori ontzat artu, Moises'eri bere Legea emon eutsanean, bere ordezkoi irudirik ez egiteko agindu eutsan-da. Gañera, oindiño guztiz galdu barik egozan kanaandarren erlegiño-oiturak bizkortuteko bide bat be bazan ori.

Jerusalem'era joan ezkeru, beretarrak Erroboan'en alde jarriko zirala uste eban Jeroboan'ek. Eta, batez be, orrexen bildurragaitik egin eban egin ebana. Eta alderdikeri ori zala-ta, lurrez eta erriz bananduta egozan israeldar eta judarrak, erlejiñoz be banandu egin ziran.

ITAUNKETA

- 130. Zer ikusirik aundiena zek dauka igarleen aldian?
- 131. Israel'go eta Juda'ko erreñuko lenengo erregeak nortzuk izan ziran?
- 132. Israel'go ta Juda'ko erreñuko igarle batzuk esaizuz. Eta zeintzuk izan ziran erbestaldikoak?
- 133. Lurrez eta erriz bananduta egoan Jaungoikoaren Erria zelan banandu zan erlejiñoz be?

Elias igarlea israeldarren fedea zaintzen

134. Juda ta Israel bananduta gero, burrukaldi aundiak egin ziran Israel'en, batak eta besteak errege izan gurarik. Azkenean, Omri izeneko gudari-buru bat izan zan errege.

Kementsua ta gogorra zan errege barri ori. Gauza bat egin bear zala uste ebanean, zirt edo zart egiten ebana. Eta egoki zaindu eban bere, erria, aurrerapide aundiak egiñez. Errege-uritzat Samaria artu eban. Erbestetar askogaz izan zitun artu-emonak, eta Tiro'ko erregearen alaba zan Jezabel'gaz ezkondu eban bere seme Ajab.

135. Omri'ren urrengo, beronen semea, Ajab izan zan errege. Eta Jezabel bere emazteak ondatu eban au, arexek lilluratu eban-da. Eta aren esanean ibilteagaitik, Baal, guzurrezko jainkoa, egizko jainkotzat artuten asi ziran Israel'go erreñukoak.

Israeldar asko Baal'ganatu ziran, onek eskatzen ebana errez eta berez egiteko gauzea zan-eta. Eta Yabe bakarrik zala egizko Jaungoiko bizia esaten eben Elias igarlea lango banaka batzuk, latzak eta baltzak ikusten zituen, aurrean erabilten ebezan-da.

Elias igarleak gogor egiten dautso Ajab'eri

136. Elias'ek bene-benetan maite eban Yabe, egizko Jaungoiko bakarra. Eta Jaungoiko bizi bakarra siñesteari eusten alegindu zan. Basamortuan egoten zan sarri, ango lakartasun eta bakartasunean. Gizon gartsua izan zan Elias.

Beiñola, izadiaren Jainko Jaunagaz egindako Alkartasunari israeldarrak ez eutsela eusten eta altarak apurtu ta igarleak ilten zituela ikusirik, tristuraz beterik egoan, biotz-jausita.

Eta, egun baten, bere erriaganako maitasunak eraginda, Ajab erregeagana joan zan. Eta gogor egin eutsan bere pekatuakaitik eta kastigu aundi bat iragarri eutsan:

"Israel'go Jaungoiko biziaren aurrean eta izenean diñotsu Aren serbitzariak: Neuk esan arte ez dau urteotan iruntzik, ez euririk egingo."

Ori entzunik, erregea asarratu egin zan. Eta, orduan, iges egin eban Elias'ek israeldarren lurraldetik kanpora, Sarepta eritxon erri batera. Emen mirari batzuk egin ebazan: Eta egizko Jaungoikoagana biurtu eban andra bat, egizko siñismena ezeuken erbestetarrak be salbetea gura eban Yabek-eta.

Baal'en abadeak lotsatuta izten ditu Elias'ek

137. Sikete ta gosete aundia izan zan iru urtetan. Gero, Elias Ajab'gana joan zan barriro. Eta erri osoa, baita Baal'en abadeak be, Karmel mendian batzeko eskatu eutsan.

Eta esan ta egin. Orduan, onela berba egin eutsen Elias'ek guztiai:

"Yabe Jaungoiko bada, jarraitu egiozue; Baal bada Jaungoiko, jarraitu beroni."

Egizko Jaungoikoa zein zan jakiteko, opariak eskeintzeko altara gañera sua bialduko ebala Jaungoikoak Berak, esan eutsen Elias'ek. Eta berealaxe, Baal'en abade ziran sasi-igarle areik euren altara gañean ipiñi ebezan oparigaiak eta Baal'eri sua bialduteko dei ta dei ekin eutsen. Baña alperrik. Orduan, Elias'ek be atondu zitun bere altarea ta oparigaiak, eta, fede biziz, otoiz au egin eban:

"Abraham'en Isaak'en eta Jakob'en Jaungoiko Yabe! Jakin beie gaur Israel'en Jaungoikoa Zeu zarala eta ni zure serbitzaria."

"Entzun egidazu, Yabe; entzun eta erantzun, gure biotzak Zugana biurtuten dozuzan Jaungoiko Yabe zarala Zu, erri guzti onek jakin dagian."

Eta zerutik sua jatsi zan. Eta dana erre eban: Egur, opari ta auts eta arriak eurak be bai.

Ori ikusirik, deadarka asi zan erria, esanez: **Yabe dogu gure Jaungoikoa.** Eta erria okerbidetik eroaten eta gaiztotuten ebizan Jaun-

goikoaren arerio batzuk zirala-ta Baal'en sasi-igarle areik il egin ebezan. Eta zerua lañoz bete zan bertan. Eta euria asi zan.

Karmel mendian jazoriko ori Jezabel'ek jakin ebanean, Elias iltea gura eban. Baña Jaungoikoak bere erriari Legea emon eutsan Sinai mendian eskutau, zan Jaungoikoaren bake ta pozaren billa. Israeldar zintzoak gitxi zirala-ta, begi illun eta tristekiro ebillan Elias. Baña Jaungoikoa pasau zan bere ondotik, aize bigun bat lez, eta poztu ta adoretu egin eban. Eta, gero, bere errira etorri ban barriro, bildur barik, Yabe Jaungoiko bizi bakarraren alde edozer gauza egiteko prest.

Elias, zuzen ez ebizenen kontra

138. Nabot izeneko baserritar batek masti bat eukan errege-
-etxearen ondoan. Erregeak beretzako nai eban masti a. Eta aren orde, beste masti obeago bat edo dirua emongo eutsala esan eutsan erregeak Nabot'eri. Baña, bere gurasoak berari emondako gauza bat saltzen ez joiala-ta, ezetz erantzun eutson onek. Orduan, erregearen emaztea sartu zan bien bitartean. Eta azpikeriz eta guzurra dariola, Jaungoikoaren eta bere gizonaren kontra birauka ibilli zala Nabot esan eban Jezabel'ek. Eta Nabot gizajoa arrika il eben. Eta erregea berealaxe jabetu zan aren mastiaz.

Baña an egoan Elias makurkeriak zuzentzeko. Eta Jaungoiko zuzenaren izenean, Ajab'en aurrera joan zan. Eta auxe esan eutson:

"Zintzoa il eta aren mastiaz jabetu zara. Entzun, ba, oraiñ Yabe'k diñona: Nabot'en odola miazkatu daben to-
kian miazkatuko dabe zeure odola be txakurrak. Eta txakurrak jango dabe Jezabel be."

Eta esan ta izan. Elias igarleak aurretiaz esandako guztia bete zan andik denporakarranean.

Elias arrigarriri aldenduten da eta Eliseo izango da aren ordezkoa

139. Bere eginkizuna amaitutakoan, Elias igarlea arrigarriri aldendu zan lur onetatik. Zelan eztakigu. Jordan errekea bere ikasle Eliseo'gaz batera igaro ondoren, onek suzko gurdi baten zerurantza igoten a azkenengoz ikusi ebala diñosku Idazteunak. Eta Elias'en gogoia Eliseo'ganatu egin eban orduntxe Yabe'k. Eta Eliseo'k jarraitu eban aurrerantzean bere maisu izandakoaren arloan, bere erritarren artean **Jainkoaren gizona** izanez.

Eliseo entzutetsua da, Israel'go erregeai egindako iragarkizunakaitik. Baita berak egindako mirariakaitik be. Sarritan gogoratu ta goratu eben Eliseo, gerorantza, bere jarraitzalleak. Izan be, gauza gogoragarri asko egin ebazan.

Nok ez gogoratu, esate baterako, siriatarren gudari-buru izan zan Naaman lepraduna osatzea eta onen biotza Yabe'gana biurtu eragitea?

Naaman osatuz eta Beragana aren biotza biurtuz, gizon guztientzako dala errukiorra erakusten dausku Jaunak.

Yabe'k gaiztoak zigortu egiten dauz

140. Eliseo Israel'go igarle zala il zan Ajab errege gaiztoa, Baal, Jezabel'en guzurrezko jainkoaren bidez, israeldarren biotzak epeldu ta moteldu ondoren.

Eta Juda'ko erreñua? Zelan ete-ebizan an? Labur esateko, kili-kolo. Juda'ko erregeaz ezkondata egoan Atalia'k be, sasi-jainkoen irudiak gurtuten ebazan. Eta onexek okerbidetu zitun judarrak be.

Baña ainbeste gaiztakeriren errudunak gogor zigortu ebazan Yabe'k.

Ajab'en familikoak Jehu gudari-buruak zigortu ebazan. Aren ondorengo guztiak il zitun onek. Jezabel be il eban, erregetxeko leiotik bera botata.

Jehu'k berak il zitun Juda'ko erregea ta onen semea be. Baña Atalia ez. Onek beronek il ebazan bere birloba guztiak, bat izan ezik, erregiñetzako aginpidea iñok kendu ez egion. Bizirik geratu zan birlobatxua Abade Nausiak eskútau ebalako salbau zan. Joas eukan ize-na. Eta Juda'ko errege izan zan gero. Eta beronen bitartez jarraitu eben Dabi'ren odolekoak erregetzan. Eta Dabi'ren ondorengo bakar orren bidez jaioko zan Mesias, Dabi'ren jatorrikoen arteko famili baten.

Atalia be il eben azkenean. Yabe'ren bideetatik zintzo ebizan bazuk il eben erregiña zatar a.

Eta Jezabel ta Atalia'ren eriotz ondoren, Yabe'ren omenez eleiz-kizunak egiten asi ziran barriro be askatasun guztiz, bai Ifarraldeko erreñuan, bai Egoialdekoan.

ITAUNKETA

134. Omri erregeak nogaz ezkondu eban bere seme Ajab?
135. Jainko faltsoak gurtuteko oiturea, nok sartu eban Israel'go erreñuan?
136. Nor zan Elias? Elias'k zer esan eutsan Ajab'eri bere pekatuakaitik gogor egifnez?
137. Zelan erakutsi eban Elias'ek Yabe bakarrik zala egizko Jaungoikoa?
138. Nabot gizajoa erru barik il ebela jakin ebanean, zer egin eban Elias'ek?
139. Nor zan Eliseo? Zergaitik dogu entzutetsua Eliseo igarlea?
140. Israel'go ta Juda'ko errege gaiztoak, zergaitik zigortu zitun Jaungoikoak?



Jaio aurretik izan zaitut zu gogoan;
profeta izateko izentauta zagoz beti-betitik

Israel'go erreinuko azkenengo igarleak

141. Jeroboan bigarrena eta Ozias errege izan ziran denporan, nasai ta alai bizi izan ziran Israel'go ta Juda'ko erreinuetan.

Baña pekatu asko egiten ziran. Jaungoikoaz erdi aitzuta bizi izaten ziran sarri askotan. Aberatsak ankeratuta, ezeukiak baztertuta.

Dei egiten dautse, orduan, Jaunak igarleen bitartez. Euren biotzak Beragana biurtzeko, len txarto egindakoa parkatuko deutzela-ta; bestelan, zigortu egingo dauzala, esaten dautse Jaunak.

Aldi orretako igarleak nortzuk izan ziran eta zertzuk egin ebezan ikusi daigun, ba. Eta lenengo ta bein, Israel'go erreinuko azkenengo igarleak ezautu daiguzan.

Amos, zuzentasunaren igarlea

142. Belen ondoko artzaiñ bat izan zan Amos. Israel'go erreinura bialdu eban Jaunak, damutu eitezala angoai esatera.

Idazteunean idatzi ziran lenengo iragarkizunak Amos'enak doguz.

Gizonen arteko zuzentasunaren jagole izan zan Amos. Artu-emonetan zuzen ez ebizalako, gogor egiten eutsen bere erritarrai. Eta zuzenbidea albora itxita zelan edo alan aberastasunean bizi izateko asmotan ebizana, begira zer esaten eutsen:

"Entzun au, zuok, ezer eztaukona zapaldu eta gizajoa dana al bait ariñen garbitu gura dozuenok! Zuek esaten dozue: Laster dator garia ebagi eta salduteko sasoia. Neurria eta pixua geure aldera ipiñiko doguz. Eta ondar guztiak be salduko doguz. Makalak diruaz erosiko doguz eta pobreak ofietako pare bategaz. Eta auxe esan dau Yabe'k Jakob'en aintzari buruz: Orreik egindako ori etxat iñoz be aitzuko."

Batean Yabe, bestean guzurrezko jainkoak gurtuz, erlegiño nas-teetan ibilli barik, euren biotzak Yabe'gana biurtuteko be sarritan esan eutsen, Amos'ek bere erritarrai. Baña ez ziran onbideratuten. Eta, orduan, erbesteratuak izango dirala eta Israel'go erreñua ordun-txe ondatuko dala betiko, iragarten dautse Amos'ek:

"Auxe diño Yabe'k: Zuen jaiak gorroto dodaz; gogai-karri yataz apainkeriz eta arrokeriz beteriko zuen eleizki-zunak, jaiak eta batzarrak Iguindurik nago eta opariak eskeiñi arren, ez dautsuedaz ontzat artuko. Eta Damasko baño urriñago eroango zaituet."

143. Zigorra gañean egoan. Baña zigorraldiaz batera Mesias'en aldi zorionsua be iragarten dautse Amos'ek. Aldi pozgarri orretan egizko sifestedun mordoska bat izango da Jaungoikoaren benetako Erri:

"Auxe diño Yabe'k: Egun aretan, lurra jota dagon Dabi'ren etxea barriz jasoko dot. Zuloak zarratu eta lengo orma zarrak konpondu egingo dautsodaz, eta antxiñakoa langoa izango da."

Jaunak zigortu be egiten ditu gizonak; baña ez oneik egindako txarkerien bengantzaz, oneik ondu ta salbau daitezcan baño.

Gu salbatzea nai dau Jaunak. Eta atsekabearen bitartez, zentzatu ta onbideratu ta bere seme lez bizi gaitzean zigortzen gaitu.

Oseas, maitasunaren igarlea

144. Jeroboan bigarrena il zanean, Israel'go erreñua kili-koloka asi zan asiritar indatsuen bultzakaden eragiñez. Izan be, "Lurrarteko" deritxogun itxas-ertzerañoko aginpidea gura eben onek-eta.

Erlejiñoa be kili-koloka ebillan. Yabe gurtuten eben; baña guzurrezko Jainkoen irudiak be gurtuten ebezan. Eta nasteka-masteka, geroago ta txarrago joiazan. Baña bere erria maite eban Jaunak, eta aien biotzak Beragana biurtu eragitea gura eban. Eta ama batek lexe, samurtasunez beterik berba egin eutsan here erriari, Oseas igarlearen bitartez. Ona emen zer esan eutsan:

"Israel umetxoa zala maite izan neban. Eta Egito'tik asita egin dautsat dei nire semeari. Baña sarriago deitu ta urriñago aldenduten da. Eta Baal'eri opariak eskein-tzen dautsoz eta iruditxoak intzentzotu egiten dauz."

Neuk irakatsi neutsan oñez ibilten, Neuk eroan neban besartean. Eta laztandu gura dan umetxoa gora altzetan dan modura altzau neban, eta areri jaten emoteko ma-kurtu egin bear dan modura makurtu nintxakon... Baña Niganatuterik ez eban nai. Eta, onexegaitik, Israel'go errietako semeak ezpataz ilgo dabez. Baña Israel osoa eztot desegingo, Ni gizon ez naz-ta, Jaungoiko baño; zure er-dian nagon Jainko santua naz eta ondamendia ez yat atsegiñ."

145. Gauza asko gogoratuko dabez israeldarrak zigor-aldian, eta Jaunagana biurtuko dira. Eta aldi barri bat etorriko dala ta Jaungoikoa errukitsu agertu yakela iragarten dautse Oseas'ek. Orduan, "Neuri Erri" deituko dautse Yabe'k.

Eta, azkenez, auxe esaten dautse Oseas'ek bere erritarrai Jaungoikoaren izenean:

"Aien biurkeria Neuk osatuko dot. Eta asarrea kendu-ta, biotzez maite izango dodaz. Neuk naigabetu nebazan eta Neuk poztuko dodaz."

Oseas, maitasunaren igarlea izan zan. Eta Jaungoikoaren maitasunatzaz gauza gogoragarriak esan zitun. Senarrak emaztea maite dauan lez maite dauala Jaungoikoak bere erria, esaten eban.

Antz-irudi ederra ta sakona benetan! Arrezkero sarri erabillitakoa. Andik gizaldiak geroago eskribidu zan Idazteuneko **Abestirik ederreña** deritxogun liburu santuan batez be, agertuten da, gordin eta bizi, antz-irudi berberori. Eta olakoxe maitasun aundi ta samurra izan zan Jesukristo'k bere eriotzagaz guri, bere Eleiza edo Israel bariaren seme garanoi, agertu euskun maitasuna be.

Israel'go erreñuaren amaia

146. Israel'go erreñuaren azkenaldian, Teglatfalasar irugarrena egin zan Asiria'ko errege. Bizkorra izan zan-da, Babilonia menperatu eta beingo baten egin zan errege. Siria ta Palestina menperatze-ko asmotan be baebillan. Baña ori lortu baño len il zan.

Aren ondorengo errege izan zan Salmanasar bosgarrena, iru urtetan ibilli zan Samaria'ren inguru-minguruan, agaz jabetu nairik. Baña il egin zan, eta aren gudari-buru batek menperatu eban K. a. 721 garren urtean.

Eta igarleak esandakoa bete zan. Israel'go errege ta israeldarrik geyenak eroan zituen lotuta Asiria'ra. Eta leku askotako erbestetarrak ekarri ebezan Samariara. Eta emen geratu ziranakaz nastau ziran.

Samaritarren erlejiñoa erdi-galduta egoan, bertako ta kanpotarren naste ori egin ondoren.

Samaria jausi zanean jausi zan, ba, Israel'go erreñua be. Eta olantxe izan zan aren azkena, Jaungoikoaren Erri izateko deiari zintzo erantzun ez eutsolako. Baña, alan da guzti be, Jaunak ez ebazan bertan bera itxi israeldarrak. Igarleak egindako deiak gogoratu eragiñez lagunduko dautse.

Erbestera eroandakoen artean Tobi izeneko gizon bat izan zan oso zintzo ta goragarria.

ITAUNKETA

141. Zer egin eban Jaunak Israel'go erreñua azkenekoz zigortu aurretik?
142. Nor zan Amos? Ze pekatugaitik egin eutsan gogor bere erriari?
143. Mesias'en aldirako, zer iragarri eban Amos'ek?
144. Erria onbidera biurtu eiten, zer esan eutsen Jaunak israeldarrai, Oseas igarlearen bitartez?
145. Zigoraldi ondoren etorriko zan Mesias'en aldirako, zer iragarri eban Oseas'ek? Jainkoaren Maitasuna adierazoteko darabilen antz-irudia zein da?
146. Zelan amaitu zan Israel'go erreñua?

AMABOSGARREN IKASKIZUNA

Juda'ko erreñukoai Jaungoikoagazko eginbearrak irakasten diardu Isaias igarleak

147. Israel'go erreñua ezereztu ondoren, oindiño beste eun eta ogetamabost urtean iraun eban Juda'ko erreñuak. Ango erregeak ogei izan ziran guztiz; eta Dabi'ren jatorrikoak izan ziran guztiak. Baña Yabe-zale zintzoak lau baño etziran izan: Asa, Josapat, Ezekias eta Josias. Guztiz onberak eta jainkozaleak izan ziran, batez be, azkenengo biok. Eta erlejiño ta eleizkizunak barriztetan eta bizkortuten alegin asko egin ebezan.

Jaungoikoaren Erria bananduta egon zan denporetako Juda'ko erreñuko igarlerik aundienak, Isaias eta Jeremias izan ziran. Eta, batez be, oneixek irakatsitako gauzen eragiñez egin eben erbesteratuak euren jokabide barriztatzea, aurrerantzean, Jaunaren bideetatik ibilteko.

Isais'eri igarletzarako deia

148. Eskola aundiko mutil on bat zan Isaias. Egun baten, Jaurretxean otoi egiten egoala, Jauna agertu yakon argitasun eta aunditasunez beterik. Eta aingeruen kantua entzun eban:

"Santu, santu, santua da, izadiaren Jaungoiko Jauna; lurbira osoa Aren aintzaz beterik dago."

Isaias ikeratu egin zan. Neurribako Jaungoiko santu itsugarriaren aurrean bere burua kaskar eta zatar ikusten eban-da. Baña aingeru bat ikusi eban txingar gori bategaz berari ezpanak garbitzen eta esaten:

"Orain zure pekatuak garbituta dagoz."

Eta, orduan, Jaunaren berbea entzun eban Isaias'ek. Mandatari bat bialdu gura eban Jaunak bere errira, bere izenean bere errikoai berba egiteko. Eta auxe esan eban :

"Nor bialduko dot?"

Isaias'ek bereala erantzun eutsan :

"Neu; ementxe naukazu, Jauna; bialdu naizu."

Jaungoiko aundi aundiaren aunditasuna ta esan-eziñeko santutasuna ikusirik, biotz-ikaratuta egoan Isaias. Eta Alkartasunari egokiozan aginduak betez, Jainkoaren Erria be santuagoa izan eiten, Jaungoiko aundi ta santuagazko eginberrak irakasten asi zan Juda'ko erreñuan, ordutetik aurrera.

Isaias Emmanuel'en etorrera iragarten

149. Juda'ko erreñuko errege txarretariko bat izan zan Ajaz. Asiria'ko errege Teglafalasar'en kontra egiteko, laguntza eskatu eutsan, beñola, Damasko'ko erregeak. Eta oneri zer erantzun ezekiala aurkitu zan Ajaz. Baña, bienbitartean, Jerusalem'erantza etorri zan Damasko'ko erregea, uri santua menperatzeko ustean. Eta Dabi'ren jatorria desegiteko arriskuan aurkitzen zala-ta, dar-dar egozan jerusalendarrak.

Uste osoa Jaunagan ipinteko esan eutsan, orduan, Isaias'ek Ajaz'eri; bildurrik ez izateko eta, aiko-maikoetan ibilli barik fede biziz, Jaunagan bakarrik itxaroteko, lagunduko eutsela-ta; eta ezbaian baegoan, ezaugarri bat Jaunari eskatuteko.

Baña fedebako gizona zan Ajaz. Eta ez eutsan egin kasurik Isaias'eri. Orduan, onek auxe esan eutson :

"Gizonentzat ezeze, Jainkoarentzat be iguingarri izan nai dozu ala? Entzun egizu, ba: "Jaunak Berak erakutziko dautsu ezaugarri bat (bere Erria zainduten dauala ikusteko). Ara; neska birjiña batek ume bat izan dau eta Emmanuel, au da, "Jaungoikoa gugaz" deitzen dautso."

Jauna bere Erriagaz dago beti. Orixe adierazoten dausku iragarkizun eder orrek.

Eta Isaias'ek gizaldi asko aurretik esandako iragarkizun pozgarri ori, guztiz bete zan, Dabi'ren jatorriko Nazaret'eko neskatilla bagandik, Maria Birjiñagandik, Jesukristo jaio zanean.

Esana pozgarria zan; izana pozgarriagoa. Eta oin bai esan daikegu, benetan, guk Jainkoaren errikook: "Jaungoikoa gugaz dago."

Goazan aurrera. Ikus daigun Ajaz'ek zer egin eban.

Isaias'en alegin guztiak alperrekoak izan ziran. Ajaz'ek entzungor egin eutsan, ez zan fietan Jainkoagaz-da. Eta Jerusalem'go uri santua Jainkoaren laguntza barik zaintzeko asmotan, asiritar indartsuai eskatu eutsen laguntasuna.

Eta oneixek librau eben Jerusalem damaskotarren eskutik. Baña ordutik aurrera, Asiria'ko erregearen menpean eta zergapean egon bear. Eta aren gogoko izateko ta a pozik eukiteko, uri santuan bertan, guzurrezko jainkoentzako jauretze bat egiteraño be eldu zan Ajaz.

Aurreko Ikaskizunean ikusi dogunez, ortik lasterrean jausi eta desegin zan Israel'go erreñua, Asiria'ren aurka egiteko Damasko'gaz alkartu zalako.

Ezekias erregea ta Isaias

150. Ajaz'en urrengo, Ezekias aren semea izan zan Juda'ko errege. Errege ona izan zan. Eta bere aitak egindako okerrak zuzenduten alegindu zan. Isaias igarlea bere ondora ekarriz, onen kontseju ta erizpidepean ibilli zan, olantxe Jaungoikoaren borondatea beti egifñez. Begira errege zintzo orretzaz Idazteunak zer diñon :

"Zuzen ibilli zan Yabe'ren aurrean, bere aita Dabi lez."

Barrizatze aundiak egin zitun Ezekias'ek Juda'n: Jauretzea barritu; eleizkizunak atondu; guzurrezko jainkoen jauretzeak bota; irudiak apurtu ta abar. Baita, gizaldiz gizaldi, aoz-ao erabillitako edo idatziko lege ta erlejiño oiturak batu be egin ebazan. Biblia Santuko lenengo bost liburuetan daukaguz (**Bost-Idazti**).

Beti Jaungoikoaren borondatea egin gurarik, beste gauza on asko be egin zitun Ezekias'ek erriaren onerako, Isaias'ek esandakoari egokionez :

"Gaiztakeria itxi ta on egiten ikasi egizue. Zuzen ibilli zaitze. Txarto egindakoari ordaindu. Umezurtz eta alargunari lagundu, euren eskubidea zainduz."

Erria ondo zainduteko, aparteko laguntasuna artu eban Ezekias'ek Jaungoikoagandik. Olantxe saritu eban Jaunak errege on eta zintzo au. Eta azkenaldian be luzatu egin eutsan bizitza Jaunak, gexorik txarto egoan baten, ak biotz-biotzez otoitz egin ondoren.

Isaias'en irakaskintzak

151. Isaias'en irakatsiak asko dira. Baña, ona emen, aundienak eta sakonenak:

1'goa) Jaungoikoa esan-ezikeño aundi ta santua da. Gizonak ezereza dira Jaungoikoaren ondoan. Orrexegaitik esaten dautso Isaias'ek Yabe'ri **Israel'go Santua**.

2'garrena) Jaungoiko Santuak egizko fede ta santutasuna eskatuten dautso bere Erriari. Eta eleizkizunak azalez eta itxuraz apañi eta bikaiñ egitea bakarrik, ezta santu izatea. "Erri onek ezpane z guratuten nau, baña bere biotza Nigandik urrin dago. Olan alperrik gurtzen nau." Jaunagan uste osoa eukiz, biotz garbiagaz eta zuzen ibiltea da, batez be, santu izatea.

3'garrena) Beste erri guztiak baño maiteago izan dau Jaungoikoak bere Erria. Eta bere begiko masti bat legez jagon dau. Baña bere Erriak esker txarra erakutsi dautso: "Nire mastia atxurtu, arriak andik kendu eta onenatariko matsondoak sartu nebazan bertan. Eta itxaron nitun mats morda gozoak egin bearrean, sasi-mats garratza egin zan."

4'garrena) Mundu ontako erri indartsu ta altsuakaz alkartu ta aien laguntza billa ibilli barik, euren fede ta uste osoa Jaunagan euki bear dabe gizon guztiak, batez be, Jaungoikoaren Erriko agintariak.

5'garrena) Jaungoikoak esanari kasurik ez egiteagaitik, Samaria birrindua izango zala iragarri eban. Eta Jerusalem be zigortua izango zala, Israel'go Jainko Santuari atzea emon eutsolako.

Isaias'ek Mesias'eri buruz egindako iragarkizunak

152. Dabi erregearen jatorrikoen artetik jaioteko zan Mesias'eri begira egoan erriaren itxaropena bizkortzen eta sendotuten egiñalak egin ebazan Isaias'ek.

Emmanuel'en iragarkizun aundi ta pozgarria len azaldu dogu. Baña beste gauza asko be esan ebazan Isaias'ek Mesias'etzaz.

Jainkoaren Erri kutuna zigortua izango zala iragarri eban. Iñoren azpian katigu egongo zala ta zigorraldi orrek bere senera etorriarazoko eutsala. Eta, orduan, Emmanuel eritxon Mesias azkatzallea etorriko zala eta onen erreñua, gizon guztientzako, ta bakezkoa ta betikoa izango zala. Ona emen Isaias'en berbak:

"Azkenaldian, itxasorako bidea eta Jordan errekearen bestekaldea eta guzurrezko jainko zaleen Galileako lurral-

deak aintzaz betetuko ditu Jaungoikoak. Illunetan ebillan erriak argi aundi bat ikusi dau. Poza ugaritu egin dozu. Aiek lotuten zitun buztarri astuna apurtu dozu. Ume bat jaio yaku eta seme bat emon yaku-ta; agintaritzta dakar ak bere lepoan eta aren izena Kontseju-emolle arrigarri, Jainko indartsu, betiko Aita, bakearen Nausi."

Mikeas igarlea

153. Juda'ko erreñuan beste igarle bat be baegoan Isaias'en denporan. Mikeas izan zan. Eta beronek iragarri eban Mesias non jaioko zan:

"Eta zu, Belen, Juda'ko bazter ori, ez zara ez Juda'ko nausietan txikiena, nire erri Israel zuzenduko dauan Agintaria zeugandik sortuko da-ta."

Isaias'en eriotza

154. Ezekias eregea K. a. 687'garren urtean il zan. Eta andik lasterrean il zan Isaias igarlea be. Manases errege gaiztoaren eskuetan il ei zan, oñazez josita. Jaungoikoaren ordezkio testigu jatorra izan zan Isaias. Errege oker eta anker baten ondoan egon arren be, Jaungoikoaren mandatari zuzena izan zan azkenerarte. Esan eta egin, izan zan aren bizitza.

Mesias'eri buruz, gauzarik pozgarrienak berak esan ebazan. Eta bere ikasleak irakatsi eutsezan urrengo gizaldietakoai, euren maixu jakituna izan zanaren irakatsiak.

ITAUNKETA

147. Isaias'ek eta Jeremias'ek irakatsitako gauzen eragiñez, nortzuk artu ebazan bide barriak?
148. Non eta zelan entzun eban Jaungoikoaren deia Isaias igarleak?
149. Jerusalem menperatuteko ustean Damasko'ko erregea etorrela, zer esan eutsan Isaias'ek Ajaz'eri? Zein da Emmanuel'en iragarkizuna?
150. Nor zan Ezekias?
151. Zeintzuk dira Isaias'en irakaskintzarik aundienak?
152. Mesias'eri buruz Isaias'ek esandako zerbait esaizu.
153. Eta Mikeas'ek, zer esan eban Mesias'en gañean?
154. Isaias zelan il zala esaten dabe? Eta aren irakatsiak nok zabaldu ebazan gero?

Jeremias igarleak alkartasun barri bat iragarten dau.

155. Juda'ko erreñuan bizi izan zan Jeremias igarlea be, Jesukristo jaio aurreko zazpigarren gizaldiaren azkenerantza.

Jerusalen eta bere aberriaren ondamendia iragarri eban. Eta ikusi be egin eban berak.

Euren pekatuakaitik gogor egiten eutsen bere erritarrai-ta, ez eben onek ondo artu a. Baña, gero, erbestean aurkitu ziranean bai, ostera; Jeremias'ek esandako gauzak ondo gogoratu ta ausnartu zitu en orduan. Izan be, erbestaldiaz gañera, beste gauza asko be esan ebazan Jeremias'ek-eta. Erbestetik etorri be egingo zirala esan eutsen. Eta Mesias etorri eitenean, bakea ta zuzentasuna ekarriko ebazala, eta Jaungoikoak Alkartasun Barri bat egingo ebala gizonakaz.

Sofonias, Naun eta **Abakuk** be Jeremias'en aldiko profetak izan ziran. Idazteunean ikusi daikezuz onein iragarkizunak be.

Jeremias'eri igarletzarako deia

156. Jeremias Jerusalem ondoan bizi zan. Eta eleizgizon arteko famili bateko semea zan. Egun baten Jaungoikoaren berbea entzun eban:

"Jaio aurretik izan zaitut zu gogoan, igarle izateko izentauta zagoz beti-betitik."

Eta auxe erantzun eutsan Jeremias gazteak:

"Baña ni zelan? Nik berba egiten be eztaikit, Jainko Yabe, nire Jaun ori! Ni oindiño mutiko bat naz."

Orduan Yabe'k, aren ezpanak ikutu ta esan eutsan:

"Begira, agoan ipiñiko dautsudaz nire berbak."

Eta Jeremias Jaungoikoaren igarle izaten asi zan.

Juda zigortua izango da bere pekatuakaitik

157. Ezekias zintzoaren semeak, eta beste errege asko be, gaiztoak izan ziran. Eta jakiña, erria be gaiztotu egin zan. Baña geroago ta txarrago ibilli arren, ez kezkatuteko eta orregaitik ardurarik ez artuteko esaten eutsen guztiai sasi-igarleak. Orixe zan aundiena!

Alako baten, Josias izeneko errege on bat be agertu zan. Egun baten, liburu moduko papel mordo biribil bat topau eben orma zulo baten, Josias'en aginduz Jauretzea konponduten ebizan beargiñak. Eta erregeari eroan eutsen. Zer izan zan badakizu? Moises'en Legea. Antxiña gordetako orri areitan Moises'en Legea egoan idatzita. Orain, **Bigarren Legea (Deuteronomi)** deritxogun Idazteuneko liburu santuan agertzen dana.

Lege santu ori aitzuta eukan erriak. Eta, onexegaitik, jo ta ke ibilli zan Josias, Jaungoikoaren Legea gogoratu ta bete egian erriak.

Baña gitxien uste zanean il zan Josias, erlejiño-barriztatzea egiten ebillela. Jeremias'ek jarraitu eban lan orretan. Baña iñok be ez eutsan jaramonik egiten. Eta orduan zigor aundi bat iragarri eban Jeremias'ek:

"Lurralde onetara ekarri zindudazen —esaten eutsen Jeremias'ek Jaungoikoaren izenean—; emeko janari ta edari gozoak jan ta edateko. Zuok, ostera, ona sartu ta saskeldu ta txarrikeriz bete dozue. Arritu zaitze zeruok! Zitalkeri bi egin ditu nire erriak; Ni, ur biziaren iturria bertan bera itxi nau, eta urik eztagon lekura joan da ur-billa. Eta "ez naz loitu" diñozu oindiño gañera. Ai! ikusiño dozu "nik eztot pekaturik egin" esateagaitik zer egingo dautsudan..."

"Entzun, ba, Yabe'ren berbea da-ta. Aurretik emon neutsuen aitzen, eta ez zeusten kasurik egin. Ara zer egitera noan orain: Jauretzea dozuela ta arro ta uste osoz egon arren, zuen Jauretze ta zuen gurasoi emon neutsen lur oneri, Israel'go erreñuari egin neutsana egingo dautsat oraintxe. Eta, zuen anaiak eroan ebezan lez, eroango zaitue zuok be nire aurretik."

Juda'ko erreñuaren azkenaldia

158. Asiriatarak menperatu ondoren, lurralde aretako inguru guztien jabe egin ziran babiloniatarrak. Eta judarrak be Babilonia'ko

erregearen aginpidepean egoten ziran. Baña beti ez; ejitoarrakaz alkartuten ziran batzutan babiloniatarren kontra ekiteko.

Baña, azkenean, Nabukodonosor Jerusalem'era sartu zan, eta ango jaun ta jabe egin zan beingo baten. Eta Jauretzeko ondasun guztiak ostu ebazan. Eta erregea ta errege-lagun eta Juda'ko langille ta aundikirik geyenak eroan zitun lotuta Babilonia'ra. Ezekiel igarlea be orduntxe eroan eben.

Babiloniako erregearen aurka ez joateko eta pekatuakaitik damututeko esaten eutsen Jeremias'ek, aldi orretan, judarrai. Baña onek ez-entzun egin eutsen. Edo obeto esanda, ori esateagaitik kartzelara sartu eben, ixillean eta azpikeriz babiloniatarren alde jokutzen ebalu Jeremias'ek uste eben-eta.

159. Babiloniatarrak errege barri bat ipiñi eben Juda'n. Sedezias eritxon bat izan zan. Eta Jeremias'en deiak entzun arren, ejitoarrai eskatu eutsen laguntasuna, babiloniatarren menpetik urtetea gura eban-da. Eta Jeremias'ek esanari kasurik ez egiteak ondatu eban.

Judarrak esanekoak ez ziralako, Nabukodonosor asarratu egin zan. Eta bere gudari-taldeakaz etorri zan, barriro, Jerusalem'era, bein ta betiko a birrinduta izteko gogoz.

Eta orduntxe bai artu eben estu Jeremias beronen erritarrak. Babiloniatarren laguna zala-ta, aurrean erabilli eben; ur barik egoan ur-zulo batera be sartu eben baten. Eta, alan da guzti be, Nabukodonosor'en esanean ibilteko esaten eutsan Sedezias'eri, bestelan Jerusalem auts biurtuko ebalu ak-eta.

Jerusalem'en ondamendia

160. Ejito'k lagundu arren, Juda ez zan iñor Babilonia'ri arpegia emoteko. Eta laster jausi zan onen eskuetara. Jerusalem ondora eldu ziran babiloniatarrak eta bere inguruan egon ziran amazortzi illebetean. Eta azkenean, barrura sartu ziran. Kristoren aurreko 586' garren urtea zan.

Sedezias erregearen semeai eta aundiki guztiai burua kenduteko agindu eban Nabukodonosor'ek. Sedezias'eri berari begiak atara eutsozan eta kateiakaz lotu eban eroateko.

Jerusalem'go uria ustuta itxi eben babiloniatarrak. An egoan guztia arrapau eben; Jauretxean egozan balioko gauza guztiak artu eta gero sua emon eutsoen areri; bardin egin eben errege-etxe ta gañerako etxeetan be: zerbait balio eban gauzea ostu, gañerako gauza guztiak austu.

Judarrak millaka eroan ebezan lotuta Babilonia'ra. Solo ta landa ta mastiak zainduteko ta landuteko bear ziranak bakarrik gelditu ziran Juda'n.

Jeremias igarleak esana bete zan. Jerusalem ederra deseginda, ezereztuta, geratu zan, basamortu bat lez. Judarrak errege barik, altara barik eta Jauretze barik egozan orañi. Erriaren itxaropena izan zan Yabe'ren Toki Santu barik! Olantxe izan zan Juda'ko erreñuaren azkena.

Erostak deritxogun Idazteuneko liburu santuan ikusi daikeguz egun areitako naigabe ta biotz-mifi ta aienak.

Jeremias Alkartasun Barriaren igarlea

161. Jeremias be erbestera eroateko izentauta egoan. Baña, azkenean ez eben eroan. Eta berak nai eban lekura joateko baimena be emon eutsoen. Eta Jerusalem'era joan zan barriro. Eta bere erriaren ondamendia ikusirik, negar egin eban. Eta andixe bizkortu ta adoretu zitun, guztiz kikilduta eta ezertarako gogo barik egozan judarrak.

Baña luzaro ez zan egon Jerusalem'en. Ara zergaitik: Agintari modura Godolias izeneko gizon bat itxi eben babiloniatarrak Jerusalem'en. Eta egun baten, il egin eben. Eta a garbitu eben judarrak Ejito'ra egin eben anka. Eta nai ta nai ez, Jeremias be eurakaz eroan eben. Eta antxe il zan, ainbeste ta ainbeste bider bere erritarrai dei egin ondoren; euren biotzak Yabe'gana bakarrik biurtzeko makiña bat bider alperrik esan ondoren.

Jainkozale ta errizale jatorra izan zan Jeremias igarlea. Eta bere biziera, deiera bat izan zan guztientzako, geyenetan aintzakotzat artu ez arren.

Jeremias'en ikasle izan zan **Baruk**'ek idatzi ebazan ak esandako gauza asko.

Bere aberriaren ondamendia iragarri eban Jeremias'ek; baña erbesteratuak poztu be egin ebazan, aiei barri kontsolagarri batzuk esanaz. Irurogetamar urtegarrenean barriro be euren lurraldera etorriko dirala iragarten dautse:

"Auxe diño Yabe'k, Israel'go Jainkoak: Neuk batuko dodaz bizirik gelditu diran eta aldenduta ta bananduta dagozan nire artaldeko ardiak eta euren landetara ekarriko ditut. Eta azi ta ugaritu egingo dira. Eta artzaifñ onak aukeratuko dautsedaz, zaindu daiezan. Eta eztira barriro

bildurtuko; ezta larritu edo samindu be. Badatoz egunak; Dabi'ren ondorengo zuzen bat sortuarazoko dotan egunak badatoz. Errege zurra izango da. Eta zuzentasun eta zintzotasun bidetik eroango ditu guztiak. Aren egunetan salbauko da Juda, eta Jerusalem bakez bizi izango da, eta beronen izena "Yabe, gure zuzentasuna" izango da."

Jaungoikoak gizon guztiakaz Alkartasun Barri bat egingo ebala be iragarri eutsen Jeremias'ek:

"Entzun, Yabe'ren Itza: Alkartasun Barri bat egingo dot nire erriagaz. Baña ez antxiña egin nebana langoa. Nire Alkartasun Barria auxe izango da: Nire Legea euren barruan ipiñiko dot eta euren biotzetan idatziko dot. Eta Neu izango naz euren Jaungoiko, eta eurak izango dira nire erri."


Jesukristok egin eban Alkartasun Barri ori, il eta berbirtu zanean.

Eta Bateoko sakramentuaren bitartez, Kristogaz alkartu gifñanian egin gendun geuk be Alkartasuna Jaungoikoagaz. Eta orain, Espiritu Santuaren laguntzaz, batez be Meza Santuan barriztetan dogu Alkartasun ori.

ITAUNKETA

155. Jeremias'ek esandako gauzak, noiz gogoratu ebezan bere erritarrak?
156. Noz eta zelan deitu eutsan Jaungoikoak Jeremias'i, igarle izateko?
157. Josias erregearen erlejiño barriztatzea azalduizu.
158. Zer iragarri eutsen Jeremias'ek judarrai euren okerkeriakaitik?
159. Babiloniatarren esanean ibilteko esan ebalako, zelan artu eben Jeremias'?
160. Zer esan eutsan Jeremias'ek Sedeziak erregeari, arerioak Jerusalem ondatu ez egien?
161. Zelan izan zan Jerusalem'go ondamendia?
162. Alkartasun Barriaren igarlea, zer dala-ta esaten deusagu Jeremias'i?

JAINKOAREN ERRIA
ERBESTEAN



SEIGARREN ALDIA

JUDARRAK ERBESTETARREN MENPEAN

(K. a. 586'garren urtetik Mesias jaio arte)

SARRERA

162. Jerusalem'go triskantzea izanda gero, erbestetarren eskuetan egon zan Palestina.

Lenengotan, babiloniatarrak izan ziran judarren nausi; urrengo, persiatarrak; gero, greziatarrak eta, azkenez, erromatarrak.

Erbestetarren azpian bizi izan ziranean, sarriagotan gogoratu

eben judarrak Jaungoikoa eta On ek bere erriagaz egindako guztia. Eta Jaungoikoaren Erriaren bizibideari egokionez bizi izaten asi ziran, oindiño uts eta laprastada asko egin arren.

Eta, olantxe, "denpora betetzerako" moldatuaz joian Jaungoikoaren Erria, izan ziran eta izango ziran gizaldi guztietako unerik aundiena izan zan Kristo'ren etorrerarako prest egoteko.

ITAUNKETA

162. Zelan preparau zan Jainkoaren Erria. Mesias'en etorrerarako?

*Jainkoak bere Erria ezi ta barriztau
egiten dau erbestaldian*

163. Jaungoikoaren Erria, Yabe'ren esanean zintzo etzan ibilli. Eta gorriak ikusten ebazan oraiñ erbestean. Eta antxe gomutetan ditu igarleak esandako berbak. Esana izana biurtu zan. Igarleak aurretik esan eben guztia bete zan. Eta errege barik, Jauretxe barik eta aberri barik aurkitzen ziran oraiñ.

Baña bertanbera ez ditu itxiko Jaunak. Ez; Jauna zintzoa da eta Salbaziño egintzan diardu beti, ta agindutako guztia emongo dautso bere erriari. Augaitik, erbesteratutako judarrakaz erri barri bat egi-tea nai dau.

Jerusalen'go judarrak

164. Judar asko ta asko eroan ebezan katigu babiloniatarrak. Baña ainbat geratu ziran oindiño Jerusalem'en bertan be. Eta antxe egiten zituen zelako-alako eleizkizun batzuk, erbestera joan barit gelditu ziran abadeakaz. Eta Erri ta uri santuaren ondamendiagaitik illeta-kantu penagarriak abestuten ebezan.

Baña Yabe'gaz egindako Alkartasuna aitzurik, lenagoko aginpi-de ta anditasuna ta indarra euki gurarik be baebizan makifña bat. Jaunaren bideetatik aldentuta egozan, eta gauza gatxa zan Jaunak gura eban erri barri bat egitea oneikaz.

Babilonia'ko judarrak

165. Batean ta bestean, Babilonia guztian zabaldua bizi ziran. Batzuk urian egozan, kartzelan edo morroi-bearrak egiten. Errekondetan, txaboletan be bai beste mordo batzuk. Salmo baten agertuten da aien biotz-miña; begira:

"Babilonia'ko errekoedoetan jesarrita gengoan,
eta Sion gogoraturik, negar egiten gendun.
Soñu joteko kitarak saratsetatik eskegita izten genduzan.
Soñua jo ta kantatzeko ta poztuteko esaten eunskuen
ara lotuta eroan eta euren menpean euki ginduezan
lurralde aretakoak:

"Sion'go abesti batzuk abestu egiguzuez."

Baña guk ezin kantau izan gendun;

Izan be, Yabe'ren kantuak erbestean zelan abestu?"

Laster joango zirala barriro be euren lurraldera uste eben, lenen-
gotan, judarrak. Eta bertakotuterik ez eben nai. Eta au zala-ta, karta
bat bialdu eutsen Jeremias igarleak. Etxe barriak egin eta lurrak
landu, ezkondu eta ugarituteko esaten dautse; ez pentzetako oindiño
etortterik, bertan bizi eta ainbat arifien bertakotutea baño.

Eta orixe egin eben egin be. Astiro-astiro ango egin ziran. Babi-
loniatarren izen eta idazkera ta egutegia artu ta erabilli zituen. Eta
urteak joan, urteak etorri, euren gurasoen berbeta aitzu ta babilo-
nitarrena ikasteraño be eldu ziran. Eta eberkera itxi, aramera artu,
auxe izan zan aurrerantzean Jaungoikoaren Erriaren izkuntza.

166. Babiloniatarren jakituri ta aurrerakuntza ta aunditasuna
ikusirik, arrituta, ago zabalik egozan judarrak, beti inbidiz beterik
goikoari begira.

Baña tentaldirik aundiena eta gogorrena erlejiñozkoa izan zan.
Eleizbira ikusgarriak egiten ebezan babiloniatarren euren guzurrezko
jainkoen irudiak artuta. Eta Bel jainkoa, Yabe baño indartsuagoa zala
esaten eben kantetan. Ori entzunik, lurra jota gelditzen ziran judar
asko. Eta batzuk esaten eben:

"Ez ete-da egia ori? Izan be, Yabe aitztuta dago; Bera-
ri eleizkizunak egitea galazota... Bere erriagaz batera jau-
si ete-da, ba?"

Tentaldi gogorra izan zan ori, bai, judarrentzat. Baña ez ete-da
orixe berori gure tentaziñoa be sarri askotan? Ez ete-doguz esaten
edo pentzetan geuk be, "non dago gure Jaungoikoa?" egia ete-da...?
ta olako gauzak, Jaungoikoaren bear izana barik, diruz beterik eta
aundikiro, eta ondo ta pozik bizi dirala gure aurrean beste batzuk
ikusirik?

Ezekiel igarlea erbestetuen gogoak berotuten

167. Jeremias igarlea lez, Ezekiel igarlea be Jerusalem'go aba-
deen tartekoa izan zan. Eta, len esan dogunez, 597'garren urtean er-
besteratu ebezan lenengo judar taldeagaz batera eroan eben lotuta
Babilonia'ra. Eta orduntxe iragarri eban Ezekiel'ek bere erri osoaren
ondamendia.

Bere anaien gogo-biotzak bizkortzen eta berotzen asko egin eban
Ezekiel'ek. Ona emen, biotz-jausita eta bizi-poz barik bizi izan ziran
erbestetuen itxaropena biztu ta barriztuteko Ezekiel'ek esandako gau-
za batzuk:

1'go) Salbaziño bidea, damutasuna da. Damutasunez beterik
Beraganatu daitezanean salbauko ditu Jaunak.

2'garren) Urez garbitu eta Espirituaren doiez santutuko dauz
Jaunak:

**"Biotz barri bat emongo dautsuet eta gogo barri bat sartuko
dautsuet barruan. Arrizko biotza zuei bularretik kendu eta aragizko
biotz bat emongo dautsuet. Zuen barruan nire arnasa ipiñiko dot,
nire aginduak jagon eta bete dagizuezan. Eta nire erria izango zarie
eta ni zuen Jaungoikoa izango naz."**

3'garren) Jaungoikoak artzain zintzo bat bialduko deutse, ar-
tzain bakarra, Dabi barria.

4'garren) Jauretxe barrian egongo da Jauna, euren lagun iza-
teko, barriro be.

5'garren) Alkartasun Barria egin daitenean, guztientzako edo
senitarteko diranentzako zigor bardifnik ezta izango; pekatu egin da-
gian bakotxa bera bakarrik ondatuko da.

6'garren) Mesias'ek sortuko dauan erreinu barria gizon guz-
tientzako izango da.

Balez be, Jaunak berari erakutsitako ikuskizun bat aitatu eutse-
nean poztu zitun Ezekiel'ek erbestean beragaz egozanak. Ona emen
ikuskizun ori:

"Azurrez beteko zelai bat ikusi eban Ezekiel'ek.

Eta Espirituaren arnasearen eragiñez, azurrak bata
besteagaz alkartuten asi ziran. Gero, zanez, aragiz eta na-
rruz jantzi ziran. Eta, azkenez, aretan bizi-arnasa sartu
zan barriro. Eta zutundu egin ziran guztiak eta gizatalde
itzal bat agertu zan."

Zer esan gura ete-eban ikuskizun orrek? Yabe'k Berak emon eutson erantzuna Ezekiel'eri. Begira:

"Azurrok, Israel'go etxe osoa dira. Eta "gure itxarotea alperrekoa da, gure azurrak igartuak izango dira, galduak gara", esaten dabe. Baña entzun Yabe'ren berbea: Ona emen Ni, zuen illobiak edegi eta aietatik zuek atara egingo zaituet, Israel'go lurraldera barriro eroateko."

168. Ikuskizun eta azalpen orrek judar asko poztu zitun. Eta itxaropidea ta poza erbestetuai ekarri ondoren, Babilonia'n il zan Ezekiel, 570'garren urtean, bere zeregin gogorra ondo bete dauan gizon zintzoar'en bakeagaz.

Daniel igarlea be ibilli zan, Babiloniako urbideetako judar orreik animetan. Eta auxe esaten eutsen: Naigabearen bitartez ezi gura ebazala Jaungoikoak, olantxe euren biotzak Beragana biurtu egiezan.

"Liburu Pozgarria"

169. Urteak aurrera joiazan. Babilonia'ra eroandako judar asko il ziran; zarrak, batez be. Egunen baten, barriro be, euren Israel'go lurraldera biurtuko zirala baña..., noz? Egia izango ete-zan profetak esandako ori? Ezbaian egozan asko.

Eta orduan Israel'go "Liburu Pozgarria" deritxoguna idatzi eban Isaias'en irakatsiai jarraitzen eutsan igarle batek. Isaias igarlearen liburuko 40'garren atzalburutik 55'garrenerarteko zatia da "Liburu Pozgarri" ori. Eta askatasuna laster lortuko ebela, dirautse igarle orrek erbestean egozan judarrai; Ziro, Persia'ko erregearen bitartez askatuko zitula Jaungoikoak-eta. Ona emen, aren iragarkizun eder batzuk:

"Poztu, poztu egizue nire erria, diño zuen Jaungoikoak. Bizkortu egizue Jerusalem, eta deadarka esaiozue iñoren azpian egonbearreko erbestaldia amaitu dala, eta pekatuak parkatu yakozala. Zabaldu egizue bide bat basamortuan, Yabe igaro daiten."

"Liburu Pozgarri'ko" Israel eta Mesias

170. Israel, Yabe'ren Serbitzaria erbestean dago. Antxe diardu, nekez beterik, bere pekatuak ordaintzen, zikinkeriak garbitzen, sufrimentuaren bidez bere salbazioa eskuratuten. Eta ori ikusirik, Ya-

be'ren beste Serbitzari bat datorko gogora igarleari; bere oñazeen bitartez mundua salbauko dauan Salbatzalea darabil buruan. Eta Yabe'ren Serbitzari au gogoan dauala, auxe diño:

"Ez dauko itxurarik, ez edertasunik, Areri begira egoteko. Baztertua izan da; gizonetan azkenekotzat artua. Nekea zer dan ondo daki, oñaze biurtuta dago-ta. Geure gaiztakeriakaitik zauritu dabe; geure pekatuakaitik, apurtuta itxi dabe. Eta Arexen zauriak osatu gaitue."

Yabe'ren Serbitzari ori izango da Israel'en Salbatzalea.

Eta Israel salbauta ikusirik, auxe diño igarleak pozaren pozez oika:

"Poztu zaitte, Jerusalem, eta zabaldu egizu zure etxearen esparrua, eskoi-ezkerretara ugarituko zara-ta. Poztu zaitte, zure ondorengoak lurreko erri guztien jabe egingo dira-ta."

Jesukristo gure Salbatzalea da Yabe'ren Serbitzari ori. Eta Eleizea da Israel Barria.

Eta, aldi aretan, erriaren sufrimentuen bitartez, Jerusalem barri bat sortu zan lez, Jerukristo'ren Nekaldiaren bitartez sortu da Eleizea be.

Judar zintzoen, itxaropide ta ameseak aldatu egin ebazan Liburu Pozgarriak. Munduko errege altsu edo aundikien artekoren bat ez zan izango etorteko zan Mesias Salbatzalea, beartsu ta pobreen artekoa baño, igarleen gogo ta adorez betea.

Erbestaldiaren irakatsiak

171. Erbestean egozan judarrak batzar batzuk egiten asi ziran. "Sinagoea" esaten eutsen otoi-tz-etxe batzutan batuten ziran. Moises'en Legea eta igarleen irakatsiak leiduten ebezan antxe. Eta azaldu be bai gero guztien artean.

Ibilli ta ibilli, gauza asko gogoratu zituen. Eta Jaungoikoak esana ta egiña ikusirik, judar on eta zintzo asko alkartu ziran Jerusalem'era joateko ustez. Mesias askatzaillea laster etorriko zala-ta itxaropenez beterik egozan. Laster etorriko zan etorri be gizon guztien Salbatzalea.

172. Jaunak gauza asko irakatsi ta erakutsi dautsez judarrai erbestadiagaz. Baita geuri be. Batez be auxe: Naigabeen bitartez, ezi ta osatu egiten gaitula.

Maite gaitu Jaunak. Eta orrexegaitik zigortzen gaitu batzutan; sufrimentuaren bitartez barriztauta, onbideratu ta salbau gaitazan.

ITAUNKETA

163. Jaungoikoak zergaitik ez ebazan itxi bertanbera erbesteratuak?
164. Zelan bizi ziran, Jerusalem'en bizi ziran judarrak?
165. Eta Babilonian' bizi ziranak?
166. Erbesteratuentzako tentaldirik gogorrena, zein izan zan?
167. Erbestean egozan judarrak, zelan poztu zitun Ezekiel'ek?
168. Zer irakatsi eutsen Daniel igarleak erbestean egozanai?
169. Zer zala-ta eskribidu zan Liburu Pozgarria? Eta zer lortu eban?
170. Zelan preparau ziran erbestean egozanak, Mesias'en etorrerarako?
171. Erbestaldia gogoratuaz, zer ikasi daikegu?

AMAZORTZIGARREN IKASKIZUNA

Jainkoaren Erriak biziera barri bat artzen dau

173. Esnea irazi egiten dogu zaborrak kenduteko; garia galbaitu egiten dogu galautsa kenduteko. Jaungoikoaren erriaren iraztekoa edo galbaia, erbestaldia izan zan. Eta erbestaldiak asko garbitu zitun judarren zentzungabekeri ta okerkeriak.

Eta igarleak esan ebenez, erbestaldia amaitu zan, alako baten. Eta judarrak euren aberrira datoz barriro. Eta Jaungoikoaren Erriari dagokionez, Jaungoikoaren bideetatik ibiltea nai dabe.

Biziera barrizatze ori aldatz gora egingo yake. Baña Jaungoikoak lagunduko dautse zintzotasun-bidetik joaten, geuri lagunduten dauskun lez, Kristau jatorragoak izaten aleginduten garanean.

Babiloniarren menpetik urtetzea

174. Kristoren aurreko 539'garren urtean jausi zan Babilonia aundia. Aldi aretan Persia'ko errege izan zan Ziro'k azpiratu eban. Eta arin bereganatu eban babiloniarren gogoia be; erria ta agintari barria beingo baten adiskidetu ziran.

Urrngo urtean, baktxa bere erri aldera joateko askatasuna emon eutsen Ziro'k erbestetar guztiai. Eta, or datoz, 537'garren urtean, aldrraka, 40.000 milla judar inguru, basamortuan-zear, Palestina'rantza, Dabi'ren jatorriko Zorobabel izeneko gizon bat buru ebe-la. Abadeak be baetozan asko eurakaz.

Gizaldi asko aurretik egitoarren menpetik atara ebazan lez, oraiñ be askatu egiten ditu Jaunak erbestean egozanak. Baña, oraiñ ur egoan Jaungoikoak egindako agintza guztiak egiñ-egifiean beteko ziran aldi zoriotsua.

Aberriratu en lenengo arazoak

175. Babilonia'tik etorri ziranok, Jerusalem'en eta onen inguruetan gelditu ziran. Eta bakotzak al ebanez, etxea artu eta zelan edo alan bizimodu barriari arpegia emoten asi ziran.

Eta berealaxe atondu ebezan eleizkizunak. Eta antxiña Jauretzea egondako zelai-unea be garbituta ipiñi eta altara bat egin eben antxe, Yabe'ri opariak eskeintzeko. Gero, Jaungoikoaren etxe barri bat egi-teko zimenduak egin zituen. Eta au zala-ta, jai aundi bat egin eben Yabe goratuz; abadeak soñua jotzen eben eta erriak kantau egiten eban.

176. Baña pozaldi ori laburra izan zan. Erbestera joan barik geratu ziran judarrak aien aurka jarri ziran, eta ez eutsen bape lagunduten, burubero itsu batzuk zirala-ta. Gañera, samaritarrak be ez eben gura Jauretzea egiterik. Eta izkimizki ta eztabaidaka amabost urte egin ebezan geldia, Jauretze-bearrak bertanbera itxita. Baña, azkenean, igarle barrien eragiñez, asi ziran barriro be Jauretzea egiten.

Ajeo ta Zakarias judarrak animetan

177. Ajeo igarleak judarrak animetan diardu. Eta Jauretze barria lengoa baño ospetsuagoa izango dala dirautse; **gizon guztiak Itxarondakoa** sartuko dalako bertara.

Zakarias igarleak be bardin diardu. Eta auxe iragarten dautse judarrai: Jaungoikoa eurakaz egongo dala eta, batez be, Jauretze barri orretan egongo dala, eta Mesias, errege zuzen eta salbatzalea, apal-apal sartuko dala Jerusalem barrira, asto baten gañean.

178. Kristoren aurreko 516'garren urtean amaitu eben judarrak Jaunaren etxe barria. Eta aundikiro ospatu eben Eskeintza-jaiak.

Antxiñako Jauretzea lango ederra ez zan izan Jauretze barri ori. Ezekiel igarleak diñonez, andrentzako lekua, gizonentzako lekua eta abadeentzako lekua eukazan barruan. Fedebako erbestetarrak kanpokaldeko atairaño bakarrik sartuten ziran. Abadeak egunoro sartzen ziran toki **Santua** eritxoan lekura. Baña toki **Santu-Santua** eritxoan Jauretzeko lekuri santuenera, Abade Nausia bakarrik sartzen zan. Eta, au be, urtean bein bakarrik. Alkartasun-Kutxarrik ez egoan.

Jaungoikoaren Erria biziera barri bat artuz joian. Eta orduntxe batu ebezan antxiñako salmo zarrak, eta barriak asmau be bai, eleizkizunak pizka bat jantzi ta orraztuteko.

Alkartasuna barriztutea

179. Neemias erriburuak Jerusalem'go uri inguruko ormatzarrek eta torreak jaso zitunik eta ona, Jaungoikoaren Erria bene-benetan asi zan erlejiño barriztutea egiten.

Eta, beifiola, Neemias'en lagun bat, Esdras abadea, etorri zan Babilonia'tik. Moises'en Lege ta abar eukezan antxiñako papel zar mordo bategaz etorren. Eta Pazko jaiak be bazala-ta, batzar aundi bat egin eban judar guztiakaz. Eta goizetik gaberarte egon zan Moises'en Legea erriari irakurten eta azalduten. Eta entzunaldi luzea egin ondoren, ondo ikusi eben judarrak zelan Jaungoikoaren Legea ez eben gordetan. Eta aurrerantzean Jaungoikoaren esana obeto egiteko erabagia artu eben.

Damu-eleizkizun bat be egin eben, gero beste batzar baten. Eta Sinai mendiko Alkartasuna barriztu be bai, Moises'en Legea zintzo betetako asmo sendo bat artuten ebela Jaungoikoari esanez.

Baña erri osoak alkartuta bero-beroan egindako promes orreik ez ziran beti ondo bete. Eta, onexegaitik, Neemias'ek eta Esdras'ek sarritan gogoratuazo eta bete eragin eutsezan lege areik, bai abadeai, bai abade etziranai.

Neemias eta Esdras'i ezkerak, Jerusalem eta jerusalendarrak ondo zainduta egozan. Erria arri-esiakaz inguratu eben; erlejiñoa Legeagaz sendotu eben. Erlejiño-gauzak eta agintaritzagauzak alkartu eta bat egin ziran. Eta Jaungoikoaren Erria, abade-agintezko naziño bat biurtu zan.

Eta olantxe bizi izan ziran, aparte eta bakez, judar orreik, bereun urte inguruan, Persia'ko errege on eta laguntzalleen menpean. Jaungoikoa beretarrakaz egoan, aita bat bere semeen ondoan lexe.

Aldi onetan agertu zan "**Edestia**" deritxogun Idazteuneko liburu santua. Asieratik oraiñarte igarotako gauzak judarrai gogoratuazoteko asmoz idatzi eban egilleak, eurak Yabe'renak bakarrik zirala aitzen emoteko. "**Edesti**" liburua eskribidu eban idazle ezezaun orrek berak idatzi ebazan "**Esdras**" eta "**Neemias**" en liburu santuak be.

Jaungoikoaren Legeko liburu en indarra ta itzala

180. Esdras'ek erriaren aurrean egin eban irakurtaldirik arrezkero, Legea izan zan Jaungoikoaren Erriaren jarraibide ta eragin-garri.

Esdras'en aurretik be arduraz eta begirunez gorde eta jagoten ziran antxiñako idazki zar eta santuak. Baña onen esanetara euren biotzak biurtzeko, indar aundirik ez eben oindiño judarrentzako.

Jainkoaren Itz berbera izan arren areik ekarrena. Jaungoikoaren ize-
nean berba egiten eban igarlearen berba biziak indar geyago eukan
arentzat.

Baña Esdras'en denporatik asita aurrerantzean, Jainkoaren
Itz berbera idatzita euken liburu santuak, aintzakotzat artu ebezan
judarrak. Eta idatziriko Jaungoikoaren Berbea. Jaungoikoaren Ber-
bea zala konturatu ziralarik, Jainkoaren Legeko liburu santuak itzal
eta ardura aundiz leiduko dabez, beti Jaunaren borondatea egiteko.

Eta fede-bide eta neurri ziran idazki santu guztien lista bat egin
eben. Eta orduan batu ziran eta geroago idatzi ziran liburu santu
jator guztien errezkada orreri, "kanon" deritxogu guk oraiñ.

Arrezkero, Liburu Santuaren erri, Bibliaren erri izan ziran ju-
darrak.

Jaungoikoaren Erria gizon guztiakana bialdua

181. Erbestetik etorrita gero, judarren jokabideak aldatu egin
dauz Jaunak.

Eta erbestetarrak be euren errian onartuteko esaten dautse.

Mesias Salbatzallearen erreñua gizon guztientzako izango da
ez judarrentzako bakarrik.

Jerusalen barria dala-ta, begira zelan iragarten dauan ori
Isaias'en jarraitzalle izan zan igarle batek (Isaias'en liburuko 55'ga-
rren atzalburutik asita aurrera):

"Erriak zeure argitan ibilliko dira eta erregeak zeure
egunsenti argitasunean. Jaso begiak eta ikusi zeure ingu-
rua: Guztiak batu dira eta zeugana datoz; urrindik da-
tortsuz zure semeak eta zure alabak. Au ikusi dagizunean,
aberats eta argitsu ikusiko dozu zeure burua eta pilpil
asiko da zure biotza pozagaz eta zabaldu egingo yatsu.
Zeugana etorriko dira itxasoko ondasunak, baita errien
aberastasunak be."

Joel eta Abdias igarleen denporan bizi izan zan **Malakias** igarleak
be bardin-antzerako gauzak esan zitun. Eta Jaunari eskeintzeko, Jau-
retxean batzutan ilten ziran abere errenak edo itsuak ikusirik, lur-
bira osoko alde guztietan eskeiñiko dan opari garbi, santu ta bakar
bat iragarten dau Malakias'ek. Meza Santuan egunero egiten dan il-
dako ta berbiztutako Kristo'ren oparia izango zan opari santu ori.

Aldi aretan idatzi ziran beste liburu santu batzuk be, gai bardi-
ñak darabillez: Yabe gizon guztien Jaungoikoa da ta gizon guztiak
salbetea gura dau, guztiok gara bereak-eta.

Errut'en liburua artu daigun. Errut etzan judarra izan. Au andra
on au, ostera, Dabi'ren senitarteko egin zan.

Jaungoikoa gizon guztientzako da errukiorra. Jaungoikoaren erri-
ko arerioakaz eurakaz be errukiorra da, oneik euren biotzak Bera-
gana biurtuten badabez, damutasunez beterik. **Jonas'en** liburuan ager-
tzen da egi ori.

Tobi'k eta beronen famili zintzoak erbestean egindako gauza
ongarriak be, leidu zeinkez **Tobi'ren** liburuan.

Berak aukeratutako erriaren bitartez, mundu guztiko erriak be-
deinkatutea ta salbetea gura dau Jaungoikoak.

Eta geu, kristiñauok, gara oraiñ Jainkoaren Erri ori. Gizon guz-
tiak salbaziño-bidera ekarteko bialtzen gaitu Jesukristo'k. Eta misio-
lari arazoetan geugaz egongo dala agindu dausku.

ITAUNKETA

173. Nok lagundu eutsen erbestetik etorritako judarrai?
174. Erbestetik lenengo etorri ziran judarrakaz, nortzuk etozan buru?
175. Jerusalem'era eldutakoan, zer egin eben judarrak?
176. Jauretxe barriko bearrak, zer zala-ta atzeratu ziran?
177. Jauretxe barria egiten aurrera jarraitzeko, zer esan eutsen judarrai Ajeo
eta Zakarias igarleak?
178. Jerusalem'go Jauretxe barriaren barrua, zelakoa zan?
179. Sinai'ko Alkartasuna, zelan barriztau eban Jaungoikoaren Erriak Je-
rusalen'en?
180. Judarrak noz asi ziran Bibliaren erri izaten?
181. Zertarako aukeratu dau Jaunak bere Erria?

Jainkoaren Erria bere fedea zainduten

182. Kristo'ren aurreko laugarren gizaldiaren azkenerantza, Mazedonia'ko errege zan Alejandro Aundiak beregandu ebazan persiatarren aginpide ta lurralde guztiak. Eta, jakiña, judarren agintariak be greziatarrak ziran oraiñ. Eta bakealdi ondoren, larrialdia etorri zan. Eta judarrak gorriak ikusiko ditue; euren fedeari dagokionez bizi izatea, eriotz-bidera joatea izango da sarri askotan-eta.

Aldi orretako martirien jokaera eta biziera, gure kristau bizitzarako jarraibide ederrak doguz.

Tolometotarren aldia

183. Alejandro Aundia gazterik il zan (320'garren urtean). Eta berealaxe, erdibituta gelditu zan kaiserraren aginterria; Tolomeo eta Seleuko izeneko Alejandro'ren jenerala biren eskuetan.

Palestina Tolomeo eta beronen ondorengoen aginpidepean egon zan, ba, eun urte inguruan. Eta Grezia'ko agintari barri orreik Ejito artu eben euren bizilekutzat. Eta bakez bizi izan ziran judarrak tolomeetarren menpean be.

Aldi orretan, **Sanedrin** eritxon judarren Batzar Nagosiak zuzenduten eban Jaungoikoaren Erria. Abade eta erriko jauntxo edo aundikiak izaten ziran batzarkideak eta Abade Nagosia batzar-burua.

Ikastuna deritxogun Idazteuneko liburu santua, tolomeetarren denpora onen azkenaldirantza agertu zan. Oso liburu atsegingarria dogu. Euren erlejiñoa maite izateko diñotse judarrai Ikastunaren egille santuak. Bizitzarako benetako jakituria zein dan be agertzen dautse. Eta beste gauza gogoragarri asko.

184. Eta Palestina'tik kanpora bizi izan ziran judarrak, zer? Izan be, an-or-emen, ainbat judar egozan erbestean. "Sakabanatutako judarrak" esaten dautsegu orrei guk oraiñ.

Euren aberritik urrin bizi izan arren, euren fede ta oiturak zainduten alegindu ziran sakabanatutako judar orreik. Eta oneitariko batzuk lan aundi ta ikaragarri bat egin eben aldi onetan. Alejandria'n egozan judarrak izan ziran. Badakizu zer egin eben? Eskritura Santua gerkeraratu, Jaungoikoaren Berbea greziatarren izkuntzaz idatzi. Orixe bai benetan lan neketsua! Baña txalogarria ta onuragarria. **Irurogetamarrena** deritxogu itzulpen orreri.

Seleukotarren aldia

185. Seleuko'k eta seleukotarrak Siria artu eben euren bizilekutzat. Eta Palestina'z jabetu ondoren, Seleuko'ren ondorengo batek erabiliko dauz aurrean judarrak.

Antioko erregea izan zan judarrak estu ta larri artu ebazan ori. Euren fedea ukatu eta Moises'en Legea itxita, greziatarren erlejiño, lege, jakintza ta oiturak artuteko aginduten dautse judarrai, zorrotz eta gogor. Zapatuz jai egitea, billebaite ta eleizkizunak be galazo egi-ten ditu. Liburu Santuak gorde ta zaindu guararik dabizenak be laster arrapetan dauz. Jauretxeko erre-oparietarako altara gañean Olinpo'ko Zeus'en irudi bat ipinten dau, eta guzurrezko jainkoari opariak eskeintzera bearturik dagoz guztiak.

Jaungoikoaren Erria Antioko'ri arpegia emoten

186. Antioko erregea gaiztoa be gaiztoa zan. Zer egin aren aurka? Antxiña eta ointsu idatzitako liburu santuak leiduten ditu orduan Jaungoikoaren Erriak.

Bizitzan alperreko gauzak edo balioko gauzak zeintzuk diran, **Gogoetak** deritxogun liburu santuak erakutsiko dautsoz.

Atsebakealdian Jaungoikoagan uste osoa ipinten irakatsiko dautso Job zintzoaren liburuak. Job gizon zuzena da eta naigabez josita dago, ostera. Zergaitik, ba? Jaungoikoak bakarrik daki, gizonak baño geyago daki-ta. Eta gizona miñez beterik egon arren bizitza onetan, emen ezta dana amaitzen eta zintzoa sarituteko modu asko ditu Jaungoiko alguztidunak.

Egizko siñestebako erbestetarren oituren kontra gogor egiteko be-irakurten dabe judarrak beste liburu santu batzuetan. Jaungoikoa lagun, arerioen menpetik urtengo ebela eta, ez arre ez iso egon barik, aurrera zintzo jarraitzeko be bai.

Daniel igarlearen liburuak be asko lagundu eutsen. Judarrak babilonitarren menpean egozan denporako mutil gazte baliente baten istori bat dakar igarle orren liburuak. Daniel bera izan zan gazte ori.

Eta estu ta larri erabili eben. Baña, alan da guzti be, adore aundiz zaindu eban bere fedea Daniel'ek. Eta, azkenean, Jaungoikoaren laguntzaz, danen gañetik urten eban. Eta gizon aundi ta ospetsua egin zan. Ona emen, jarraibide egokia judarrentzat. Daniel'ek Babilonia'ko errege sasi-jainkozaleen kontra egindakoa, ikasbide ederra izan zan Antioko'ren azpian aurkitzen ziranentzako.

Gañera, Mesias'i buruz be gauza pozgarri ta itxarongarri asko irakurri zituen Daniel igarlearen liburuan. Esate baterako:

"Gabeko ikuskizunari begira nengola, auxe ikusi neban: Zeruko lañoartean gizaseme itxurako bat etorren. Zarrarengana urreratu zan eta onen aurrera eroan eben. Eta aintza ta al-izate ta agintaritza emon yakon. Eta erri ta erraza ta izkera guztietakoak menpetu yakozan. Eta onen agintaritza ifnoz be ezta amaituko, beti-betikoa da-ta."

"Zerupeko erreñu guztien al-izate ta aunditasuna Goi-goikoaren santuen erriari emongo yakoz. Eta onen agintea, amaibako agintea izango da. Eta beste agintari guztiak, menpeko ta esaneko izango yakoz."

"Lurreko autsarrean lo dagozan gizataldeak itzartu egingo dira; batzuk betiko bizitzarako eta besteak betiko eziñegon ta lotsarako."

Persiatarren erregeaz ezkondata egoan emakume judar eder ta zoragarri batek egindako gauzak be, oso kontsolagarriak ziran pertze-kuziñopean egozantzako. **Ester**'en liburuak dakar ori. Liburu onetantxe be, perzekuziño-ordu gogorrean zelan Jaungoikoak bere erriari lagunduten dautson ikusten da.

Eta **Judit**'en liburua? Egokia auxe be aldi aretarako. Gizonezkoak bildurretan eta ezertarako gogo barik egonarren, Judit izeneko andra bizkor eta azkar onek beronek bakarrik ondatzen ditu arerioak.

Jaungoikoaren Erriko martirien jatortasuna

187. Bidea estutu eta lakartu zanean, judar askok atzerantza egin eben. Oneik guztiz ollotu edo eulitu egin ziran. Eta euren fedea ukatu eta erregearen esanetara jarri ziran.

Beste batzuk, ostera, Jaungoikoaren Legea ausi baño len, bizia galdu naiago izan eben. Oneik bai izan ziran zintzoak benetan! Oneiek adoretu eben erria, euren fede ta sendotasunagaz.

Orren artean bazan Eleazar eritxon agure bat. Fede aundiko gizona eta lege-jakituna. Areioren eskuetan neke-miñez eiota iltea, naiago izan eban bere siñismena ukatu baño. Gazteentzako ikasbide jarraigarrria! **Makabeotarrak** deritxogun bigarren liburuan ikusi daikezu Eleazar'en odol-autortza ori.

Jainkoaren Legea zintzo betetzeagaitik il ebezan zazpi anairen eta onen amaren eriotza be liburu orretan agertzen da. Jainko alguztidunak beti bizitzeko berbiztuko ebazala-ta, uste osoz il ziran. Areitariko batek, oñazez josita egon arren, auxe esan eban guztien ize-nean:

"Gure antxiñakoen legea ausi baño, iltea naiago dogu."

Eta aren adorea ikusirik, beste anaiak eta ama be indarbarrituta aurkitu ziran eta adoretsuago plantau ziran eriotzaren aurrean. Eriotza gogorra izan eben guztiak. Baña zintzo il ziran, Jaunaren Legea ausi barik. Begira Idazteunak zer diñon anai gazteenari buruz:

"Orrelaxe il zan, garbi ta zintzo, uste osoa Jaunagan ipiñita."

Azkenengo, ama il zan.

Zelan euki leiteke orrenbesteko fede aundi ta bizia? Idazteunean leidutako Jaungoikoaren Berba bizigarriak sortu eta sendotu eban siñismena, judar zintzo orrein biotzetan. Leidu daigun, ba, geuk be sarri Jaungoikoaren Berbea geure bizitzan fede biziz jokatzeko.

Judarrak gudari

188. Jesukristo'ren aurreko 167'garren urtea zan. Matatias abadea bere erritarrai deadarka asi zan: **Lege-zale dana eta Alkartasun bidetik ibiltea nai dauana, betor nire ondorik.** Eta mendirantza joan zan. Bere bost semeak eta israeldar jainkozale gartsuak eroan zitun lagun. Eta andixe, menditik, asi zan gogotsu Antioko'ri arpegia emoten. Eta gogor jokatu be egin eban, bere lagun jatorren eragiñez.

Matatias sutsua il zanean, Judas, Makabeo abizenekoa, jarri zan gudari-buru. Eta arerioakaz ainbat alkar-jote egin ondoren, Jerusalem barriri beregandu eban. Iru urte lenago sartu zan Antioko an.

Judas'ek Jauretzea garbitu eta apaindu eta bedeinkatu egin eban, barriz be, Yabe'ren omenez eleizkizunak egiteko. Eta Eskeintza-jaiak egin ziran.

Judas'en urrengo, Jonatan bere anaia jarri zan judarren nausi. Gero, Simon, Abade Nagosi izan zana. Erlejiño eta erri-arazoetarako askatasun eta jabetasun osoa onexek ekarri eutsen judarrai.

Jaungoikoa zintzoen alde dago beti. Eta auxe ikasi bear dogu ondo: Oñazez eio edo ilten bagaitue be, Jaungoikoa eta bere aginduak eztozug ukatu edo ausi bear sekula be.

ITAUNKETA

182. Persiatarren urrengo agintariak, nortzuk izan ziran Palestina'n?
183. Tolomeotarren menpean, zelan bizi izan ziran judarrak?
184. Non aldatu zan gerkerara Eskritura Santua?
185. Antioko laugarrenak zer egin eutsen judarrai? Zer egin eben oneik orduan?
186. Antioko'ren pertzekuziño aldiko martiri batzuk izentau egizuz.
187. Greziatarren azpitik, zelan urten eben judarrak?

Jainkoaren Erria, agindutako Mesias'eri itxaroten

189. Greziatarraz burruka gogorrak egin ondoren, erbes-tetarrak kanpora jaurti ditu Jaungoikoaren Erriak. Eta, barriro be, bere buruaren jabe egin da. Eta erreñu barri bat sortu da Palestina'n.

Gizaldiz gizaldi ainbeste bider eskarmentauta gero be, ez ete-dira ibilliko judarrak Jaungoikoaren esanean? Orain be buru-gogor izango ete-dira? Ikaskizun onetan ikusiko dozu.

Alkartasun Zarreko gure Edesti Deunaren azkenengo zatia. azal-putera noatsu. Orain datozan zati asko ezaunak izango dozuz, Jesu-kristo'ren denporako gauzak dira-ta.

Jaungoikoaren Erria bere buruaren jabe barriro be

190. Simon'ek lortutako Palestina'ren askatasun eta jabetasunak urte mordoan irauñ eban; K. a. 143'garren urtetik 63'garre-nerarte.

Simon'en urrengo erri-zaintzalea Juan Ircano, aren semea izan zan. Eta bere aita lez, au be Abade Buru izan zan. Baña errege be izan zan, gañera. Eta asmoneotarren agintzaldia onexegaz asi zan.

Jaungoiko zaletasun gitxiko gizona izan zan Juan. Eta erri-ara-zoetan samaraño sartuta ibilli zan beti. Salomon'en erreñuaren bes-tekoa, izan ei zan, ia-ia, Juan'en erreñua be.

191. Juda'ko Juan erregearen aldi orretan, alderdi bi sortu ziran: Saduzeotarrak eta fariseotarrak.

Saduzeotarrak

Bere erreñua zaindu ta zuzenduteko ardurea emon eutsen Juan'ek aundikien arteko batzuei. Eta saduzeotarren alderdiaren sorburu oneixek izan ziran.

Greziatarren izaera eta biziera zale amorratuak izan ziran saduzeotar orreik. Eta erriko goi-malletan egotea izaten zan euren amesa; batez be, Abade Buru izatea. Baña erlejiño-gauzetan baño, politika-gauzetan arduratsuago ibiltzen ziran. Eta gizonaren arimea il-eziña etzala eta geroko bizitzarik be ezegola, esaten eben areitariko batzuek.

Fariseotarrak

Saduzeotarren kontra jokatu eban alderdi bat be agertu zan. Fariseotarrak izan ziran. Moises'en Lege zale amorratuak izan ziran oneik. Eta ardura aundiz entzuten ebezan edo leiduten ebezan idazlari edo lege-maixu entzutetsuenen lege-azalpenak. Eta aiek esandako guztia zeatz-zeatz bete gurarik ebizan beti.

Erriak gizon santutzat eukiten zitun. Baña gizon arroak izateko arrisku aundian egozan onexegaitik; besteak ezereztzat artuteko arriskuan. Eta, arropuztuta, bein baño sarriago oinperatu zituen pekatariak edo siñiskeriz ebizan erbestetarrak. Santutasuna ona da; baña santukeria txarra.

192. Juan erregea gizon portau zan erregetzan. Baña, alan da guzti be, judarren gogoko ez zan izan. Zergaitik? Dabi'ren jatorrikoa ez zalako. Gañera, erlejiño-arazoetarako aginpidea eta erri arazoetarako aginpidea gizon baten eskuetan egotea be, ez eben ontzat artu judarrak.

193. Juan'en urrengo, beronen semea izan zan errege. Alejandro (Janeo) eukan izena. Eta, au be, Abade Buru eta errege izan zan batera. Eta onexegatik, fariseotarrak aren kontra jaiki ziran. Eta burrukaldia egin eben erregearen alderdikoak eta fariseotarren alderdikoak. Baña erregeak irabazi eban azkenean. Eta gurutzeratuta il zitun fariseotar asko, Jerusalem'en bertan.

Alejandro'ren urrengo, onen emaztea izan zan agintari. Eta onexek egin zitun bakeak fariseotarrakaz. Eta ordutik aurrera indar aundia artu eban fariseotarren alderdiak.

Palestina erromatarren menpean

194. Askatasun barik bizi izatea, gauza tamalgarria da. Baña barriro be judarrak iñoren menpean bizi izango ziran. Begira zergaitik eta zelan:

Alejandro'n seme biak izan gura eben errege. Baña biak batera izan ezin. Eta, jakiña, burrukea sortu zan. Eta erromatarrai eskatu

eutsen laguntasuna biak. Eta Siria bereganatu ondoren, Pompeyo gudariburua etorri zan Jerusalem-era. Eta Jauretxeko Toki Santu-Santurano sartu zan eta Juda be bereganatuz ebatzi ebazan anai bien eztabaidak. Eta erromatarrek jabetu ziran Palestina'z. Jesukristo jaio aurreko 63'garren urtea zan.

Erodes Aundia

195. Palestina erromatarren probintzi biurtu zan. Eta Erodes izan zan Palestina'ko errege barria. Esau'ren jatorrikoa izan zan Erodes. Lan asko egin eban bere erreinua edertuteko. Jerusalem'go Jauretxea be arrigarriri barriztau eban.

Baña erbestetarren siñeskeri ta ekandu zantarrak aintzat eta ontzat euki ebazan. Eta okerra be izan zan; bere andrea, iru seme ta beste etxearteko batzuk ilterano be eldu zan-eta. Bere eritarrai be diru asko kenduten eutsen inpuetuen bitartez. Eta, gañera, erromatarren ezaugarri zan urrezko arrano bat ipiñi eban Jauretxe santuko ateetan.

Gorrotogarri izan zan orrexegaitik judarrentzat. Eta ezin eben ikusi.

196. Zirriparra ta matxinadak be sortu ziran Erodes'en agintaldian; guzurrezko mesias batzuen eragiñez geyenak. Baña laster ixildu ta gelditu ebezan.

Erri zintzoa, ostera, bere Askatzallearen etorrerari begira egoan gogo biziz. Eta zintzoenak basamortura joan ziran, egizko Mesias etorri eitenerako prest egoteko. Alkartasun barrikoak zirala eurak, esaten eben oneik.

Itxaso Illaren ondoan, Juan Bateatzallea bizi izan zan lurraldean, aurkitutako paper batzuek dakarskue "esenitarrak" eritxoen basamortuko judar mordo orren barria. Orren artean ez egoan zurerik eta ninerik, geurea baño; dana zan guztiena: Jainkoatzaz ekiena eta oñetiko ondasunak edo euren bearraren porazuz egindako gauzak. Gorputza ezi ta nekatu ta oititz asko egiten eben. Eta laster etorteko zan Mesias albait ariñen etorri eitela eskatuten eutsen Jainkoari.

197. Palestina'tik kanpora bizi izan ziran "sakabanatutako judar" batzuk be euren lurraldera etorri ziran barriro. Beste batzuk erbestean bertan geratu ziran eta siñiskeriak ebagi ta egizko siñismena erein eben, laster etorteko zan Mesias salbatzallearen barri ona zabalduz. Izan be, gogaituta ta iguinduta egozan batzuk guzurrezko jainkoakaz eta itxaropide barri baten billa ebizan; zoriona emongo eutsen erlejiño bat nai eben.

198. Jesukristo jaio aurreko gizaldi onetan argitaratuten da Testamentu Zarreko azkenengo liburu santua be. Alejandria'n egin zan. Eta **Jakintza** liburua deritxogu. Zor ta lor, beti aurrean erabilia izan arren, gizon zuzenak betiko bizitza izango dauala diñosku Jakintza liburu orrek. Siñiskeria ta siñismena zer diran be erakusten dauku, siñiskeri bideetatik dabizanak egizko fede-bidera etorri daitezana.

Jaungoikoaren Semea gizon egin zan eta gurartean bizi izan zan

199. Ontan, Jaungoikoak gizonai egindako agintza guztiak betetu-ordua etorri zan. Jaungoikoa zuzena eta berbakoa da. Badator Mesias, gizonen Salbatzallea. Begira zelan datorren. Leidu daigun Ebanjelioa:

"Gabriel aingerua Nazaret'era etorri zan; Dabi'ren jatorriko Maria izeneko neska apal baten etxera. Eta onegana ondoraturik esan eutsan: "Poztu zaitez, graziaz bete ori, Jauna da zugaz." Berbok entzunda, Maria larritu egin zan eta arelako agurra zer izan eitekean erabilen buruan. Eta aingeruak esan eutsan: "Ez bildurtu, Maria, Jaungoikoaren gogoko zara-ta. Begira: Sabelean umea sortu eta Seme bat izango dozu. Eta izena Jesus ezarriko dautsazu. Aundia izango da Au eta Goi-goikoaren Seme esango dautse. Eta Jaungoiko Jaunak bere aita Dabi'ren errege-jarlekua emongo dautso eta Jakob'en etxeko buru izango da betiko eta Aren aginpideak ez dau amairik izango."

200. Andik ille batzuetara, Erroma'ko agintari Kaizar Augusto zala, Dabi'ren erri zan Belen inguruetan, gabaz eta izarpean, euren artaldeak zainduten egozan artzain batzuei Jaunaren aingeru bat agertut yaken. Eta esan eutsen:

"Ez larritu; erri osoaren pozzarri izango dan barri ona emotera nayatortsue: Salbatzalle bat jaio yatzue Dabi'ren errian; bera da Mesias, Jauna."



Jesukristo, da gizon guztien Salbatzallea

ITAUNKETA

189. Erbestetarrak kanpora bota ondoren, zer jazo zán Jaungoikoaren Errian?
190. Juda'ko erreñu barriko asmoneotarren agintzaldia, nogaz asi zan?
191. Juan erregearen denporan sortu ziran alderdiak, zeintzuk izan ziran?
192. Juan Ircano ez zan izan judarren gogoko erregea. Zergaitik?
193. Zergaitik jaiki ziran fariseotarrak Alejandro Janeo'ren kontra?
194. Zergaitik eta zelan jabetu zan Erroma Palestina'z?
195. Zergaitik ezin eben ikusi Erodes Aundia judarrak?
197. Palestina'tik kanpora bizi izan ziran judarrak, zer irakatsi eutsen erbestetarrai?
198. Testamentu Zarreko azkenengo liburu santua, non eskribidu zan?
199. Zelan egin zan gizon Jaungoikoa?
200. Nortzuk iragarri eutsen gizonai, agindutako Mesias Belen'en jaio zala?

JAUNGOIKOA GUGAZ

Alkartasun Zarreko gure Salbaziño-egintza azalduteko egin dugun liburu auzamaitzera goaz.

Jesukristoren aurretiko denporako gure Salbaziño-ko Isteria azalduten ibilli gayatzuz. Jainkoaren agintzak eta egintzak ikusi dozuz. Baita aldi aretako gizonen gora-berak be.

Eta, oraiñ, Jesukristo gure Jaun ta Salbatzallea obeto ezautuko dozulakoan gagoz.

Aita Jaungoikoa bere Semearen etorrera atonduten ibilli da Alkartasun Zarrean.

Abraan'egaz asi eban gure Salbaziño-egintza. Gero, erri bat aukeratu eban, erri onetakoengandik bere Seme Jaungoiko Salbatzallea jaio eiten. Eta, azkenez, gizonen gogoen zuzendaritza edo agintaritza igarleen bitartez moldatu eban. Eta Berak jarritako denporea bete zanean, bere Semea bialdu euskun, gu salbau eta guri zelan bizi erakusteko.

Maria Birjiñagandik aragia artu eta Jaungoikoaren Semea gizon egin zan eta gizonen artean bizi izan zan, guztiai on egíñez beti. Bere irakaskintzak miragarriak izan ziran; berak irakatsi eutsen gizonai Jaungoiko Aita maitatzen, fede ta maítasunez alkaturik, anai lez bizi izaten. Gizaldiz gizaldi itxarondako Mesias Bera zala adierazo eutsen bere jainkotasuna agertuz. Iragarkizun eta mirariz egiztatu ebazan bere berba guztiak, batez be, bere Biztueraz.

Agindutako guztia bete eban, onela, Jaungoikoak. Eta betiko Alkartasun Barri bat egin eban gizonakaz.

Baña beste liburu baten ikusiko dozu ori. Gure Salbaziño-egintzako Alkartasun Barrian. Antxe ezautuko dozuz ondo Jesukristo eta beronek sortutako Eleizea.

Ekin eta jarraitu aurrera beti, ba. Egin daigun beti Jaunaren esana. Ibilli gaitazan beti, aspertu barik, Jainkoaren bideetatik.

IZTEGITXOA

- A**
- Abail.** Arriak botatekoa; ugel txatal bat eta kordel zafi bigaz egiten da.
- Abere.** Animal, ganadu.
- Adierazo.** Gauza bat aitu eragin uler-tuazo.
- Adimen.** Gauzak aituteko, ulertuteko almena.
- Agintza.** Agindutako zeozer, eskeindutako zerbait, berba-emona.
- Aldatu.** Kanbiau.
- Aldi.** Denpora, sasoi.
- Aldra.** Jente pillo bat, talde, mordo.
- Anker.** Biotz gogorreko gizona.
- Artalde.** Ardi errebanua.
- Arrano.** Basa-txori aundi, indartsu ta bizkor bat.
- Arri-esi.** Erri baten inguruan egindako orma aundia.
- Atzalburu.** Liburu baten kapitulu bat.
- Aukeratu.** Nonor edo zeozer belejidu.
- Azalpen.** Gauza bat argitzeko, ulertuazoteko ezplikaziño bat.
- Azkarra.** Bizkorra, indartsua.
- Askatasun.** Libertadea.
- Askatzalle.** Norbait edo zerbait nuntaitetik ataraten dauana.
- Aspertu.** Gogait egin, iguindu, kantzau.
- Aztertu.** Arakatu, gauza bat zustraiz jakiten alegindu.
- Azti.** Gauza miragarriak egiten ditun gizon edo andra bat.
- B**
- Babezki.** Antxiñateko gerrateetan be-soari lotuta eroaten zan eskudoa.

- Baimen.** Zeozer egiteko permisioa.
- Baratz.** Solo, ortu, lorategi.
- Basamortu.** Lurralde legorra, latza lakarra.
- Batzarkide.** Batzar bateko laguna.
- Berariz.** Batez be; beste batzutan edo beste batzukaz ez lez; aparte.
- Berealaxe.** Beingo baten, berbertan.
- Billebai.** Zakilaren buru gañeko azala ebagi.
- D**
- Deuna.** Santua.
- Diardu.** Dabil.
- E**
- Ebazi.** Eztabaidak, erri bateko gora-berak ebaztzen ditun, gizona, jueza.
- Edesti.** Jazotako gauzak, istoria.
- Egiztatu.** Agindutakoa, esandakoa bete, esana egin egi biurtu.
- Egoalde.** egoalde. Eguzkiak urten eta eguzkia sartu egiten dan bien-bitarteko lur-buru alde bat.
- Egutegi.** Kalendarío.
- Ekandu.** Oitua, kostunbrea.
- Ekaitza.** Denpora txarra, denporal, ikeragarri bat.
- Erabarritu.** Barriztau, barritu.
- Eragozpen.** Gauza bat egitea galazoten dauan zerbait, traba, koska.
- Erizpide.** Eretxi, uste, burubide.
- Erre-opari.** Oparigaiak erre egiten ziran oparia.
- Errezkada.** Illeda; lista bat.

Eskeindu. Zeozer emon, ofrezidu nonori.
Eskeiñi. Eskeindu.
Esku artu. Parte artu.
Etorkizun. Etortzekoa, izatekoa, gerokoa.

G

Gai. Gauza, tema.
Garaipen. Gaiña artzea, gañetik urtetzea, irabaztea.
Gertaera. Jazotako zerbaite.
Gizaldi. Eun urte inguruko aldi bat.
Gizadi. Alde ta aldi guztietako gizon guztiak.
Giza-opari. Persona batzuk illez egiten zan oparia.
Gizaseme. Gizonaren semea.
Gizatalde. Jente taldea, gizon pilloa.
Gogaitu. Aspertu, iguindu, kantzau.
Gomuta. Gogoragarri bat, errekuertu bat.
Gomutau. Gogora ekarri, gogoratu, akordau.
Guda-gizon. Gerrate baten dabillan gizona, soldada.
Gur egin. Menpetasuna agertu, erakutsi; eleizkizunak egin; adora.
Gurtu. Gur egin.

I

Ibildeun. Jaungoikoaren omenez egiten dan ibillaldi bat; prozeziñoa.
Idatzi. Eskribidu.
Idazkera. Idazteko era.
Idazlan. Idazten egindako alegiñak, lanak.
Idazlari. Eskritore, lege-gizon, lege-maixu.
Idazle. Eskritore.
Idazteun. Liburu Santu, Biblia.
Igaro. Pasau.
Igorzi. Olio ezarri.
Iguin. Antojua.
Ikaskizun. Leziño.

Ikuskizun. Gauza ikusgarri bat. Izarrik edo amesetan, begiakaz edo irudimenagaz ikusten dan gauza miragarri bat.

Illeta-kantu. Kantu triste bat.

Illobi. Gorpua ipinten dan tokia, zuloa.

Illobiratu. Lurra emon; gorpua illobian sartu.

Iparalde (ifarralde). Nortealdea.

Ipar-sartalde. Eguzki-sartaldetik ifarraldera bitartea.

Iragarkizun. Jainkoaren izenean eta ordezesaten dan zerbaite; jazo aurretik iragarritako gauza bat.

Iragarpen. Iragarten dan gauza bat.

Iragarri. Esan, anuntziatu, jakin-arazo, adierazo.

Iraindu. Zeozer esanez edo egiñez nonor mindu; norbaiten kontra zerbaite egin; kalte egin.

Irakaskintza. Nonok irakatsitako gauza ikusgarri bat.

Iraun. Egon, eutsi, jarraitu, luzatu.

Irudi. Itxura, antz; antzerako gauza bat; ejenplu bat; arriz edo marmolez edo igeltsoz edo egindako figura bat.

Irudimen. Imaginaziñoa.

Irusaku egin. Engañau.

Itaunketa. Itaun batzuk; pregunta mordo bat.

Itsu-mutil. Itsueri lagunduten ibiltan dana.

Itzulpen. Izkuntza batetik beste izkuntza batera bihurtutakoa, traduziñoa.

Itxaropen. Itxaroteko gogo; esperantzia.

Ixuri. Bota, bialdu, zabaldu.

Izkuntza. Berbeta, berbaera.

Izurrite. Peste; gauza ondagarri batzuk, gaixo nastagarriak eta abar.

Izaera. Gizon baten jokerak.

Izaki. Gauza bat; dan gauza bat; Jaungoikoak sortutako gauza guztiak.

Izenpetu. Firma; izena jarri.

J

Jabetasun. Ugazabatasun.

Jaso. Altzau.

Jarraibide. Norbaiten antza artuteko bidea; nonori jarraituteko bidea.

Jarraigarri. Jarraitzeko egoki ta onurakorra.

Jator. Egizkoa, benetako.

Jatorri. Asiera, odol, zustrai, oñarri.

Jauretxe. Jaunaren etxea; eleizea.

Jazo. Zeozer pasau (suceder).

Jokabide. Gizon baten asmuak, amesak...; elburu bat; ideal bat.

K

Kementsu. Indartsua, bizkorra.

L

Leneratu. Barriztau; len izandakoa izan barriro.

Lilluratu. Engañau, erdi-zoratu, itsutu.

M

Mandatarri. Barri on edo txar bat emoten, errekadu bat egiten, zerbaite iragarten bialdutako bat.

Matxinada. Zalaparta; erreboluziñoa; nonoren edo zeozeren aurka jalkitea.

Menpetasun. Apaltasun, umiltasun, esanekotasun.

Moldatu. Jarri, atondu, ezi.

Muga-erri. Nazio edo probintzi batego azken-erriak.

N

Norbait. Nonor.

O

Oben. Pekatu.

Odol-autortza. Odol-eriotza; martiri izatea.

Oitura. Ekandu, kostunbrea.

Olerki. Poesi, bertso.

Omenez. Ospez, aintzaz.

Ondoz. Larrialdi, zorabio.

Ondorengoak. Norbaiten odolekoak, jatorrikoak.

Onespen. Bedeinkaziño.

Onetsi. Ontzat artu, bedeinkatu.

Oñazez. Min aundiz, sufrimentu askogaz.

Oñordeko. Jabegi, erederu.

Oñordetza. Ereztzia.

Opari. Erderazko «sacrificio» esanai dau.

Orantza. Lebadurea.

Ordain-naigabe. Pekatuakaitik pasetan diran nekeak.

Ortzadarra. Batzutan zeruan agertuten dan koloreatako arku, us-truku.

Otseindu. Serbidu

S

Sakabanatu. Banandu, alden, za baldi.

Sasi-igarle. Guzurrezko profeta.

Sasi-jainko. Guzurrezko Jainko.

Sortalde. Eguzkiak urtetzen dauan aldea.

U

Ulergatxa. Ulertuteko gatxa, zailla.

Ustetsu. Konfiantza aundiz.

Ustruku. Ortzadarra.

Z

Zentzatu. Bere senera etorri; zintzotu.

Zerbaite. Zeozer.

Zerga. Inpuestu, kontribuziño, estalika.

Zigor. Kastigu.

Zugatz. Arbola.

Amalagarren ikaskizuna.—Israel'go erreinuko azkenengo igarleak ...	89
Amabosgarren ikaskizuna.—Juda'ko erreinukoai Jaunkoikoagazko egin- bearrak irakasten diardu Isaias igarleak	93
Amaseigarren ikaskizuna.—Jeremias igarleak Alkartasun barri bat ira- garten dau	99
SEIGARREN ALDIA.—Judarrak erbestetarren menpean	105
Amazazpigarren ikaskizuna.—Jainkoak bere Erria ezi ta barriztau egi- ten dau erbestaldian	107
Amazortzigarren ikaskizuna.—Jaungoikoaren Erriak biziera barri bat artzen dau	113
Emeretzigarren ikaskizuna.—Jaungoikoaren erria bere fedea zainduten.	119
Ogeigarren ikaskizuna.—Jaungoikoaren erria agindutako Mesias'eri itxa- roten	125
Jaungoikoa gugaz	130

LABAYRU-IKASTEGIA	
BIBLIOTEKA - DERIO	
Sarr	11.619/86
Gaia.	
Tokia.	